

+



Mitxel Zubizarreta
helikoptero-pilotuaria
elkarriketa

Hirigintza: hobeto
bizitzeko herriak
Debagoienean

KORONABIRUSAK BALDINTZATUTAKO HAUTESKUNDEAK DOMEKAN

Posta bidezko botoak gora egin du,
botoa etxetik gutun-azalean sartuta
eramatea gomendatu dute eta
maskara derrigorrezkoa izango da / 6



Bergarako Udaleko
langile bat Seminarixoko
hauteslekuan boto-kutxa
bat jartzen eguaztanean.

XABIER URZELAI

**Udalekurik ez dute
izango gaur
Eskoriatzan,
bi koronabirus
kasugatik** / 18

**laz baino 1.600
abonatu gutxiago
aurtengo udan
Agorrosingo
kiroldegian** / 20

**Oñatiko plaza jendez
bete da Voxeko
buruzagiei "Gora
Oñati antifaxista"
esateko** / 36



GEHIGARRI BEREZIA / 25

SINADURAK

OSKAR
ELIZBURU / 8

JOSU
ZUGASTI / 11

ASIER
ELORTZA / 22

ONEKA
ANDUAGA / 36

ANDER
ETXEBERRIA / 48

Eneko Azurmendi ARRASATE

Domekan egingo dituzten hauteskundeetan "epika gutxi" dago jokoan, Iñaki Galdos analista oñatiarraren esanetan: "Nahiko garbi dago zeinek gobernatuko duen. Gobernua errepikatu egingo da eta jokoan dagoena da ea gobernu berriak gehiengo osoa edukiko duen edo ez. Bigarren maila batean, jokoan egon daitezke gobernua osatzeko orduan EAJren eta alderdi sozialistaren artean izango diren barne orekak", dio.

Garitanok, bestalde, uste du jokoan dagoena dela "orain arte egon diren aldaketa sozialek eta politikoez eraginik izango ote duten eta benetako aldaketa bat egongo ote den". Bere esanetan, Zaldibarko krisiak, osasun krisiak eta Osakidetzako EPEen iruzur kasuek izan beharko lukete eragina domekako hauteskundeetako emaitzan, "baina orain arte beste hainbat kasutan moduan, komunikabideen eta botere ekonomikoaren eragina ekidin egin dute, hori jakina da", gaineratu du.

Galdosek uste du atzera begira baino gehiago aurrera begira emango dutela botoa herritarrek. "Pandemiaren krisiaren kudeaketa nahiko ondo baloratzen dute herritarrek, inkesten arabera. Zaldibarko krisiari dagokionez, gauza bat da kritikoa izatea krisian Jaurilaritzak eduki duen jokaerarekiko, baina beste gauza bat da hori ze puntutaraino den erabakigarria botoa ematerakoan. Iraganeko kontuek garrantzia dute, noski, baina sekulako pisua izango du krisiari aurre egiteko konfiantza zeinengan duten herritarrek. Hau da, botoa etorkizunera begira emango dutela uste dut".

Gehiengo absolutua jokoan

Domekan jokoan dagoen beste gai bat da EAJk eta alderdi sozialistak gehiengo absolutua lortuko duten ala ez. Galdosek ez du zail ikusten aukera hori. "Ez dugu ahaztu behar, duela lau urte, azken kontaketa, hauteskunde egunetik bi egunera, EAJtik EH Bildura pasatu zela eserleku bat. Orduan ere ez zuten urruti izan gehiengo absolutua. Inkestak EAJrekiko oso onak dira, baina ez dakit horrenbeste gora egiteko aukera duenik. Alderdi sozialistak sekulako porrota hartu zuen azken hauteskundeetan, baina orain



Boto kontaketa egiten, aurreko beste hauteskunde batzuetan. IMANOL SORIANO

Oraingoa sendotu, edo ezkerrera jo

Etzi egingo dituzte Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak eta inkestek diote EAJk irabaziko lituzkeela berriro; Iñaki Galdos analistaren eta Martin Garitano kazetariaren berbak jaso ditu GOIENAK, balizko gobernua eta alternatiba posibleak aztertzeko

goraka doala esango nuke. Beraz, EAJ dagoen moduan geratuta ere, alderdi sozialistak eserleku bat gehiago lortuta, gehiengo absolutua haiena da".

Garitanok ere "oso posible" ikusten du EAJk eta PSE-EEk gehiengo absolutua lortzea. "Bana

GARITANO: "DUDARIK EZ DUT ABSTENTZIOAK GORA EGINGO DUELA; JENDEAK BELDURRA DAUKA ORAINDIK"

horrek ez lioke gehiengo sozialari erantzungo. Alde batetik, gehiengo soberanista egongo litzateke eta, bestetik, gehiengo ezkertiarra, eta parlamentuak horri erantzun beharko lioke. Jeltzaleen eta sozialisten artekoa komenentzia bikotea da. Edozein kasutan, posible eta zilegi da".

Alternatiba errealik ez

Jeltzaleen eta sozialisten arteko gobernuaren alternatiba posible dela dio bergararrak. "Hala ere, interesak jartzen dituzte aurretik, eta ez parlamentuan ager-

tuko diren indar korrelazioak". Miren Gorrotxategik ezkerreko hiru alderdien gobernua jarri du mahai gainean. "Iritzi hori oso errespetagarria da, baina Idoia Mendiak argi eta garbi esan du ezker abertzalearekin ez duela ezer jakin nahi. Bi ez

GALDOS: "GOBERNU ALDAKETARAKO AUKEARIK EZ BADA, BOZKATZEARI UZTEN DIOTE ASKOK"

dira ezkontzen batek ez badu nahi. Alderdi sozialistak apustua egin badu jeltzaleen makulua izateko, hala egingo dute, baina parlamentuak ez du hori islatuko", nabarmendu du.

Oñatiarrak azaldu du alderdi politikoez baztertu dutela aukera hori eta, beraz, ez dagoela alternatiba errealik. "Nafarroan, adibidez, alderdi sozialista EH Bildu eta Geroa Bai baino gorago geratu zen hauteskundeetan, eta hemen EH Bildu PSE-EE baino gorago geratuko da. Alderdi sozialistak, orain arte, sekula ez luke koalizio abertzaleko hautagai bat presidente jarriko eta EH Bilduko hainbat boto-emalek ere ez lukete begi onez ikusiko akordio hori, baina, etorkizunera begira, badi-rudi urrats gehiago egiten ari direla bi alderdi horiek".

EAJ eta EH Bildu elkarrekin?

"Oso garbi" dago "ezinezkoa" dela momentu hauetan EAJren eta EH Bilduren arteko gobernu bat, Galdosen esanetan. "Sekulako borroka dago hegemoniaren bila. Gainera, lehen eta bigarren indarrak dira. Gobernu abertzale bat izatearen ametsa jende askorena da, baina, gaur-gaurkoz, hipotesi moduan planteatu ere ez da egiten aukera hori".

Garitanok, berriz, ez du uste "EAJn agintzen dutenek" nahi dutenik EH Bildurekin gobernua osatu. "Gehiengo subiranistari erantzun nahi baliokete, hala beharko luke izan, baina Urkulluk, Ortuzarrek eta konpainiak ez dut uste gehiengo independentista baten alde egiteko asmorik daukatenik, nahiz eta alderdi eguneko edo mitin batean halakoak esan. Ezin da ukatu EH Bildu bigarren indarra dela, Gipuzkoan eta Araban lehen indarra izateko aukera daukala. Beraz, aukera hori aurrez ukatzea ez da oso demokratikoa".

Voxek eserleku bat lortuko du?

Galdosek ez du baztertzeko esku-muturreko alderdiak eserlekua eskuratzerik. "Hauteskunde lege honekin, oso boto gutxi-aren aldeak eserleku aldaketa eragin dezake. Arabako eserlekuak oso merkeak dira, boto gutxiarekin eserlekua lortzeko aukera egon izan delako historikoki. Beraz, eserleku bat lortu dezakeela uste dut".

Garitanok, berriz, ez du uste ordezkariarik lortuko duenik.



"Bere kanpaina probokazio hutsa izan da eta, azken finean, zarata atera behar du presente egoteko, nahiz eta benetan daukan presentzia baino gehiago eman dioten komunikabide batzuek. Hala ere, euskal jendarteak ez du faxismorik onartzen eta parodia patetikoa izan da haien kanpaina. Horren erakusle dira Donostian edota Oñatin egindako ekitaldiak. Herritarren tentsioa bilatzen dute, eta komunikabide handietan azaltzea. Baina horrek ez dauka jendarterengan eraginik". Galdosek bat egin du azken horrekin. "Vox oso gustura ibiltzen da saltsa horretan, eta zenbat eta zarata gehiago eragin, orduan eta hobeto da haientzat, hori bilatzen dutelako", nabarmendu du.

PP eta Ciudadanosekin zer?

Alderdi popularrarentzat "oso inportanteak" dira hauteskunde hauek, Galdosek dioenez, Madriler begira, gehienbat. "Alde batetik, estrategia erradikal bat daukate EAEn, eta beste estrategia bat, aldiz, Galizian. Nuñez Feijoo moderatuagoa da, ez du Ciudadanosekin batu gura izan.

Beraz, Galizian emaitza onak eskuratzea eta hemen Iturgaitzek jipoia hartzea arazo handia izango da Casadorentzat, bera izan delako estrategia erradikala martxan jarri duena. Hala, Espainiako alderdi popularrean aldaketa handiak eragin ditzakete domekako hauteskundeak".

Bergararrak dio ezkontza horrek ez duela fruiturik emango. "Alde batetik, oso hautagai makalak aurkeztu dituztelako eta, bestetik, EAJ delako PPren boto xurgatzailea, boto praktikoagoa dela erakusten duelako edo erakutsi nahi duelako, behintzat. Beraz, uste dut PPK eta Ciudadanosek asko sufrituko dutela hauteskunde hauetan".

"HAUTESKUNDE HAUEK EPIKA GUTXI DUTE, GOBERNUA MANTENDUKO DELA GARBI DAGOELAKO"



IÑAKI GALDOS
ANALISTA POLITIKOA

Kanpaina, ezohikoa

Ezohikoa izan da kanpaina eta halakoak izango dira hauteskundeak ere. "COVID-19ak asko mugatu du kanpaina. Baina, bestalde, apatia sumatzen dut eta hori ez da koronabirusagatik bakarrik, beste hainbat faktore ere badaude", dio Galdosek.

Garitanok "herritarren aldentzea" nabarmenduko luke. "Beste gauza batzuetan pentsatzen ari direlako momentu hauetan; osasun, ekonomia edo lan kontuak, esaterako. Ez dut uste jendeak kanpaina jarraitu duenik. Oso arraroa izan da, pasio gutxikoa. Ez da mitinik edota karabanarik egon, telebistako debate xume batzuk bakarrik", azpimarratu du.

Hauteskundeak orain egiteari buruz, berriz, erabat kontrakoak diren iritziak dituzte Galdosek eta Garitanok. Lehenari dago-kionez, hauteskundeak orain egitearen alde egon izan da hasieratik. "Beti esan izan dut, eta horri buruz artikulua bat ere idatzi nuen, gauza bat dela hauteskundeak deitzea eta beste bat hauteskundeak egitea. Uste dut normalagoa dela orain egitea,

udazkenean baino. Esango nuke asmatu egin dutela horretan. Oposizioa alferrikako gerra batean sartu zen, nahiko normala delako orain egitea, parlamentua ere deseginda dagoelako eta momentua delako horretarako. Izugarritzko aurreikuspen apokaliptikoak egin zituen oposiziozko zati batek eta sekulakoak esan zituzten lehendakariagatik. Hala ere, guztia normal joan da orain arte".

Kazetariak, ordea, uste du hauteskunde hauek "une txarrean" datozela. "Ez da oso arduratsua izan data mantentzea nahi eta nahi ez, pandemiaren erdian, gaixoak daudenean eta jendea hiltzen ari denean. Uste

"PARLAMENTUAK GEHIENGO EZKERTIAR ETA SOBERANISTARI ERANTZUN BEHARKO LIOKE"



MARTIN GARITANO
KAZETARIA

dut urrira arte aise eutsi ziezaiokeela Eusko Jaurlaritzak, eta ordura arte lanean jarraitu. Bestalde, oso arraroa egiten zait gainontzeko alderdiek esatea gobernuari eusteko eta EAJ tematzea hauteskundeak lehenbailehen egitearekin. Horrek herritarrekiko errespetu falta adierazten du".

Abstentzioaren gorakadaz

Galdosen arabera, hauteskunde hauek ez dira "oso motibagarriak" izango askorentzat. "Gobernu aldaketa baterako aukerarik ez dagoenean, jende askok bozkatzeari uzten dio. EAJren inguruko herritar askok pentsatuko dute dena eginda dagoela eta oposiziozko askok ere pentsatuko dute ez dagoela zereginik. Gauzak asko aldatzen dira gobernu aldaketa bat jokoan dagoenean".

Halaber, abstentzioak gora egingo duela garbi dauka Garitanok. "Ez daude baldintza normalizatuak, eta emaitzak ere ez dira halakoak izango. Gakoa da zenbat herritar mugituko diren baldintza horietan bozkatzera, jendeak beldurra daukalako, eta normala delako nahi ez izatea".

**merezi
duzun
herria**



**MADDALEN
IRIARTE
OKINENA**

ehbildu

**egiteko
prest.**

maddalen
ZURE LEHENDAKARIA



Eneko Andueza, Gipuzkoako PSEren burua. XABI GOROSTIDI

Andueza: "Enplegua sortzea da orain gure erronka nagusia"

Sozialistek ekitaldia egin zuten ostegunean Arrasaten, eta Anduezak, batez ere, ekonomia izan zuen berbagai

Uxue Igarza Loiola ARRASATE

Eneko Andueza Gipuzkoako Sozialisten buruak bailarako zinegotzien babesa izan zuen ostegun eguerdiko kanpaina agerraldian, eta "orain arte egingako lanari" eman zion balioa. Alor ekonomikoa eta hurrengo

agintaldirako erronkak izan ziren ekitaldiko gai nagusiak.

Kooperatiben Legea aurrera ateratzeko "sozialistek egindako lana" azpimarratzen hasi zuen Anduezak berbaldia: "Lege hori izugarri garrantzitsua da guretzat, batez ere, langileen alde

egiten dugun apustuagatik. Kooperatibek sekulako pisua dute euskal industrian, eta, zer esanik ez, Gipuzkoan".

Hurrengo legealdira begira ere jarri zen PSEko alderdikidea, eta, adierazi zuenez, "enplegua indartzea" izango da datorren krisiari aurre egiteko "konponbide eraginkorrena. Enpleguaren aldeko apustua egin behar dugu, eta horretarako plangintza berezi bat egin nahi dugu". Horri lotuta, Arrasate "eskualde berezia" dela esan zuen, eta halakoak babestea, enplegua sustatzea eta ikerketa eta garapena indartzea "ezinbestekoa" izango dela. "Hori izango da erronka nagusia, inor atzean ez uzteko", gaineratu zuen.

Botoa emateko deia

Domekan "botoa ematearen garrantzia" ere aldarrikatu zuen Anduezak; haren hitzetan, "etorkizuna jokoan dagoelako".

"Askio dago jokoan. Nagikeria ezin da aitzakia izan, eta astelehenean kezaka aritzeak ez du balio; beraz, domekan botoa ematea oso garrantzitsua da", gehitu zuen sozialistak.

Gorrotxategi: "Orain artekoa errotik aldatu behar dugu"

Zapato eguerdian, Arrasaten egin zuen Elkarrekin Podemos-IUk agerraldia

U. I. ARRASATE

Elkarrekin Podemos-IUk kanpainako ekitaldia egin zuen zapatuan Arrasaten. Bertan, Miren Gorrotxategi lehendakargia eta Rafa Mayoral Madrillgo Kongresuko diputatua izan ziren, besteak beste.

Gorrotxategiren arabera, alaketak behar dira, eta alderdiak "helburu argia" duela adierazi zuen: "Euskadin beharrezkoa da ezkerreko gobernu bat osatzea, eta, pandemia egoera honetan, ideia hori indartu egin da".

Ezkerreko gobernu lortzeko, ordea, nahitaezkoztat jo zuen alderdi sozialistari eta EH Bilduri begiratzea; adierazi zuenez, haien programetan "zintzo" jasotzen baitira ezkerreko politikan oinarritutako "neurriak eta errezetak". "Bi aukera daude: orain artekoarekin jarraitu edo ezkerreko hiruko gobernu



Miren Gorrotxategi. IMANOL SORIANO

osatu", esan zuen Gorrotxategik. Dena den, gobernu eratzekoan "beste ardatz batzuei" begiratzen dietela ere esan zuen lehendakargia, eta zaintza "erdigunean" jarriko dutela agindu zuen, "arlotan horretako prekarietatea behingoz amaitzeko".

- Teilatukoak solariuarekin
- Beheko solairuak txokoarekin
- Terrazak

lorentxoko

P23 · bizigune berria

Gimnasioa eskusiboak egoiliarrentzat

2 eta 3 logela

2 logela 146.000 €-tik aurrera

BERGARA · www.lorentxoko.com

Bizitzaren mamia

Merkatuaren joerei jarraituz, **GRUPO EIBAR** entzun egin du, eta azken edizio honetan: **Lorentxoko P23k kalitate bikainari, pertsonalizatzeko aukerei eta terrazai eusten jarraitzen du, baina aurreko edizioetan baino etxebizitza estuagoak ditu metroetan eta prezioetan. Horrez gain, zure ongizaterako espazio komunak ere barne hartu ditu, hala nola egoiliarrentzako gimnasio eskusiboa, plazak eta haur-parkeak. Zatoz Bergarako gure bulegora! Eta ezagutu itzazu.**

grupo eibar
inmobiliario
www.grupoeibar.com

E: comercial@grupoeibar.com

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA:
Ernai, 1 · 20570 BERGARA.

943 31 66 11
650 44 21 59

Otegi: "Alderdia baina, EH Bilduk aberria lehenesten du"

Otegi agerraldia egin zuen asteazkenean, Bergaran, Nerea Kortajarena eta Lore Martinez hautagaiekin

U.I. BERGARA

Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile nagusiak hauteskunde sasoian jeltzaleen ahotan egon den *EAJ marka* izan zuen hizpide Olaso dorrean, eta azken legealdian Euzko Alderdi Jeltzaleak izan dituen jokaerak salatu zituen. Azaldu zuenez, EAJk ez du "batasunaren aldeko apusturik" egin, eta horren adibidez jarri zuen Andoaingo eta Pasaiaiko alkatetzak PSE-ri eman izana, EH Bildu bigarren indarra izanda: "Erabakitzeke eskubidea urratzen digutenei

ematen dizkiete alkatetzak, baina *EH Bilduren marka* bestelakoa da. Guk, Gasteizen bigarren indarra izanda, alkatetza EAJri eman genion, eta ez PPri. Guk Guardian, Trebiñun, Bastidan, EAJri eman diogu alkatetza".

Horrela, beraz, EH Bilduko koordinatzaile nagusiak bi markak "bereizteko" dei egin zien abertzaleei, eta haien botoa eskatu zuen: "Argi geratu da guk alderdia baina gehiago aberria lehenesten dugula, baina, ikusi dugunez, EAJk aberria baina alderdia lehenesten du".

EH Bilduk, agerraldi ugari

Kanpainaren baitan, Debagoienan agerraldi gehien egin dituztenak izan dira EH Bilduko hautagaiak: Oñatin, Elgetan, Bergaran eta Eskoriatzan izan dira, hain zuzen ere.

COVID-19ak ekarritako krisiaz, zaintzaren garrantziaz eta berritzea behar duten formulez jardun dute astean zehar alderdikideek, besteak beste, eta "aldaketa beharra" dagoela azpimarratu dute. Elgetan, Rebekeka Ubera eta Lore Martinez hautagaiak EAEko hainbat sektore garrantzitsu "gainbeheran" daudela adierazi zuten: "Industrial, ikerketan, hezkuntzan... Pisua galtzen ari gara azken urteetan". Oñatin, bestetik, Arkaitz Rodriguezek eta Izaro Elorza alkateak ere aldaketa beharra izan zuten berbal-

diaren oinarri, eta krisiari aurre egiteko gakoetako bat erreforman dagoela esan zuten: "Krisia kapitalak ordain dezala: enpresa handiek, oligopolio elektrikoek, banketxeek... Horretarako erreskatatu genituen eta!".

Bestetik, kanpaina amaierako ekitaldia Bergaran izango da gaur, hilak 10; herriko sei musikaririk eta lau bertsolaririk Ira-la girotuko dute. Musikaz gain, bertsoak ere izango dira eta nahi duen orok abesteko aukera izango duela aurreratu dute.



Arnaldo Otegi eta Nerea Kortajarena, Olaso dorrean. GOIENA

Egibar: "Guztion artean Euskadi zutik jarriko dugu berriro ere"

Martitzen arratsaldean, hauteskunde ekitaldia egin zuen EAJk, Oñatiko plazako pilotaleku alboan

U.I. OÑATI

Joseba Egibar, Aitor Urrutia, Maria Ubarretxena eta Xabier Otxoa hautagaiak izan ziren ekitaldian berba egin zutenak, eta bailarako ordezkarien lana goraiatu zuten.

Egibar izan zen lehenengoa, eta, kanpainako ildoari jarraituz, elkarlanaren ideia azpimarratu zuen: "Alderdi bezala, talde-lanean gara indartsu". Jarraian, Otxoak gazteei begira "zenbait konpromiso" hartuko dituztela agindu zuen "txoke plan batean oinarrituta: "Gazteen enplegua

sustatu eta emantzipatzen laguntzeko lan egingo dugu". Bestetik, seme-alabak dituzten familiei laguntza eskainiko diotela ere esan zuen, eta baita kontziliazio-programak bultzatuko dituztela ere.

Ondoren, Arrasateko alkate Maria Ubarretxena hartu zuen hitza, eta keinu egin zien pandemiak kaltetutako pertsonari. Ubarretxena krisiak ekarriko dituen aldaketek aritu zen, eta alderdiak "Euskadi berreraikitzeke hautua" egingo duela adierazi zuen: "Gure etxea berrera-



Joseba Egibar eta Maria Ubarretxena, Oñatiko agerraldian. GOIENA

kiko dugu inor kanpoan utzi gabe, eta, horretarako, Euskadik gobernu sendoa behar du".

Azkenik, Urrutiak azaldu zuen printzipioen eskutik joatea "oso garrantzitsua" dela, eta "burujabetza eta kohesioaren beharra"

azpimarratu zituen, "herriak batera aurrera egin dezan". Bestetik, COVID-19aren pandemia gainditu ahal izateko "pertsonengan inbertitu" behar dela zioen Urrutia legebiltzarkideak, eta Debagoiena beste bailara

batzuekin batera arituta "abangoardia" izan daitekeela esanez amaitu zuen berbaldia.

EH Bilduri kritika

Joseba Egibarrek EH Bilduri "proposamen falta" leporatu zion: "Konpromisoa hartzen dutela diote, baina proposamenik ez dute egin".

Horrez gain, azken hilabeteetan "oposizio zikina" egin dutela esan zuen, eta subiranistek alderdi sozialistaren aldeko hautua egin dutela: "Sozialisten beharra dute espetze politika birdefinitzeko, hori baita haien lehentasuna". Bestetik, Egibarren ustez, EH Bilduk ez du Urkulluren taldea lagundu agintaldian: "Ideologia desberdina izan arren, lehendakariarekin egon behar-ko lirake etorkizuna eraikitzeke, eta ez dute hala egin".

GOBERNATZEKO PREST

MIREN GORROTXATEGI
Lehendakari hautagaia
<http://mirengorrotxategi.eus>



Udal langile bat, eguaztanean, Seminarixoan domekarako prestaketa lanetan. XABI URZELAI

Hautesleku gehiago eta neurri bereziak, domekan bozkatu ahal izateko

50.043 debagoiendar daude botoa ematera deituta, 23 hauteslekutan. Botoa etxetik gutun-azalean sartuta eramatea gomendatu dute, eta maskara derrigorrezkoa izango da. 'Goiena.eus'-en eta Goiena telebistan jarraitu ahal izango dira hauteskundeak

Maialen Santos ARRASATE

Domekan egingo dituzte Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, eta, INE estatistikarako erakundeak aditzera emandako datuen arabera, guztira 50.043 debagoiendar daude botoa ematera deituta.

Guztira, 23 hautesleku

Koronabirusaren krisiaren eraginez, ohi baino hautesleku gehiago jarriko dituzte, jendeak pilatu barik botoa eman dezan. Zehazki, 23 hautesleku jarriko dituzte bailaran; eta horietan, guztira, 71 mahai.

Arrasaten, Ferixalekuaren ordezkari, Kulturategiaren ordezkaria; klaustra eta areto nagusia erabiliko dituzte. Horretaz gain, Etxaluzen, Erguinen, Jokin Zaitegin, Institutuan eta Toki Argin ere jarriko dituzte hauteskunde mahaiak.

Bergaran, bestalde, Udal Pilotalekuan eta Seminarixoan eman ahal izango da botoa. Horrez gain, Domingo Martinez de Irala ikastetxearen jangela beharrezkoan, eskolako gimnasioa atonduko dute domekarako. Martokoari dagokionez, goiko zein beheko eskolan jarriko dituzte mahaiak. Ibarra kalean ohikoa den moduan, eliza ondoko lokalean bozkatu dute batzuek. Eta, azkenik, Osintxuko liburutegia ere hauteslekua izango da.

Oñatiren kasuan, Zubikoa kiroldegiko kantxa urdinean ez ezik, Txiki Txoko eskolan, Olakua dorrean eta Elkar Hezi ikastetxeko Santa Marinako eraikinean jarriko dute botoa emateko tokia.

EAE-KO HAUTESLEEN %7,3K AUKERATU DU POSTA BIDEZKO BOTOA EMATEA DOMEKARA BEGIRA

Kurtzebarri eskolan beharrezkoan, Ibarra kiroldegian jarriko dute aretxabaletarrentzako tokia.

Eskoriatzan, kultura etxea izaten da botoa emateko hauteslekua, baina Joseba Iñurrategi pilotalekura lekualdatzea erabaki dute udal ordezkariak.

Antzuolan, Olarango bi gela jarriko dituzte domekarako.

Elgetako hauteslekua, bestetik, udaletxea izango da, ohi moduan.

Aramaion eta Leintz Gatzagan, azkenik, eskolan bozkatu ahal izango da.

Posta bidezko botoak, gora

Estefania Beltran de Heredia Segurtasunerako sailburuak adierazi duenez, koronabirusaren krisiaren eraginez posta

bidezko botoak gora egin du, nabarmen. Hain zuzen, hautesleek %7,3k bozkatu du era horretan EAEn; 1.793.263 dira hauteskundeetara deitutako herritarrek eta 125.255ek hautatu dute posta bidez bozkatzeko. Eugenio Artetxe Hauteskunde Prozesuen zuzendariak azaldu duenez, aurten 2,4 boto izango dira 2016ko posta bidezko boto bakoitzeko.

Gurutze Gorriak eta DYAK baliabideak jarri dituzte, desgaitasun fisikoak dituzten edo gaixorik dauden herritarrek bozkatzeko aukera izan dezaten; ambulanzian gerturatuko dituzte hauteslekuetara. Zerbitzua eskatzeko 943 46 46 22 edo 945 22 22 22 telefono zenbakietara deitu behar da, eta gaur izango da horretarako azken eguna.

Bozkatzeko, neurri bereziak

Nekane Murga eta Estefania Beltran de Heredia sailburuek adierazi dute hauteskundeei begira zenbait neurri hartu beharko direla. Botoa emateko orduan derrigorrezkoa izango da maskararen erabilera, eta jendearen artean segurtasuneko distantzia mantendu beharko da. Gainera, Beltran de Herediak etxetik botoa gutun-azalean sartuta eramatea gomendatu du. Horretaz gain, maskara ahaztu zaien hautesleentzako musuko kirurgikoak jarriko dituztela eskuragarri azaldu du.

Hauteskunde mahaietan egongo direnei segurtasunerako kit bereziak banatuko dizkiete; besteak beste, maskara, gela eta eskularruak emango dizkiete. Euren arteko segurtasun-tartea ere zaindiko da, eta baita botoa ematera doazen herritarrena ere; horretarako, markak egongo dira lurrean. Ilarak sortzen badira, 65 urtetik gorakoak edo haurdun dauden emakumeak lehenetsiko direla jakinarazi dute sailburuek. Desinfekzio lanak etengabe egingo dituzte hauteslekuetan.

Hauteskunde mahaietan egoten diren alderdi politikoetako ordezkariak, ahaldunak, ezberdin arituko dira aurten. Aretxa-

BOTOEN ZENBAKETA EGITEKO OHI BAINO 30 MINUTU GEHIAGO BEHARKO DITUZTELA KALKULATU DUTE

baletan, esaterako, ez dira mahaietan eserita egongo, baina botoen kontaktetan parte hartuko dute. Horren harira, Segurtasun Sailetik adierazi dute botoen kontakteta nola emango den jakiteko simulazioa egin dutela, eta kalkulatzeko dutela ohi baino ordu erdi inguru gehiago beharko dutela mahaietako ordezkariak botoak zenbatzeko; besteak beste, eskularruak erabili beharko dituztelako. Hortaz, emaitzak ere pixka bat beranduago jakinaraziko dituzte.

Hautagai debagoiendarrak

Hainbat dira Gipuzkoako eta Arabako zerrendetan ageri diren hautagai debagoiendarrak. Hauek dira legebiltzarkide izateko aukera izango luketenak, EITB Focus inkestaren arabera: EAJ alderdian, Arabako zerrendan laugarren dago Luis Javier Telleria antzuolarra eta Gipuzkoako zerrendan Aitor Urrutia eskoriatzarra eta Elena Lete bergararra bederatzigarren eta hamabigarren daude zerrendan, hurrenez hurren. EH Bildutik, Gipuzkoako zerrendan daude Lore Martinez aretxabaletarra –laugarren–, Ander Rodriguez arrasatearra –bosgarren– eta Rebeca Ubera elgetarra –bederatzigarren–. Elkarrekin Podemosen, bestalde, Eva Abuin arrasatearra dago hirugarren, Gipuzkoako zerrendan. PSE-EEko zerrendetan, Alberto Alonso zinegotzi bergararra eta Mirren Arrate Gallastegi zinegotzi antzuolarra daude; Arabako eta Gipuzkoako zerrendetan, hurrenez hurren. Biak ala biak laugarren postuan daude, gainera.

Goienan, jarraipena une oro

Uztailaren 12ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei egun osoan zehar egingo zaie jarraipena *Goiena.eus* webgunearen bitartez. Hauteslekuak itxi ostean, 20:00etatik aurrera, une oro datu ofizialen eta ez ofizialen berri emango dute, grafikoez lagunduta. Gainera, 19:45tik aurrera, hauteskundeen gaineko saio berezia eskainiko dute Goiena telebistan. Hurrengo egunean, astelehenean, emaitzak, balorazioak eta analisiak eskainiko dituzte Goiena telebistako albistegian eta *Hemen Debagoiena* saioan, gonbidatuekin. GOIENA aldizkarian ere egongo da informazio hori eskuragarri; datorren egubakoitzean.

Eskerrik asko!

MIKEL ALBISU IRIARTE ETA LARRAITZ IPARRAGIRRE GUENETXEA

MARIXOL ASKATU EKIMENAREN IZENEAN ESKORATZA

Marixol Askatu ekimenaren izenean, joan den ostiralean, uztailaren 3an, Donostiako Bulebarrean antolatutako ekitaldira agertu zinetenei eta, baita ere, agertzeko ezintasuna izan eta ekimenarekiko elkartasuna agertu zeniguten guztiei, eskerrak eman nahi dizkizuegu.

Ekitaldi xume bezain ederra izan zen, eta denok atera ginen indarturik. Bertan sentitu genuen maitasuna, elkartasuna eta erabakitasuna Marixoli helaraziko diogu, giltzapean dutenek jarri dizkiguten oztopen gainetik.

Datorren asteazken eta ostegunean ere, uztailaren 8an eta 9an, Madrilgo Auzitegi Nazional espainiarrean helaraziko diogu bera Euskal Herriko kaleetan aske ikusteko irrikaz dagoen jende guztiaren indarra.

Konponbidean aurrera egiteko aske eta gure artean behar dugu Marixol. Eta bera bezala Frantziako eta Espainiako kartzeletan dauzkaten gainontzeko euskal preso politiko guztiak.

Marixol askatu! Preso guztiak askatu! Konponbidea orain!

Oñati eta plastiko kutsatzailea

JOSE MARI AGIRRE URZELAI OÑATI

Pena da ikustea nola dagoen Oñati hauteskunde-kanpaina dagoen bakoitzean. Ez dut ulertzen nola Udalak onartu duen plastiko kutsagarritz egindako pankarta egotea herrian. Plastikozko pankartok kaleetan daude, biribilguneetan eta barandetan. Kale Zaharra, Atzeko kalea... ikusi bestetik ez dago, kalearen alde batetik besterako pankartekin. Inork kentzen ez duen plastiko kutsagarri hori gure landetaraino eta ibaietaraino heldu ohi da.

Debagoieneko hainbat herritan aurrera egin dute eta

Oñatin, ez. Dirudienez, EH Bildu ez dago Prest plastiko horiek kentzeko; bada, kendu ditzala oñatiar guztien Udalak.

Berariazko hezkuntza laguntza-premiak dituzten ikasleak eta murrizketak

LARRAITZ ARANDO ILARDUIA ETA ION ALBIZU GONZALEZ

ARETXABALETA

COVID-19aren ondoren murrizketa proposamen ezberdinen berri izaten ari gara. Jakin badakigu dirua berrantolatu behar dela; nondik kendu eta non jarri da kontua. Hezkuntzatik diru hori kentzen denean eta zuzenean berariazko hezkuntza-premiak dituzten haurrengan eragina duten baliabideetan direnean, latza da kontua!

Autismoa, garun paralisia, dislexia, Downen sindromea, adimen urritasuna, sozializatzeko zailtasunak... dituzten umeez ari gara, bai eta bizitzan hain oinarritzko diren urteez.

Urtero bezala, HH-LHko ikastetxe bakoitzean dituzten haurrak kontuan hartuta giza baliabideen eskaria egiten da: profesionalen arteko elkarlanean burututako balorazio psikopedagogikoan oinarrituta. Ume bakoitzak eskola testuinguruan duen beharra baloratzen da bertan: garapen integrala eta beraien ikaste prozesua arrakastatsuak izan daitezen laguntzen. Horren arabera, EJk zentro bakoitzak behar dituen hezitzaile eta pedagogo terapeutikoen zenbatekoa ateratzen du.

Lehen aipatutako balorazio teknikoan bitartez, ondo baino hobeto justifikatuta daude hezkuntza bereziko haur bakoitzak dituen beharrak. Baina arlo honetan, EJk ez ditu aintzat hartu balorazio teknikoak, eta profesional gutxiago jarri dituzte zenbait ikastetxetan. Arabaren kasuan, adibidez, hezitzaileetan 9 jardunaldi erdi eta 5 jardunaldi oso PT kendu dituzte.

Egoera larriak biziko dituzte hainbat irakasle, hezitzaile eta ikaslek.

Dirua honetan jarri ez izanaren ondorioak ez dira hurrengo ikasturtean soilik ikusiko. Epe luzerako ondorioak ere badira. Guztiok parte izango garen jendarte nahi dugu? Zelako bizitzak edukiko dituzte gure umee haurtzaroan beharrak ase ez badituzte? Harremantzeko tresnetan trebatzerik ez badute, nola eraikiko dute beraien etorkizuna? Zeintzuk dira etorkizunean konpondu beharko genituzkeen arazoak?

Diruak non jarri eta non kendu da, beraz, kontua. Koldarra eta bihozgabeba da horrelako zerbitzuetan murrizketak egitea. Guk hemendik ez dugu kendu nahi, egon badago nondik kendu. Guk gure haurrak babestu eta bizitza erdigunean jarriko duen eredu bat nahi dugu.

Xabi Mondragoni erantzuna (Udalaitz Bizirik taldea)

AINTZANE OIARBIDE

BERGARA

Joan den astean, Xabi, gutuna bidali zenidan Udalaitz Bizirik taldearen izenean.

Batetik, esan, ikusten dituzun etsai eta deabrukeria guztien erantzule bezala ni pertsonalki jartzea deskalifikazio hutsa iruditzen zaidala. Ez noa aipatzen dituzun proiektu guztiez hitz egitera, gehienak ez baitute zerikusirik nire jarduera politiko zuzenarekin, baina bai aipatzen dituzun esaldi pare bati erantzutera.

"Ongizatearen eta tolerantziaren defendatzaile bazara, Baskongaden gobernuko parte, ez infantilizatu herritarrak zure artikuluekin". Zure gutunean tolerantzia gutxi ikusten dut niri lezioak ematen hasteko, eta Euskadin gaur egun dugun ongizate maila nabarmena dela mundu guztiak daki, batzuek 40 urtetan herria eraiki egin dugulako; beste batzuek, ordea, *zenbat eta okerrago, hobeto* leloari jarraitu diote. Ongizate maila eta lortu ditugun eskumen eta zerbitzuak hobetu daitezkeela? Bai, horixe, eta horretan jarraituko dugu

lanean, orain arte bezala. Bestalde, herritarrak infantilak diren konklusioa zeuk atera duzu, nik oso ondo dakit herritarrek pentsatzen eta egiten ederki dakitela inoren tutelaren beharrik gabe. Nire artikulua ez dituzu gogoko, hori zilegi da, baina tolerantzia gutxi erakusten duzu nire iritziak emateari.

Zure beste esaldi bati erantzungo diot: "Arazo handiei irteera orekatuak eta naturarekiko errespetagarriak emateko, balioak eta printzipioak behar dira, zuk ez dituzunak". Nortzuk zarete zu eta zure taldekideak horrelako deskalifikazioa egiteko? Ezagutzen al nauzue? Ba al duzue nire bizitzaren berri? Beharbada, zuetako askok baino gehiago bizi izan dut naturarekiko errespetua eta zuek baino ezagutza gehiago ere izan dezaket nire aitak ondo erakutsitako naturarekiko maitasun hezkuntzari esker. Ezjakintasuna ez da argumenturik onena. Pertsonak deskalifikatzea argumenturik ez duenaren defentsa kaxkarra izaten da, Xabi.

PNV: eskuin pobrea?

IGOR TOME KORKOSTEGI

OÑATIKO EH BILDUREN IZENEAN OÑATI

Hauteskunde kanpainak politikaren alde zikinena azaleratzen dute sarritan. Proiektu desberdinak konfrontatu eta eztabaidatu beharrean, dena kakazteko ariketa bihurtzen dute batzuek. Joko horretan denbora galtzea ekidin izan dugun arren, Jose Mari Agirre Urzelai PNVko kideak –datu hori ezkutatu arren– aurreko astean idatzitako gutuna ikusita, ez isiltzea erabaki dugu.

Idatzi horren estrategia argia da: EH Bildu alderdi konbentzional bat dela ulertaraztea. Alderdiekiko desilusioa gorantz doan garaiotan, kezka bizi duzue gure proiektuak jendartean piztu duen ilusioa. Boluntario askoren lanari esker ateratzen

dugu aurrera EH Bilduren jarduna, zintzotasunez eta umiltasunez, herri honetan gauzak beste modu batean egin daitezkeela sinesten dugulako. Gero eta gehiago dira egitasmo honekin identifikatuta sentitzen diren pertsonak, eta inpotentzia sortzen dizue horrek.

Ezker "aberatsarena" ere eskuinaren ohiko mezua da. Zein da, ba, ezkertiar izateko gehieneko soldata? Ezkertiarra izatea borondatezko hautu bat da, hitzez baino, ekintzez erakusten dena. Gutxi batzuen pribilegioak mantentzearen alde baino, guztion bizitza duinaren alde lan egitean datza, aberastasunaren banaketa justu baten alde egitean, garapen eredu jasagarri bat lehenestean, etab. Guztiok egin dezakegu lan norabide horretan, eskubide berriak borrokatzen, eta ditugun pribilegioei uko egiten. Inor ez dago *a priori* ezkertiar izateko desgaituta.

Ezkerreko hautu hori egin dugunok osatzen dugu EH Bildu. Zuen korporazioaren lehentasunak, aldiz, beste batzuk direla erakutsi duzue: Euskaltel eta Kutxabank bezalako enpresa publikoak pribatizatu, AHTn dirua xahutu, oinarritzko zerbitzuak murriztu eta pribatizatu, *De Miguel* bezalako korrupzio kasuak... PNVk gutxi batzuen pribilegioak lehenetsi ditu, disimulurik gabe, eta orain ezkertiar izatea hipokrita dela sinetsarazi nahi diguzue?

Herri honek hartu duen ezkerreanrako joerak larritzen zaituzte. Agerian gelditzen ari da zuen politika klientelista, eta ez duzue etorkizunera begirako proiekturik. Dena den, ez gaituzue eztabaida antzuetan katramilatuko, gure jarraibidea desberdina delako: hausnarketa kolektiborako espazioak sortzea eta, sinesten duguna gauzatu bitartez, herria hobera eraldatzea. Ezkerra, izatekotan, eraldaketa sortzeko duen ahalmenean da aberatsa. Eskuinak, aldiz, esanahi bakarrean ulertzen du hitz bera. Horra hor zuen pobreziaaren erroa.



ZABALIK

OSKAR ELIZBURU

Euskahalduntzeko garaia

Agur oharra idatzi zuten Athleticeko San Josek eta Beñatek, taldea denboraldi bukaeran utziko dutelako eta zaleei eskerrak zelaian ezin izango dizkietelako eman. Agur sinplea, itxuraz inolako polemikarik gabekoa, eskerrak emateko eta taldea aupatzeko... hortaz, nola sortu zen sare sozialetan halako polemika? Zergatik zale batzuk asaldatu? Euskaraz idatzi zutelako.

Horrela gabilta, oraindik, gure Euskal Herrian, *euskararen herrian* jendea haserretu egiten da euskara lehenestea erabakitzen dutenekin. Lotsa sentitzeko moduko iritzi eta irainak izan dira, gainera.

Dena dela, esan behar da beste zale askok eta askok zoriondu egin dituztela jokolariok, egindako lanagatik eta agiria euskaraz ateratzeagatik ere bai.

Horrekin batera, euskaraz bizitzeko eskubidea

BATZUEK EUSKARA ZIKINTZEKO DARABILTEN AHALEGIN HORI EZ DA BERRIA GURE ARTEAN

babesteko agerraldia egin zen Bilbon, egoera salatzeko.

Batzuek euskara zikintzeko darabilten ahalegin hori ez da berria gure artean; are gutxiago futbol munduan, non

espainolarekiko menpekotasuna agerikoa den. Denok ulertu beharraren izenean, nork bere hizkuntzan iritziak emateko aukerarik ez dute eman nahi; ez, behintzat, euskaraz edo katalanez badira. Ez du ondorio berdinek adierazpenok ingelesez emateak, adibidez; orduan ez dago arazorik: itzultzen da, denok ulertzen dugu eta kito.

Gure hizkuntza menpekota da, erdaldun elebakarrek – eta euskaldunok ere askotan – erdararen menpeko jartzen dute; eta are gehiago, edukazio txarrekoa dela sinestarazi digute, gure espresatzeko eskubidea murriztu digute eta guk geuk ere murrizteko joera dugu, askotan, kontziente izan gabe.

Ahalduntzeko garaia da, euskahalduntzekoa; eta gure menpekotasun kontzientzia-sentipen oker horri aurre egiteko aukera zehatza izango dugu laster, Euskaraldian. Ea denok gogoz parte hartzen dugun!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Askatasuna

AITZOL ATUTXA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Eskubide bat izan daiteke, desioa bat beste askorentzat, zer den ere ez dakienik egongo da. Batzuetan ukatu egiten digute, beste askotan guk mugatzen dugu, baina beti izan ohi da korapilatsua askatasunaren sokarekin dantzan ibiltzea.

Askatasuna baldin badaukagu ez dugu helmugarik, baina helmugarik ez baldin badaukagu ez dugu askatasunik. 2020. urteak gauzak hankaz gora jarri ditu, gure askatasuna murriztu du, gure helmuga mugitu egin du kasu askotan. Ez zuen inork

espero, ez zuen inork desio, baina zer pentsatua eragin du guregan. Itxialdia kalterako izango zen kasu gehienetan; nik, ordea, inbertsio moduan ikusten dut. Ziur nago gure etorkizuna errentagarritasun gehiagorekin zuketuko dugula, aukerak hobeto probestuko ditugula.

Maite ditugun pertsonengandik urruti bidali gaituzte, metroak jarri dizkigute tarteko eta guk, ordea, urrutira joan ahal izateko ezinbestean hurbil behar ditugu maite ditugunak. Honela, bizitzearen eta bizirautearen artean dagoen pauso txikia agerian geratu da izurrite honen ondorioz, bizirauteko ezinbestekoak

sentitzen genituen egunerokotasunak alde batera laga eta ohartu gara gure bizitzek aurrera egin dutela. Bestalde, orain arte gure bizitzan existitzen ez ziren gauzek geratzeko etorri direla azaleratu dute behin eta berriz.

Badakit, oraindik ez dizuet esan askatasuna zer den, ezta nola lortzen den ere. Askatasunaren edabe magikoa nik izango banu bezalaxe hementxe zaudete testuaren bukaeraraino zintzo demonio. Lasai, nik ere ez dakit, bakoitzak bere sekretua izango du, baina aholku bat! Egin beti sentitzen duzuna; hots, sentitu beti egiten duzuna.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza,
Maite Igartua.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

BERBAGAI

"Marixolek eta beste presoek etxean beharko lukete"

LARRAITZ IPARRAGIRRE MARIXOL IPARRAGIRREREN AHIZPA

Eneko Azkarate Laspiur ESKORIATZA

Eguaztenean eta eguean epaitu dute Madrilen Marixol Iparragirre (Eskoriatza, Gipuzkoa, 1961). Lehenengoz, Espainian. ETako kide izatearren 15 urte egin zituen kartzelan Frantzian. Zigorra beteta, aske utzi beharrean Espainiara eroan zuten, Madrilgo Gobernuaren Euroagindua baliatuta. Kartzelan dago harrezkero.

1995eko auzi bat dela-eta epaiketa hasi da oraingo astean Marixol Iparragirre ahizparen aurka. Zer da leporatzen diotena?

Hori ez da nik erantzuteko galdera. Luciano Cortizoren [Espainiako armadaren komandantea hiltzea egotzen dio fiskaltzak auzi horretan] hilketarekin lotutako paper batzuetan *Anboto* [poliziaren arabera, Marixol Iparragirreraren ezizena] hitza agertzen ei zen eta hari horri tiraka epaitzen dute orain.

Nola joan da epaiketa?

Lehen saioan, sei senideri utzi digute epaitegi barrura



Larraitz Iparragirre, Madrilen, Auzitegi Nazionalaren aurrean, eguean. L. IPARRAGIRRE

sartzen. Beste hiru senide kanpoan geratu dira. Akusazio Partikularra daroan AVT elkarteko lau kide ere sartu dira. Kristalez itxita aretoko albo batean dagoen gelatxo batean sartuta egon da

ahizpa eta ez dugu bera ikusteko ia aukerarik izan. Lekuko guztiek bideokonferentzia bidez deklaratu dute. Defentsako abokatuaren galderei erantzun die soilik. ETako

kide izan dela onartu du. Ekintzarekin zerikusirik duenik ukatu du. Agustin Almaraz eta Ibon Etxezarreta presoek Marixol ez dutela ezagutzen eta ez dakitela *Anboto* nor den testifikatu dute. Ordu eta erdi iraun du saioak.

Non dago une honetan kartzelan eta non egon da bederatzi hilabete hauetan?

Lehenbizi, Soto del Realen; ostean, Brieven, Avilan; eta orain, berriro Soto del Realen. **Frantzian kartzela zigorra bete ostean, Espainiara kartzelara eroan eta epaitzea Espainiako "Estatu aparatuen mendekua" dela diozue. Zergatik?**

Une honetan epaitzen ari diren kausagatik, 1995eko kausagatik, Euroagindua 2014an eskatu zuten. Euroagindua urgentziazko prozedura izan ohi denean. Euskal Preso Politikoen Kolektiboko bozeramaile denean eta bakegintzan aritzen diren nazioarteko hainbat aditurekin ari denean harremanetan kartzelan. **Diozue Marixolek jarri ziola ahotsa ETAk desegiteko erabakia iragartzen zuen agiriari, eta "ezinbesteko ekarpena" egin duela "Euskal Herria bake bidean" jartzeko.** Ikusi besterik ez dago Josu Urrutikoetxea eta Marixol

Iparragirre ze egoera ankerrean dauden une honetan. Biak nabarmendu ziren bakearen alde eta ETaren desegitearen alde lan egitearren. Kasualitatea? Uste dugu ezetz.

Ahizpa aske uztea eskatzen duzue eta diozue munduko hainbat pertsona ospetsuk eskatu duela Iparragirre aske uztea. Nortzuk dira horiek?

Oraindik ezin dugu izenik aipatu. Herrialde ezberdinetakoak dira, guztiak emakumeak.

"Konponbide garaia" dela ere badiozue. Zein izan daiteke konponbidea?

Lehenbizi, mendeku gose hori baztertu eta legea betetzen hastea. Presoak hurbildu... Nire ustez, Marixolek eta gainerako preso guztiek etxean beharko lukete, egin dituzten urrats guztiak kontuan izanda. Ordaindu dute dagokiena. Marixolek 40 urte egin ditu etxetik kanpo; 15 kartzela ezagutu ditu...

Espainiako Gobernuan PSOE eta Podemos daudelarik, gertuago ikusten duzue irtenbidea?

Pentsa genezake baietz, baina ez PSOE eta Podemos Gobernuan egote hutsagatik, baizik eta, gutxiengoan daudenez, beste batzuekin adostasunetara heltzeko premia dutelako.

ITURRI ONETIK

Yon Gonzalez, 'Érase una vez... Euskadi' filmean

1980eko hamarkadako Euskal Herriko gizartean girotutako *Érase una vez... Euskadi* filma grabatzen hasiko dira aurki. Sorailuzen grabatzekoa zen, baina ekoizleak -LaCanica madrildarra- esan du hori ez dela ziurra. Litekeena da ondoko herrietan filmatzea. Manu Gomez arrasatearrak zuzenduko du eta protagonistetako bat Yon Gonzalez bergararra izango da. "1980ko hamarkadako Euskadin, integrazioaren alde elkarbizitzaren ikasi zutenei buruzkoa da", esan du zuzendariak *Plaentxia.eus*-en.

ALBISTE IZAN ZEN

2015-07-01

Laguntza Ziburuko ikastolari

Goiena Taldeak, Iban Arantxabal zuzendari nagusiaren eskutik, 3.900 euro eman zizkion Ziburuko Kaskarotenea ikastolako zuzendari Laida Muxikari. Goiena Klubeko bazkideen ekarpenetik euro bana ikastolari laguntzeko bideratzea erabaki zuen Goienak. Debagoieneko beste hainbat erakunde ere eskertu zituen Muxikari jasotako babesarengatik. Ikastola berria egiteko bideratu zuen dirua Kaskaroteneak.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Voxen ekitaldia Oñatin hizpide izan da sarean

Eguaztenean Voxek Oñatin egindako ekitaldiak erreakzio ugari sortu ditu sare sozialetan, eta gaia *trending topic* izan da:

@ine_ugih: "Faxistak egon dien plazia garbi-garbi dau berriro. #FaxistakKanpora #AldeHemendik #Oñati."

@desobedituz: "Oñatiarra izatiaz harro! Eskerrik asko zuei. Gora Oñati antifaxista!".

@benatuugalde: "Sartu tuiterreko bilatzailean 'Oñati' eta ostean 'Oñate', mas recientes edo 'azkenak' atal horretan. Bertako txioek ez zaituzte harrituko. Gauzak argi, guk guria, ez dozkie eurek esango zer garen".

Emakume langabeak hartzeko laguntzak, gora

Enplegua sortzeko hiru laguntza lerro klasiko aktibatu ditu Gobernuak: enpresa berriak sortzeko, formatu nahi duten langabeek ikasteko eta herriko langabeak kontratatzeko; azken horretan %20 handitu dute laguntza, emakume langabeak kontratatuz gero

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Lanbideren 2020ko enplegua sustatzeko toki ekintzetarako programari itxaron gabe", herriko langabeei zuzendutako hiru laguntza lerrori jarraipena eman die Gobernuak. Laguntza hauek eskatzeko epea zabalik dago; BAZen egin behar dira, abenduaren 31ra arte. Zalantzarik izanez gero, jarri harremanetan Udaleko Enplegu Sailarekin: 943 25 20 70 telefonoan edo enplegu@arrasate.eus helbidean.

Langabezia tasa, gora

Konfinamendua hasi zenetik hona langabezia tasak nabarmen egin du gora. Martxotik ekainera 274 langabe gehiago daude herrian, eta langabezia tasa %11,26tik %13,88ra igo da. Datuak ikusita, Gobernutik adierazi dute irailean emango dituztela aditza enplegua sortzeko ekimen berri gehiago.

Emakumeen ratioa, behera

Martxan jarritako laguntzen artean, beritasun nagusi bat dago: herriko langabeak kontratatzekeo laguntzak %20 igo dituzte, emakume langabeak kontratatuz gero. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko okupazio arrakala leuntzeko asmoz hartu zuten erabakia, urte hasieran.



Emakume bat arrandegian lanean. GOIENA

2019ko abenduan %16ko arrakala zegoen emakumeen eta gizonezkoen okupazio tasan, baina COVID-19aren krisiak arrakala hori leundu du; abendutik ekainera %10 egin du behera arrakalaren ratioak. Langabeziak gora egin du nabarmen, baina gehiago eragin die gizonezkoek. "2008ko krisiak antzerako efektua sortu zuen. Krisiek gehiago eragiten diete sektore batzuei. Industrian eta eraikuntzan gizonezkoak dira gehiengoak, eta baliteke hor gehiago eragin izana", azaldu dute Enplegu Sailetik.

Laguntzak eta baldintzak

Enpresa berriak sortzeko laguntzak

- **2.268-4.536 euro** Sortzen den lehen lanpostu egonkorragatik. Kopurua egiten den inbertsioaren arabera: gutxiengo inbertsioa, 6.000 euro; gehiengo inbertsioa, 60.000 euro.
- **2.268 euro** Lehen lanpostu finkotik aurrera sortzen den lanpostu egonkor bakoitzeko.
- **Baldintzak:** Enpresa berria Arrasaten kokatuta egotea, gutxienez 6.000 euroko inbertsioa egitea, gutxienez lanpostu egonkor bat sortzea eta baldintza horiek betetzea 2019ko uztailaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra.
- **Lekualdatzeak** Kanpoan egoitza eduki eta Arrasatera ekarri dutenek ere jaso dezakete laguntza hau.

Langabeek formakuntza jasotzeko laguntzak

- **Gastuen %75** Udalak portzentaje hori finantzatuko du. Hauek dira barne hartzen diren gastuak: matrikula, kuotak, ikas materiala eta garraio gastuak.
- **2.000 euro** Hori da, guztira, jaso daitekeen kopuru handiena.
- **Baldintzak:** Arrasaten errolatuta egotea, langabezian egotea, 25 urtetik gorakoa izatea eta Lanbide Heziketako ikasketak egitea 2020an.

Langabeak kontratatzekeo laguntzak

- **2.268 euro** Gizonezko langabe bat kontratatzeagatik.
- **2.721 euro** Emakumezko langabe bat kontratatzeagatik.
- **Baldintzak:** Arrasaten lantokia edukitzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera Arrasaten errolatutako langabeak kontratatzea, kontratuak 2020an hasitakoak izatea, gutxienez jardun erdikoak eta sei hilabeteko iraupenarekin. Aipatutako laguntzen zifrak %100eko jardunei lotuta daude; jarduna murriztuagoa bada, laguntza proportzioan gutxituko da.

Arrasateko langabeen datuak, 2019tik hona

	Tasa	Langabeak	Emakumeak	Gizonak	Arrakala
2019ko otsaila	%10,97	1.145	%56,24	%43,76	%12,48
2019ko apirila	%10,41	1.086	%56,81	%43,19	%13,62
2019ko ekaina	%09,62	1.004	%58,27	%41,73	%16,54
2019ko abuztua	%10,41	1.087	%57,50	%42,50	%15,00
2019ko urria	%10,47	1.093	%57,73	%42,27	%15,46
2019ko abendua	%10,47	1.093	%58,00	%42,00	%16,00
2020ko otsaila	%10,50	1.096	%57,03	%42,97	%14,06
2020ko apirila	%12,21	1.274	%55,26	%44,74	%10,52
2020ko ekaina	%13,88	1.449	%53,35	%46,65	%06,70

ITURRIA: SEPE

OHARRAK

'Arrasate monumentala' eta ibilaldia

Zapatuan, Arrasateren historiari buruzko ibilbide gidatua egingo dute: 11:00etan –euskaraz– eta 12:30ean –gazteleraz–, Herriko Plazan. Domekan, Murugaini bira egingo diote: hitzordua, 09:00etan, Herriko Plazan.

Ziar-ola elkarteko batzar orokorra

Uztailaren 17an egingo dute, Kulturaten. Lehen deialdia, 17:00etan; bigarrena, 17:30ean.

Domekan, kontzertua gaztetxean

Konfinamendu osteko lehen kontzertua izango da eta Tabuk eta Ekiñe Casadok joko dute. Hitzordua, 18:30ean; sarrera, 3 euro.

Munduko Arrozak birtuala izango da aurten, hilaren 22an

Integrazioa helburu duen jaia telematikoki ospatzeko dei egin dute, arrozaren argazkiak elkarrekin partekatuz

X.G. ARRASATE

Hilaren 22an ospatuko da Munduko Arrozak jaia Arrasaten, eta, urtero legez, arrasatearren jatorrizko kulturak ikusaraztea eta integrazioa bultzatzea izango dira helburuak. Aurtengo

edizioan, jai presentzialaren orde, norberak etxean egindako arroz platerkaden argazkiak bilduko dituzte; argazkiak 658 74 97 55 zenbakira bidali behar dira, hilaren 13ra arte. Osasun krisialdiaren gaineko haus-

narketa sakona egin dute Udaleko Aniztasun Sailak eta Ekin Emakumeak, IMME, AMS, SOS Arrazakeria eta Gurutze Gorria elkarteek. "Elkartasuna, kooperazioa eta elkarlana areagotu direla ikusita, garai honetako hausnarketak ikusarazi eta herritarrekin partekatzea da helburua; betiere, herritarren arteko bizikidetzara positiboa azpimarratuz, Arrasateko kultur aniztasuna balioan jarritz eta elkarrenganako aitortza eginez", adierazi dute antolatzaileek.

Emakumeek historian duten hutsunea betetzen

Arlo askotan aitzindariak izan diren emakumeei buruzko lanak egin dituzte Arrasate Institutuko 25 ikaslek. Italiako, Frantziako eta Espainiako ikasleekin batera egin dute lana, eta 'Mujeres ignoradas, mujeres ilustres' izeneko liburua osatu dute elkarlanean

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasate Institutuan DBHko 4. mailan Frantsesa eta Filosofia lantzen ari diren 25 ikaslek emakumeek historian izan duten pisuan sakontzeko aukera izan dute. Etwinning plataforma kolaboratiboa erabiliz, Europako beste ikasle batzuekin batera jardun dute elkarlanean *Mujeres ignoradas, mujeres ilustres* liburua digitala sortzen. "Historian hutsune handia egon da beti emakumei dagokienez. Emakume apartak egon izan dira beti, baina, tamalez, historia-liburuetan ez dute apenas presentziarik izan. Hutsune hori estaltzeko helburua zuen proiektu honek", azaldu dute Institutuko irakasle Inaxio Narbaizak eta Tania Alonsok.

Liburu digitala

Konkretuki, hamar ikastetxetako ordezkariak hartu dute parte liburuan: Italiako bostek, Frantziako bik eta Kataluniako,

Granadako eta Euskal Herriko banak. Liburuak 75 orri ditu, eta, guztira, 29 emakume aitzindari aztertu dituzte. Horien artean daude, besteak beste, Claude Haignere mediku astronauta eta politikaria, Dolores Ibarruri politikaria, Ana Maria Mozzoni kazetaria, Concepcion Arenal idazle eta aktibista edo Guena Dimitrova opera abeslaria. Bi orriko artikulatuak osatu dituzte, gazteleraz gehienak, baina, kasu batzuetan, gazteleraz eta frantsesez. "Oso proiektu interesgarria izan da; lehen aldiz Europako beste ikasle batzuekin elkarlanean aritzeko aukera eman digulako eta emakume garrantzitsu asko hobeto ezagutzeko balio izan digulako", azaldu Naroa Morillo ikasleak.


Aipatu behar da liburuaren azaleko logoa Arrasateko ikasleek diseinatu dutela. Alu hostodun moduko bat da, eta, "polemika apur bat piztu arren", 54 logoren artean izan da aukeratua.



Claude Haignere. MIMI



Dolores Ibarruri. MIMI



Guena Dimitrova. MIMI

NIRE USTEZ



JOSU ZUGASTI

Nahi duten argazkia

Modan jarri da Espainiako eskuin gero eta eskuindarragoan Euskal Herrira etortzea eta ekitaldiak antolatzea euskaldunoi kaka burutik behera egiteko. Inperialismo harroputza gurean desfilatzen dabil, guztiok ordaindutako Ertzaintzak eta eurek ekarritako gorilek babestuta. Euskara asmakizun hutsa dela eta eskoletatik atera behar dela esaten digute aurpegira, Euskaltzaindia eta euskarazko komunikabideak itxi, homosexualon eskubideak desegin, alderdiak ilegalizatu, independentistak espetxeratu, antolakunde feministak debekatu... Herri zapaldu baten hamaikagarren umiliazioa.

Baina zeh egin horren aurrean? Batzuetan entzuten dut: "Ez eman nahi duten argazkia; etxean geratu gaitezten". Eta galdetuko nuke: "Nahi duten irudia" ez ematearen kontu horrekin, non eta noiz gelditu da faxismoa? Inon ez, inoiz ez; faxismoari ezin baitzaio utzi tarterik antolatzeke. Mobilizatu beharra dago, eta mobilizazioen irudi horiek izango dira borroka antifaxista hauspotuko dutenak eta beldur direnei adorea emango dietenak. Ospa, faxistak, gure kaleetatik!

3x2

lurrindegi eta
parafarmazia **OSOAN***

Produktuak
eta markak
nahi duzun
erara konbina
itzazu

EROSKI

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30

2020ko uztailaren 14ra arte

*Higiena intimoan, hauteslan, saskitan eta botikinoan leian dabil. Zerbaterako txikiena duena, dagan. Egutako produktuen erabiltzaileei zuzenean erabiltzeko.

ARTko zuzendaritza berrian, jokalaria ugari

Ramon Barrutia presidente ohia buru duen 'Aurrera begira' izeneko hautagaitzak hartuko du taldearen gidaritza. Barrutiak taldeko jokalaria betetako babesa izango du lantaldean, eta, besteak beste, emakumezkoen errugbia indartzea dute helburu

Xabi Gorostidi ARRASATE

Hautagaitza bakarra aurkeztu ostean, Arrasate Rugby Taldeak finkatu du hurrengo urteetan kluba gidatuko duen zuzendaritza taldea. Ramon Barrutia izango da bertako buru: klubaren bulegoetan lan eskerga egin izan du urte luzez, eta presidente karguan ere aritutakoa da. Baina ez da bakarrik arituko, taldeko jokalaria garrantzitsuekin osatutako lantaldearen laguntza izango baitu: Beñat Salaberri, Ihabar Arriaran eta Unai Suinaga izango dira lantaldean, baita Xabier Gardoki kapitaina ere. Horiez gain, Belen Aranbarri eta Asier Urgoitia izango dira beste lankideetako batzuk, baita Javier Mar eta Elene Ansola medikuak, Herensugeak betetako taldeko jokalaria Igor Otadui, senior mailako entrenatzaile Julen Barrutia, eta zenbait jokalariren gurasoak ere; Bittor Majon eta Alex Barañano, esaterako.

Helburuak, finkatuta

Kirol arloko antolakuntza hobetzea eta eraginkorragoa izatea da jarri duten lehen zereginetako bat: "Helburuen artean, kirol arloaren antolakuntza hobetzea dago, *staff*-a bateratuz kirol-zuzendaritza batean, irakaskun-



Sarraigileak Errioxa taldearen aurkako partiduan. IMANOL SORIANO

GURASOEN PARTE HARTZEA HANDITZEA ETA EMAKUMEEN ERRUGBIA INDARTZEA LORTU NAHI DUTE

tza-baliabideak emanez eta entrenatzaileen jardura koordinatzeko Julen Barrutia zuzendari tekniko izendatuz. Emakumezkoen errugbia sustatzea, harrobia bultzatzea, ikastolekin elkarlanean jarraitzea eta bete-

ranoen taldeari garrantzi gehiago ematea dira Barrutiaren eta konpainiaren beste erronketako batzuk. Klubaren antolakuntzan ere hobekuntzak egitea da euren asmoa, gurasoen parte hartzea sustatuz eta bakoitzaren egin-beharrak organigraman finkatuz. Errugbi inklusiboari, iazko esperientzia arrakastatsuen ostean, jarraipena ematea ere dute jomugan", azaldu dute klub zuri-moretik. Emakumeen taldea sortzeko jokalaria ohiekin egon nahi dute, euren bitartez berriak erakartzeko.



Mikel Gonzalez de Martin, AEK Larnaka taldearen elastikoarekin. AEC LARNACA

Mikel Gonzalez de Martin 2022. urtera arte arituko da Zipren

Bi urtez luzatu du AEK Larnaka klubarekin kontratua; soldata jaistea proposatu diote eta baietz erantzun du

X.G. ARRASATE

Zipreko AEK Larnakak jakinarazi duenez, Mikel Gonzalez de Martin *Gontxa* arrasatearrak beste bi urtez jarraituko du taldean. "Taldeko liderretako bat da eta pozik gaude 2022ra arte gurekin izango delako", azaldu du taldeak bere webgune ofizialean. Klubetik jakinarazi dutenez, adostasunera iritsi dira jokalariekin. Taldearen egoera ekonomikoak okerrera egin du, eta, hori ikusita, klubak bi urteko luzapena eskaini dio, baina soldata gutxituz. Reala bigarren mailara jaitsi zenean bezala,

Gontxa-k ez du trabarik jarri, eta baieztokarekin erantzun du. "Erakutsi du ondo ulertu duela taldeak bizi duen egoera ekonomiko berria. Asko eskertzen diogu hori, eta arrakasta opa diogu", azaldu dute klubetik.

Hamaikakoan, finko

Zaragozan urtebeteko egonaldia egin ostean heldu zen *Gontxa* Larnakara. Bi denboraldi egin ditu Zipreko taldean, eta, orain arte, 65 partiduko jokatu ditu: 43 partiduko ligan, lau kopan, bat Superkopan eta 13 Europa ligan. Halaber, bi gol sartu ditu.



Mila esker, Ane!

ISEI BARBERO ART-KO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

Duela 10 urte heldu zen Ane Agirre ARTren bulegoetara, eta, handik sei urtera, erabaki zaila hartu behar izan zuen: presidente kargua eskaini zioten eta Ramon Barrutiari lekukoa hartu zion. Ia 50 urteko historian, Arrasate Rugby Taldeko aurreneko emakumea izan da presidente karguan.

Sentsibiltate guztiak batzen jakin izan du une oro, eta bertute hori duela erakutsi du.

Kirol emaitzetatik aparte, Igor Isasiren aroaren osteko trantsizioa aurrera eraman izana dago bere lorpenen artean, Julen Barrutiari lekukoa emanez. Denbora honetan guztian, beti izan da lanerako

prest, eta jokalarien alboan egoten jakin du.

Askotan gertatzen den moduan, denboraren poderioz nekeak ez du barkatu. Puntu horretara helduta, lekukoa ematen jakin du, eta, lehen taldeko aulkitxoan izandako trantsizioarekin gertatu bezala, bulegoetan ere ART esku onetan geratu da. Kluba osasuntsu uzten du, eta ziur gutxi barru Mojategin ikusiko dugula. Mila esker, Ane!



MONDRA

Mondran, fitxaketen astea

Bost fitxaketa eman dituzte aditzera: Asier Olaizola entrenatzaileak eta Fernando Loiola laguntzaileak beste urtebete luzatu dute kontratua; Gorka Ibarquen arrasatearra fitxatu dute Eibar taldeak, klubeko prestatzaile fisikoko arduradun aritzeko; Xabier Olano atezain tolosarra taldera itzuli da; eta Josu Durana atzelari murgiarra ere fitxatu dute.



Leire Etzezarreta musikari arrasatearra, Monterron parkean, gitarra eskuetan duela. E.A.

Doinu akustikoak, etxeko zaleendako kontzertuan

Leire Etzezarreta arrasatearra kontzertua eskainiko du eguaztenean, uztailak 15, Udazabal programaren baitan, Aldai parkean. 19:30ean izango da eta sarrerak Amaia antzokian eskuratu daitezke doan, 18:00etatik 20:00etara, astelehenetik aurrera

Eneko Azurmendi ARRASATE

Leku gehienetan moduan, aurreikusita zeuden kontzertu handiak egokitu egin behar izan dituzte Arrasaten ere, formatu txikiagoetara eta modu akustikora pasatuz, eta Udazabal programak horri erantzuten dio. "Emanaldi guztiak izango dira formatu txikiagoan, eta hortik etorri zitzaidan proposamena. Izan ere, nik bakarrik abesten dut, gitarrarekin. Aukera eskaini zidaten eta pozik hartu nuen, gustura. Ea apurka berreskuratzen goazen halako ekitaldi kulturalak", adierazi du Leire Etzezarreta musikari arrasatearra.

Duela hiruzpalau urte heldu zion gitarrari, eta orain gutxi hasi da bakarkako emanaldiak eskaintzen, formatu akustikoan. "Gitarrarekin ez daukat ikaskuntza handirik, nire kabuz aritu izan naiz orain arte. Azkenaldian, geroz eta gehiago jotzen hasi naiz eta nire kantu batzuk ere sortu ditut, baina ikasturte berrirako egiteke dau-

kadan gauzetako bat da gitarra hobeto jotzen ikastea", dio.

Eguazteneko emanaldiari dagokionez, bere kantuak eta bertorio ezberdinak joko ditu. "Guztiak nire kantuak ez izateko, abesti ezagun batzuk ere joko ditut. Beraz, denetik izango du kontzertuak, oreka hori mantentzen saiatu naiz". Bere kantuek euskarazko letrak dituzte

eta bertorio gehienek ere bai, nahiz eta gaztelaniazko kantu bat edo beste ere joko dituen. "Nahiko kontzertu lasaia izango da. Eguazten ilunkerarako plan ona dela uste dut. Ni ahalik eta ondoen egiten saiatuko naiz, eta uste dut giro polita sortuko dugula guztion artean. Ondoren datorren kontzertuak ere mereziko du, seguru. Ho-

rrenbestez, animatu daitezela herritarrak", adierazi du.

Goi mailako musikarien ondoan
Arrasatearraren ondoren, Keu Agirretxeak eta Pablo Novoak eskainiko dute emanaldia. "Herrian kontzertu bat ematea polita da, nahiz eta, lagunak eta ingurukoak hor izanda, urdurtasunak areagotuko zaizkidan. Gainera, maila horretako musikariekin oholtza partekatzea ederra da. Ni oraindik ikasten ari naiz eta asko daukat ikaste-ko. Beraz, halako musikariak ondoan izatea betegarria da niretzat. Plan polita izango da", nabarmendu du (Ikus 41. orria).

Musikari lotutako bizitza

Modu batera edo bestera, Etzezarreta beti egon izan da musikari lotuta. Sorginak taldearekin ere ibili zen, Kepa Junkerarekin proiektua partekatuz. "Hasi ginen, oso gazteak ginen. Nik 16 urte nituen. Lauzpabost urte egon gara proiektu horrekin, eta niretzako ikaskuntza ikaragarria izan da. Esfortzu handia dakar halako proiektu batek, entsegu eta prestaketa ordu asko dira, eta agertoki batean egoten ere ikasten duzu", azaldu du.

Txikitatik jotzen ditu trikitia eta panderoa. "Aramaioko Trikitixa Eskolan irakasle naiz, eta Arrasatekoan dagoeneko ez na- goen arren, beharra dagoenean hor izaten naiz, laguntzeko prest".

Instrumentu horiei gitarra ere batu zaie orain, eta, aurrera begira, disko bat argitaratzea gustatuko litzaioke Etzezarretari. Aitortu du, ordea, oraindik goiz dela horretaz berba egiteko. "Lehen helburua kontzertuetan esperientzia hartzea da, eta gero geroak. Baina polita izango litzateke diskoa kaleratzea, bai".

Antzerkia, musika eta zirkua, saio batean batuta

'Urbasa' ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da gaur, egubakoitza, Biteri plazan

E.A. ARRASATE

20:00etan hasiko da emanaldia. "Antzerkia, musika eta zirkua uztartzen dituen ikuskizuna da *Urbasa*. Musika txalapartarekin egiten dugu. Harritzko, egurrezko eta bidoizko txalapartak ditugu", azaldu du Anai Gambrak, Hutsun Txalaparta Taldeko kideetako batek -bestea Mikel Urrutia da-. Horrekin batera, Ortzia Acosta gimnasta ohi eta zirkuko artistak akrobazia egiten du. "Guztion artean istorio bat kontatzen dugu, musikaren eta antzerkiaren bitartez. Emanaldi honek daukan berezitasuna da testurik ez duela", gaineratu du Gambrak.

2020an estreinatutako obra da, pandemiak guztiz baldintzatu duena. "Lehen saioa martxoaren 11n egin genuen, hau guztia hasi aurretik, eta bigarrena uztailaren 3an". Gaurko emanaldia hirugarrena izango da, beraz.

Gambraren esanetan, "aukera polita" da txalaparta ohituta gauden tokietatik kanpo ikusteko. "Ortziren indarra eta malgutasuna ere deigarriak dira edonorentzat. Ikuskizuna erakargarria, dibertigarria eta polita dela esango nuke". Atzo zen sarrerak Amaia antzokian eskuratzeko azken eguna.

eya
ALTZARIAK

SUKALDERAKO ETA ETXERAKO ALTZARIAK
DEKORAZIOA ETA OSAGARRIAK

DESKONTU HANDIAK
ERAKUSKETA ALDAKETAGATIK!

Ignacio Zuloaga 4 - Arrasate
Te.: 943 79 05 07
www.eyaaltzariak.com

ion ELEKTRIZITATEA

Mantentze lan integralak
Konponketa txikiak eta handiak
24 orduko zerbitzua

658 99 59 12

Deitu!!!



Astelehenean jaioberriei egindako ongietorria. A.E.

Beste era batera izan dira aurten

Jairik ez ospatu arren, hainbat ekintza izan dira asteburuan; horien artean, azken urtean jaiotako umeen ongietorria egin zuten astelehenean. Ekitaldi polita eta goxoa izan zen, eta hartu beharreko neurriak hartuta behar bezala ospatu zena

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Askotariko sentipenak izan dituzte aramaioarrek egun hauetan. San Martin jairik ez ospatu arren, Udalak antolatutako ekintzetan gustura parte hartu dute. Gustura eta errespetuz.

Zapatu arratsaldean, Green Grass musika jaialdia izan zuten parkean. Herriko musikarien ahotsaz eta musikaz gozatzeko aukera paregabea izan zen. Eguraldia lagun, herritar ugari batu ziren parkean: Maria eta Manex, Idoia Asurmendi eta Nhil Bandeko kide Sara Alonso eta Beñat Arrieta eskoriatzarra aritu ziren kantuan. Aramaion musikarekiko dagoen zaletasuna agerian geratu zen musikariek erakutsitako mailarekin.

Berbapasia

Domekan egindako ekintzen artean Berbapasia nabarmendu

du Kultura zinegotzi Ana Martiarenak: "Oso ekintza polita izan zen, eta adin askotariko jendea elkartu zen".

Jaioberriei bertsoa

Astelehenean, aldiz, azken urteetan ohitura bilakatu den ume jaioberrien ongietorria egin zuten. Pilotalekuan elkartu ziren: 10 ume jaio dira Aramaion iazko uztailetik aurtengo uztaileira bitartean. Oihana Ameskoa zinegotziak botatako bertsoarekin hasi zuten omenaldia: *Uztailetik uztaileira aurrera doa denbora/ horren adibide dugu aurtengo*

MUSIKAREKIKO DAGOEN ZALETASUNA AGERIAN GERATU ZEN GREEN GRASS JAIALDIAN

uzta oparoa/ Xan, Intza, Enai, Xuhar, Libe, Hodei hor dago gustora/ Rahmani, Aiur, Nahikari, Ametz bizitzaren erritmora/ Hain goxoak, hain maiteak jaso zaituztete altzora/ zalantza barik paisaia bihurtu duzue ederragoa/ bizitza beraren ikur jaioberri denak gora!/ zuen begirada honek aberastu daue agora/ asma eza-zue non izan ze fauna eta ze flora/ ongietorri gure herrira ongietorri Aramaixora.

Lagun-Artean dantza taldekoek aureskua dantzatu zuten, eta ondoren, lore bana banatu zitzaizkien jaioberrien gurasoei. Ekitaldi goxoa izan zen.

Tio Teronen Semeak

20:15erako amaitu zen jaioberrien ekitaldia. Ondoren, 20:30ean, Tio Teronen Semeak dantza taldekoek zuten hitzordua; baina, ordu laurden hori nolabait

bete behar zenez, Aramaio dantza taldekoek dantza egitea erabaki zuten. Hiruzpalau pieza eskaini zituzten, eta hara joan-dako herritarren txaloak jaso.

Tio Teronen Semeak dantza taldeak *Festamentua* ikuskizuna ekarri zuen Aramaia. "Giro ezin hobea" izan zutela Aramaion esan dute, eta *"Festamentua" sekulako festa* bihurtu zela. Gainera, "herriko dantzari harrobi ederra testigu zela" egin zutela ikuskizuna nabarmendu dute sare sozialetan.

"Pozik", dena ondo irten delako

"Azken hilabeteetan bizi den egoeraren harira, herritarrek beldurtuta, kezkatuta, urduri... bakoitzak bere arrazoiak izango ditu sentitzen den moduan sentitzeko", azaldu du Martiarenak, eta arrazoi guztiak ulergarriak direla gaineratu du. Sentimendu horiek guztiak izan dituzte egunotan aramaioarrek, eta, egoera arraroa izan den arren askorendako, udal agintariek argi dute erabaki egokiena hartu dutela. Osasun egoerak eskatzen dituen segurtasun neurri guztiak bermatzeko gauza ez zirela ikusita erabaki zuen Udalak aurten San Martin jairik ez egitea.

AZKEN URTEAN JAIOTAKO HAMAR UMEEK ONGIETORRI GOXOA IZAN ZUTEN ASTELEHENEAN

'Udaramaio' agenda

Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu uztaileko.

Uztailak 10, barikua

- **22:00etan** *Korterraza* film laburren emanaldia, kanpoko frontoian.

Uztailak 16, eguena

- **19:30ean** Bertso saioa: Paula Amilburu, Martin Abarrategi, Igor Elorza eta Miren Amuriza. Gai jartzaile: Xabi Igoa. Parkean.

Uztailak 17, barikua

- **12:00etan** *Porrusalda* umeendako antzerkia. Kanpoko frontoian.

Uztailak 24, barikua

- **19:30ean** Nhil Band taldearen emanaldia. Parkean.

Uztailak 29, eguaztena

- **19:30ean** Kontzertua: Maria, Bea eta Idoia. Parkean.

Segurtasun neurriak hartuko dira.

Hala ere, kontziente dira jendeak zerbait behar duela, eta herrian ekintzak antolatzeak "alaitu" egiten dituela herritarrek. "Urduri geunden egin ditugun ekintzak nola burutuko ziren jakin arte, ea zerbait gertatuko zen... baina oso ondo joan dira", dio Martiarenak.

Uztaileko egitaraua

Uztailerako antolatu dituzten ekintzak askotarikoak dira: bai umei zuzendutakoak eta baita nagusiei zuzendutakoak ere.

Hil amaieran, Aramaio musikariek osatutako beste bi emanaldi egongo dira. Uztailearen 24an, Nhil Band taldeak eskainiko du kontzertua. "Zapatuan abesti gutxi batzuk eskaini zituzten, baina 24ko emanaldian abesti gehiago entzuteko aukera izango dugu", dio Martiarenak. Sara Alonsok eta Beñat Arrieta eskoriatzarrek osatzen dute taldea.

Horiez gain, hilaren 29an, Mariak, Beak eta Idoiak eskainiko dute kontzertua, parkean. Bea Asurmendi Londresen da egun hauetan, eta, herrian egoteko aukerarik izan ez duenez, "hermina" duela aitortu dio Goienari, bideo bidez. "Laster hor izango naiz beste bi artista handiekin batera kontzertua eskaintzen: Mariarekin eta Idoiarekin", gaineratu du.

Antolatu dituzten ekitaldietan segurtasun neurri guztiak bete beharko direla azaldu dute udal agintariek.

Musikariek Sastiñan egiten dituzte entseguak

Orain arte kultur etxe azpian izan duten lokalak ez du eskaintzen segurtasun neurriak betetzeko bermerik; hala, Udalak erabaki du Sastiña uztea. Taldeek segurtasun eta higie-ne neurriak bete beharko dituzte; besteak beste, materiala garbitu beharko dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Ermita izatetik areto izatera pasa zen Sastiña; eta orain, entsegu lokala da. Bost musika taldek entseatzeko dute han: Los Clayton, Xementerio, El Exterminio de la Raza del Mono, Balarrasa eta Narak.

Orain arte erabiltzen zuten lokala egokia ez dela ikusita, Udalak Sastiña utzi die entseguetarako. "Lokalak konponketa behar izatez gain, kontua da egoera honetan ez dugula egoki ikusten han entseatzeko. Baina musika beharrezkoa ikusten dugu, taldeak egotea eta eurei lagundu behar diegu, ahal den heinean. Uda partean Sastiña ez da erabiltzen; gainera, egoera honetan ekintzak aire zabalean egitea da asmoa, jende gehiago egon dadin; izan ere, Sastiñak edukiera oso txikia du. Horregatik eskaini diegu Sastiña, eurei ere bide emateko", dio Lierni Altuna alkateak.

Alarma egoera ezarri zenetik behar den moduko entsegurik

egin barik egon dira musika taldeak. "Ikusten genuen jendea tabernetan bazebilela; hortaz, zergatik ez genuen guk ere entseatu?", dio Balarrasa taldeko abeslari Omar Granak.

"Koronabirusak behar leku asko eman digu denei; eta beharrezko eta ezinbesteko diren gauza horiek ere izan daitezke elkartzeko, musika, sorkuntza... Zorionez, herrian badaude talde batzuk. Bide eman behar diegu eta lagundu egin behar diegu, gure esku dagoen heinean", dio alkateak.

Higie-ne neurri batzuk

Sastiñan dauden bitartean, segurtasun eta higie-ne neurri zehatz batzuk bete beharko di-

ENTSEGU BATETIK BESTERA ORDU ERDIKO TARTEA EGON BEHARKO DA, DENA DESINFEKTATZEKO

tuzte: "Aldiro talde bakarrak entseatu du eta entseguen artean ordu erdiko tarte egon beharko da, gutxienez. Tarte horretan, materiala desinfektatu beharko dugu". Udalak gel hidroalkoholikoa utzi die, higie-ne neurriak har ditzaten.

Euren ibilbidean etenaldia

Geldialdiak eragin handia izan du musika taldeetan. Martxo erdialdetik entsegu barik egoteaz gain, uda partean ez dute emanaldirik izango: "Hitzartuta genituen kontzertuak bertan behera geratu dira... Gainera, gure asmoa zen lokalean kontzertu batzuk ematea, dirua lortzeko". Balarrasa taldeak urrian grabatutako diskoa oraindik ez du zaleen aurrean estreinatu. Hala ere, Granak dio "gogotsu" daudela entseatzeko jarraitzeko. Aramaion bertan kontzertu bat egitekoak dira hainbat talde, aire librean izango dena. Eguraldiak baldintzatuko du eguna.

Astelehenean hasiko dituzte udalekuak 79 haurrek

Herriko txikiak 10:00etatik 13:00etara egingo dituzte ekintzak astelehenean hasi eta uztailearen 24ra bitartean

A.E.G. ARAMAIO

Haur Hezkuntzako 24 umek eta Lehen Hezkuntzako 55ek eman dute izena aurtengo udaleku irekietan. Astelehenean, uztailearen 13an, hasiko dituzte ekintzak eta uztailearen 24ra bitartean iraungo dute aurtengo udaleku ireki bereziek.

Izena eman dutenen kopurua ikusita "aurten ere udalekuen beharra ondorioztatu" daitekeela nabarmendu du Oihana Ames-kua zinegotziak. 10:00etatik 13:00etara egingo dituzte ekintzak eta auzoko umeak jasotzeko eta etxera eramateko autobus zerbitzua egongo da. Atzo, eguna, egin zituzten batzarrak gurasoe-kin, udalekuei hartu beharrekoei neurriei buruz.

Gazte Udalekuak

Gaur, uztaileak 10, da Gazte Udalekuei izena emateko azkene-



Udalekuak, artxiboko irudian. GOIENA

ko eguna. Uztailearen 15ean, 16an, 17a, 20an eta 21ean egingo dituzte 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako ekintzak. Markel Arriolabengoa ibiliko da gidari lanetan eta 25 euroko kuota ordaindu beharko da izena ematerakoan.

'Bertatik bertara' kanpainara batu da Aramaio ere

Uemak antolatu duen *Bertatik bertara* kanpainak udalerri euskaldunek euren baitan biltzen duten aberastasuna ikusaraztea eta aldarrikatzea du helburu. Udalekin eta zerbitzu sektoreko eragileekin batera, herritarrek eta bisitariak sentsibilizatzeko ekimena izango da abian jarri dutena. Aramaio ere bat egin aldarriarekin; hala, herriko

hainbat establezimendutan ikusi ahal izango da *Gure herria, gure hizkuntza eta gure produktuak* aldarrikatzen duen irudia.

Kanpainaren lehen urratsa udako lehen hilabeteetarako prestatu du Uemak. Jatetxe, taberna eta ostatuetan otorduren bat egiten duen edonork mahai gainean ikusi ahal izango duen mantela izango da; eta udal eraikinetan eta dendetan ikusgai egongo diren kartelak, herritarrek eta bisitariak kontzientzia har dezaten.

1.150 herritarrek izango dute botoa emateko eskubidea

Uztailearen 12an, etzi, egingo dituzten Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan 1.150 aramaior daude botoa ematera deituta.

Osasun egoerak baldintzatuta, hainbat aldaketa egingo dituzte eskolarako sartu-irtenetan. Hala ere, betiko moduan, eskolako jangelan egongo dira hauteskunde mahaiak.

Orain arte sartu eta irten ate berberetik egiten bazen ere, etzi, bi ate erabiliko dituzte horretarako. Botoa ematera doana jangelako sarreratik sartu beharko da; eta, behin botoa emanda, beste atetik irten beharko da, komunetako irteeratik.

Sarrera zaintzen pertsona bat egongo da, eta, modu horretan, jende pilaketak saihestuko dira. Izan ere, mahai bakoitzeko botoemaile bakarra egongo da. Betiko moduan, bi mahai egongo dira eskolan.



Balarrasa taldeko kideak, Sastiñan, entsegu batean. OMAR GRANA

Aurrekontuaren doiketa aho batez onartu dute

Udalaren diru-sarrerak 1.373.500 euro murriztuko dira, eta, hori konpentsatzeko, gerakinetik 1.150.000 euro bideratzea onartu dute; gainera, liberatutako bi zinegotzien lan jarduna murriztuko dute eta horiek zein alkateak ez dute aparteko ordainsaririk jasoko

Mirari Altube ARETXABALETA

Galartzako dorretxean elkartu zen udalbatza eguaztenean, uztailako osoko bilkura egiteko. Distantziak bermatzeko leku bila joan ziren hara, eta zenbait zinegotzi lehenengoz sartu ziren bertan. 2020ko udal aurrekontuaren doiketa izan zuten gai nagusi, eta, horren baitan, liberatutako zinegotzien lan jarduna ere bai.

Hainbat partida "blokeatu"

Koronabirusaren osasun krisiak izan duen eragin ekonomikoaren ondorioz murriztu egin dira Udalaren diru-sarrerak; eta bereziki bi alorretan izandako jaitsieraren ondorio dira: Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik 1.014.000 euro gutxiago jasoko dira -%20 gutxiagorekin kalkulatu-; eta udal zerga eta tasen bilketatik, 400.500 euro gutxiago.

Murrizketa horiei aurre egiteko, 2019ko ekitaldiko diruzaintzako gerakineko -2,6 milioi euro inguru- 1.150.000 euro erabiltzea erabaki zuten. "Gerakina izango ez bagenu, zorpetu egin beharko ginatke oinarritzoei eusteko", adierazi zuen Unai Elkoro alkateak. Gerakineko gainerakoa 2021ean sor daitezkeen beharretarako gorde dute.

Horrez gain, hasierako aurrekontuan jasotako hainbat partida "blokeatu" egingo dituzte eta 238.000 euro jaso hortik; horien artean daude: kiroldegian eguzki plakak jartzea, txakurrendako aisialdigunea atontzea eta Bedarreta auzoko irisgarritasun lanak. "Behar-beharrezkoak ez diren lanak geratu egin ditugu eta aurrerago aztertuko dugu heldu ahal izango diegun edo ez", zioen Elkoro. Herriko elkarteek Udalak ematen dizkien dirulaguntzak ere doituko dituztela iragarri zuten, eta talde bakoitzaren egoera haiekin aztertuko dutela adierazi.



Udalbatzako kideak, eguaztenean, Galartzako dorretxean. MIRARI ALTUBE

GERAKINARI ESKER ZORPETU BEHARRIK EZ DELA IZANGO ADIERAZI DU UNAI ELKORO ALKATEAK

Aho batez onartu zuten doikuntza eta EH Bilduko Mikel Uribeztebarria gustura agertu zen: "Aurrekontuak jaitsiera garrantzitsua izan du eta logikoa da hori egokitzea. Dena den, guztiari artazia sartzea ez dugu uste aproposa denik eta lortu murrizketa batzuk ekiditea".

Gizarte Zerbitzuetan gora

Gizarte Zerbitzuen arloan, ostera, igoera izango dela adierazi zuen Elkoro. Etxerik etxeko laguntza zerbitzura 90.000 euro gehiago bideratu dituzte, eta partida 300.000 eurora igo; eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara 104.000 euro gehiago. "Orain arte laguntza eske etorri ez den talde bat agertu da, eta horiei erantzun behar diegu". EAJ udal taldeak, gainera, 5.740 euro bideratu dizkio Caritasi, sortutako beharrei erantzuteko.

Lan jardunaren murrizketa

Alkatearen esanetan, eredu-garriak izatea dagokie, eta, ildo horretatik, liberatutako zinegotzien lan jarduna murriztea onartu zuten, hainbat bilera ondoren bi alderdiak adostasunera iritsita. Hala, Ainhoa Caberok %75eko lan jarduna izango du, baita Ion Albizuk ere -%50 HAPORA bideratuta eta %25 EH Bildura- eta talde politikoei egindako ekarpenetik 5.000 euro aurrekontura bideratuko ditu EH Bilduk. Gainera, aparteko ordainsariei uko egin diete bi zinegotziek, baita Elkoro alkateak ere. Neurri horiekin urtean 55.000 euro inguru aurreztuko dituztela adierazi dute. "Ez da guk hasieran proposatutakoa, murrizketa txikiagoa da, baina onartu egin dugu", zioen Elkoro.

EH Bilduko Uribeztebarria pozik agertu zen: "Plan Orokorra garatzeko koordinazioaren ardura dugu guk, eta horretarako gutxieneko dedikazio bat behar da. Horregatik, kezkatuta geunden lan jarduna erdira murrizteko proposamenarekin. Irtenbidea adostu dugu, eta pozik gaude; dedikazio murriztagoaren, baina hor egongo gara".



Tio Teronen Semeak taldea *Festamentua* ikuskizuna eskaintzen. AITOR AGIRIANO

Tio Teronen Semeak taldearen ikuskizuna gaur, plazan

Hika Teatroak kaleko kabareta ekarriko du eguaztenean, egoera absurdoetan oinarritutako 'Tonbola' lanarekin

M.A. ARETXABALETA

Udaleko Kultura Sailak uztailarako antolatutako kaleko ikuskizun emanaldiak aurrera segitzen du eta gaur, egubakoitza, Tio Teronen Semeak taldearen txanda da. Umorea, dantza eta doinu ezagunak bateratzen dituen taldeak *Festamentua* ikuskizuna eskainiko du Herriko Plazan (20:30). Hileta batean hartuko dute parte, eta hainbat eratak dantzak eta musika estiloak nahastuko dituzte oraingoan, patroiz zehatz bat jarraitu gabe; betiere, ondo pasatzeko helburuarekin.

Hika Teatroa uztailaren 15ean

Eguaztenean, ostera, *Tonbola* lana eskainiko du Hika Teatroak, Herriko Plazan (19:00). Egoera absurdoetan oinarritutako umorea du ardatz eta dantzeekin eta zuzeneko kantuekin uztartutako emanaldia izango da.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Umeek pailazo ezagunen *Bizi dantza* ikuskizuna izango dute uztailaren 17an, egubakoitza, Ibarra kiroldegian (18:00). Sarrera gehienak martxorako saldu ziren eta oraingo gutxi batzuk geratu dira.



M.A.

Ibai alboko pasealekua, zabalik

Martitzenean zabaldu zuten Deba ibaiaren alboko pasealekuaren azken zatia. 62 metro berritu dira, eta horren helburua izan da Lausittatik Markole auzorainoko ibilbidea egokitzea oinezkoendako zein bizikletendako. Bergarako Artzamendi Construcciones enpresak egin ditu lanak eta 238.435 euroko kostua izan dute.



Euskaraldiarekin bat egin duten hainbat entitatetako ordezkariak. MIRARI ALTUBE

Euskararen aldeko birusa hasi da zabaltzen

Herriko hamabost entitatek dagoeneko egin dute bat 2020ko Euskaraldiarekin eta ariguneak sortzeko konpromisoa hartu dute guztiek; birus hori herriko gainerako elkarte, zerbitzu eta enpresetara zabaltzea da orain erronka

Mirari Altube ARETXABALETA

Joan den egunean aurkeztu zuten 2020ko Euskaraldiarekin bat egin duen Aretxabaletako lehenengo taldeak. Horretarako, hamabost entitatetako ordezkariak elkartu ziren Basotxoko lorategian, eta ekimenarekin bat egitearen arrazoiak azaldu zituzten.

Hainbat eratako entitateak

"Alarma egoera dela-eta kosta egin zaigu martxa hartzea, baina lehenengo hamabostekoa lotu dugu eta ekin diogu bideari", adierazi zuen Eñaut Zubizarretak, Euskaraldiaren dinamizatzaile aretxabaletarrak. "Orain, herriko beste entitateengana joko dugu eta hemendik eta irail

bukaera arte topera jardungo dugu horien konpromisoa lortzeko", gaineratu zuen.

Era askotako ezaugarriak hartu dituzte kontuan lehenengo taldetxo hori osatzeko: "Herriaren lagin bat hartu gura izan dugu: erdigunea zein auzoak, adin eta genero ezberdinak, eta hainbat eratako izaera duten

entitateak: komertzioak, ostalaritza zerbitzuak, enpresa handiak, eragile sozialak, ikastetxeak...". Hala, honako entitate hauetako ordezkariak elkartu ziren: Hanka Beltz urdaitegia, Pausoka haur eskola, Pikarraituz talde feminista, Gemes estetika, Ogi-berri okindegia, Aretxabaletako Lanbide Eskola, Copreci, Andra Mari aholkularitza, Basotxo erretiratuaren elkarte, Leizarra musika eskola, Ibarra jatetxea, Arizmendi Ikastola eta Kurtzebarri Eskola; ezin etorria azaldu zuten GSR Debagoiena adinekoen

egoitzakoek eta Kalebarren dendakoek.

Lanerako gertu

Euskaraldia batzordeko kideak pozik agertu dira herritarrek orain arte emandako erantzunarekin: "Euskararen alde lan egiteko beti dago prest jendea, eta, egoera ezohikoa izan arren, eskertzekoa da agertutako presuntasuna", zioen Zubizarretak. Herriko entitate guztietara iristea da orain erronka, eta ahal den guztietan ariguneak sortzea helburua.

Petti eta John Galdos musikariak bihar, Ojala Zelain

Herriko elkarteek uztailerako antolatutako egitarauaren barruan dago kontzertua; zinemari ere ekin diote

M.A. ARETXABALETA

Joan den egubakoitzean eman zioten hasiera *Hemengaz* ekimenaren bueltan antolatutako egitarauari, eta oraingoan ere musika izango da ardatz.

Ojala Zelaik izandako arrakasta ikusirik, hango oholtzara igoko dira bihar, zapatua (19:00), Petti beratarra eta John Galdos aretxabaletarra. Biak ala biak gitarra lagun hartuta gerturatu dira, eta rock eta folk ukituak dituzten doinuekin girotuko dute Aozaratza auzoko zelai ezaguna.

Ibilaldi kulturala

Loramendik, Lekaixoka bertso eskolak, UDAk eta Basotxok egin dute bat, besteak beste, kultura suspertzeko ahaleginarekin, eta Udalaren babesarekin jaso dute ekimen horretan.

Ildo horretatik, Loramendiko Toponimia taldekoek arratsalde guztirako plana egin gura izan dute biharko. "Herriko Plazan, 82. kilometroa adierazten duen harrian, elkartuko gara eta gidatutako ibilaldia egingo dugu; Oro eta Larrino auzoetatik bueltan iritsiko gara Ojala Zelaira".




Lekaixokako kideak, koplak kantuan Ojala Zelain. ENEKO AZURMENDI

Eguenetako zinemari ere ekin diote, eta hurrengo astean, hilaren 16an, *Animadeba* ikus-entzunezkoa eskainiko dute (22:00) Portasol auzoan.

Hemendik eta hilabetea bukatu artean beste hainbat ekitaldi

izango dira: hilaren 16an, Etxe-kalte bermeotarren kontzertua, Portasolen; 24an, Jaiki elkarteak eta Joe Piemanek eskainitako *1,5* ikuskizuna; 25ean, Rodeo taldearen kontzertua; eta 31n, doke txapelketa.

Zergatik egin duzue bat?



MARIATXEN URKIA
MUSIKA ESKOLAKO ZUZENDARIA

"Herriko kulturaren bueltan talde garrantzitsua gara, ikasle kopuru handia duena, eta derrigor egin behar dugu bat. Barne ariguneak sortzea da gure asmoa; behintzat, bi: bata guraso elkartearen bueltan; eta bestea, klastroa. Aurreko aldian ere jarri genuen gure aletxo eta oraingoan ere bai".



KUIREKA ETXEBARRIA
COPRECICO PRESIDENTEA

"Coprecin lan polita egin da urteetan euskararen bueltan, eta ibilbide horretan, beste urrats bat izango da oraingoa. Coprecin bertan *normaltasun berria* lortzea izanik asmoa pauso berriak behar dira. Arigune batzuk identifikatuta ditugu eta konpromisoa lortzea espero dugu".

OHARRAK

UDArekin batzarra

Urteko batzar orokorra egingo du UDAk gaur, egubakoitza, 18:30ean, Arkupen, eta, besteak beste, bukatutako denboraldiaren berri emango du, eta datorrena aurkeztu.

Larrino auzoko jaiak

San Kristobal jaiak ospatuko dituzte Larrino auzoan. Meza izango da gaur, 19:00etan, eta ondoren, automobila loreekin dotoreen apaindu duen jabeari saria emango diote.

Bonuak salgai

Uztailako bonuak oraindik salgai dituzte Arkupen (09:00-13:00 eta 17:00-20:00). 50 euroko taloitegiak eta 5 eurokoak, biak daude salgai.



Oñatin, Elkar Hezi Eguna ospatzeko izan zen ekainean Potx magoa, Santa Ana aretoan. AITZIBER ARANBURUZABALA

Udalak kultura agendari berrekingo dio gaur

Hiru ikuskizun izango dira uztailan, Santa Marinar. Gaur, Potx magoa zen egotekoa, baina atzeratu egin dute; uztailaren 17an, berriz, Bocabeats Comedia, 22:00etan; eta ordu berean, uztailaren 24an, Blues Morning Singers taldea

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak kultura agendari berrekingo dio uztailan, hiru emanaldirekin. Hiru saio izango dira, guztiak Santa Marina plazan. Batetik, Potx pailazoaren ikuskizuna izango da, bestetik, Bocabeats Comedia bikoteak eskainitako *beatbox* bakarriketa-kantu *show*-a; eta, azkenik, Blues Morning Singers taldearen kontzertua.

Potx magoaren '3.0' ikuskizuna

Lehen emanaldia egubakoitz honetan zen egitekoa, baina aurrerago egingo dutela adierazi dute antolatzaileek. Magia zuri eta komikoa eskainiko du Oñatiko Potx magoak 3.0 ikuskizunean. "Hiru urtez ari naiz magia egiten, eta honako hau hirugarren saioa izango da. Garai hauetan, magiaren eta barrearen beharra dugu, eta ea publikoak disfrutatzen duen. Haurrentzat eta helduentzat zuzendutako saioa da, eta, halako ikuskizunetan publikoaren

interakzioak duen garrantzia kontuan izanda, ia truko guztietan saiatuko naiz publikoa oholtzara gainera igotzen", adierazi du Potx magoak.

'Beatbox'-a komediaz nahastuta

Hurrengo emanaldia uztailaren 17an izango da, 22:00etan, eta Bocabeats taldea ikusteko aukera izango da. *Beatbox*-a komediarekin nahasten dute taldeko bi partaideek, eta ez da izango Eskoriatzara datozen lehenengo aldia. Oraingoan, baina, *La que hemos liao* *show*-arekin izango dira gurean. Protagonistek bakarriketak egingo dituzte, zenbait abeslari imitatuz eta publikoaren eskaerekin zuzeneko inprobisazioa eginez.

**UZTAILEAN ZEHAR
IZANGO DIREN HIRU
IKUSKIZUNAK SANTA
MARINA PLAZAN
ESKAINIKO DIRA**

Blues doinuak

Amaitzeko, hilaren 24an, 22:00etan, Blues Morning Singers taldearen kontzertua izango da. Talde bizkaitarrak blues musika estiloa uztartzen du, bere aldaera eta forma guztietan, musika afro-amerikarraren sustairik sakonenak gurtuz. Errepertorio zaindua eta osatua eskainiko dute, kantutxoak zein bertsiok eskainita.

Garaiz joatea gomendatzen da

Egingo diren ekitaldietarako Santa Marina plazan aulkiak jarriko dituzte, segurtasuntarteak gordeta, eta bertaratuek ezingo dute zutik egon bertan. Sarrera librea izango da, baina edukiera bete arte. Gainera, sarreran gel hidroalkoholikoa jarriko da eskuak garbitzeko, eta bertaratzen direnek musukoa jarrita izan beharko dutela adierazi dute antolatzaileek. Horrekin batera, 6 urtetik beherakoek lagunduta joan beharko dute ikuskizunetara.

Bi herritarrek positibo eman dute koronabirusaren proban

Zuhurtziaz jokatzeko aldera, udalekuak ere ez dituzte egingo gaur, eta astelehenean erabakia hartuko dute

I.B. ESKORIATZA

Bezere batek positibo eman ostean, ateak ixtea erabaki du Eskoriatzako Hotela tabernak. Hala, jabeek ere proba egin, eta bietako batek ere positibo eman du. Horrekin batera, zuhurtziaz jokatzeko aldera, bilakaera zein den jakin arte, biharko udalekuak bertan behera geldituko dira.

Izan ere, Eskoriatzako herritar batek positibo eman ostean, zalaparta sortu da herrian. Eta Hotela taberna ixtea erabaki zuten, atzo, bertako jabeek: "Positibo eman duen herritarrarekin kontaktu zuzena izan dugu, tabernatik kanpo, eta, beraz, guri ere proba egin digute; niri eta bikotekideari. Hala, nik ere positibo eman dut, eta nire bikotekidea emaitzen zain dago. Orain arte desinfekzio eta segurtasun neurri guztiak hartu ditugun moduan, zuhurtziaz jokatzeko erabaki dugu, eta taberna itxi dugu. 11 egunez itxita izango dugu, beraz. Hala ere, zuzeneko kontaktua izan duten herritarrek bakarrik arduratu behar dute, eta adierazi nahi dugu fokua ez dela gure taberna izan. Gauzak horrela, isolamenduan egon behar dute beragan-

dik gertu egon zirenek, negatiboa eman dezakezulako eta egunetan aldatu...", adierazi dute Hotelako jabeek.

Gaur, udaleku barik

"Atzo, eguna, udalekuak egin ziren, baina, guraso asko arduratuta zeudenez, haurrak etxera eramatea erabaki zuten, eta beste batzuk etxera bidali genituen guk. Hala ere, zenbait haur geratu dira begiraleekin...", adierazi du Maider Etxaniz Gazteria teknikariak. Horren harira, gaur, udalekuak bertan behera geratu dira, prebentzio gisa, eta astelehenean erabakiko dute udalekuekin zer egin.

Inkernu, bigarren fasera

Prebentzioz jokatzeko, herriko zenbait taberna neurriak hartzen ari dira, eta horietako bat da Inkernu. Izan ere, bigarren fasera bueltatzeko erabaki dute. Hala, taberna barruan ezingo da kontsumitu, bakarrik kontsumizioa eskatu, eta terrazan jarrita hartu beharko da. Gainera, kontsumizioa eskatzekoan bezeroak maskara jarrita eraman beharko duela adierazi dute Inkernu tabernakoek.



MIREN ZUBILLAGA

Talde txikietan probak egiten

Udaero, Eskoriatzako DBH-1 eta DBH-4 bitarteko nerabeei zuzendutako udako programa, astelehenean hasi zen, eta aurreko programa laburragoa, talde txikietan eta kanpora irteerarik gabe eramaten ari den arren, erronkaz eta probaz betetako egunak ari dira izaten nerabeentzat. Egunotan, Gaztekonkisi lehiaketarekin ari dira, herriko txoko ezberdinetan.

Erronka: Eskoriatzatik Covadongara bizikletan

Zapatuan, zortzi lagun aterako dira bizikletan Eskoriatzatik Asturiaserainoko bidea egitera. Asmoa bertara iristea izango da, eta indarrez dagoena Covadongako aintziretako portua igotzen saiatuko dela adierazi dute parte-hartzaileek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Kirol apustu-zale ugari dago Eskoriatzan, eta baita burugorriak ere. Hori horrela, bata besteari baietz eta besteak honi ezetz aritu ostean, erronka bat gauzatzea erabaki dute zapatu honetan. Eskoriatzatik bizikletan atera eta Asturiaseraino iristea; eta, hori gutxi balitz, bertara iristean, indarrekin dagoena Covadongako aintziretara igotzen saiatzea. Hala, guztira, 310 kilometroko bidea izango dute aurretik, eta, hiru gel-diune eginda, guztiek goraino igotzea dute helburu.

Bi txirrindulariren arteko apustu bat aitzakia, zortzi lagun batuko dira zapatuan, Eskoriatzatik Covadongako aintziretarainoko bidearen erronka bizikletan egiteko. 06:00etan irtengo dira, eta, erronka gauzatzen saiatuko direnekin batera, hiru lagun joango zaizkie autoz asistentzia eta laguntza eskaintzen, eta bueltarako garraio gisa.

'Oreka-Lagos' erronka

Iker Ibabek eta Iker Eskibelek Eskoriatzatik Covadongako aintziretara bizikletan iristea ezinezkoa zela izan zuten hizketaldi iaz, eta, Oreka Cycling Space bizikleta-dendako jabe Sergio Valenti lagunak animatuta,



Oreka taldeko zenbait lagun bizikletan. OREKA CYCLING SPACE

erronka gauzatzea erabaki dute. Hala, *Oreka-Lagos* izenpean baitaiatu dute asteburuko hitzordua. Hori horrela, zortzi lagun hauek izango dira erronka egitera animatu direnak: Iker Eskibel, Iker Ibabe, Lander Mediavilla, Xabi Dorreak, Jon Urkia, Ion Ander Gereta, Sergio Valenti eta Ander Zubia.

Hiru atsedenaldirekin

"Asmoa Asturiaseraino iristea da. Gero, indarrez dagoena animatuko da Covadongako aintziretako portua igotzen, baina ez

dakit nola egongo garen. Gehienok Asturiasera iristen bagara nahikoa egingo dugu, eta, bestela, hurrengo egunean igoko dugu portua. Aurretik 310 kilometro izango ditugu, eta aplikazio bat erabiltu antolatutako ibilbidea. Guztira, hiru atsedenaldira egitea da asmoa: lehenengo, 130 kilometro inguru egin ostean, Laredon; bigarrena, 210 kilometro inguru egin ostean, Unqueran; eta hirugarrena, Covadongan, portua hasi aurretik", adierazi du Iker Eskibel txirrindulari eskoriatzarra.

Zenbait landa-eremuren oreka territoriala lortzeko bidean

Gatz Bidean, Eskoriatzako elizate bideetan eta Angiozarko Gariketxeren bueltan aritu dira proiektuak garatzen

I.B. ESKORIATZA

Landa sortzailea proiektuaren emaitzak aurkeztu zituzten joan den egubakoitzean Ibarraundi museoa. Gatzagako udalerrian, Gatz Bideari balioa emateko; Angiozar auzoan, Gariketxeren

etorkizuneko erabilera definitzeko; eta Eskoriatzako elizateetan, bideen arteko mugikortasuna garatzeko proiektuak izan dituzte esku artean, eta orain arte egindakoak aurkeztu zituzten bertan.

Landa-eremuen "jasangarritasuna eta oreka territoriala" lortzeko bidean, hiru AuzoLabs egiten aritu dira Debagoienean Conexiones Improbables enpresako kideak lurralde horietako herriarrek. "Parte hartu duten herriarrek kolaboratzaile gertagaitz batekin aritu dira lanean: Tipi Gara, Vivero Iniciativas Ciudadanas eta Pez Estudio artistekin, hain zuzen ere", adierazi du Mikel Bengoak, Conexiones Improbables taldeko kideak.

LEINTZ GATZAGA | 19



Leintz Gatzagako autobus geltokia. I.B.

Mugikortasunean pauso berriak eman dituzte Leintz Gatzagan

Uztailetik aurrera, Leintz Gatzaga-Aretxabaleta tartean autobusak martxan jarri dituzte

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Iaz, Leintz Lotzen proiektuaren bueltan, Gurel elkartearen izenean Dorleta Elkorobarrutia gatzagarra Foru Aldundiko Mugikortasun sailekoa den Rafaela Romerorekin egon zen Gatzagako mugikortasun iraunkorra hobetzeko bi proiektu planteatzen.

"Alde batetik, Gatz Bidearen berri eman genien, honek dituen aukerak planteatu, eta Foru Aldundiari laguntza eskatu genion. Gaur egun dagoen bideak badauka eta non hobetzerik denontzat erabilgarri egin nahi badugu, eta proiektu hau aztertu eta erantzut

tekotan geratu ziren. Badirudi lantzen dihardutela eta aurrerago honen inguruan erantzungo diguten hitza eman digute", adierazi du Elkorobarrutiak.

Autobusa Aretxabaletara

Beste aldetik, gaur egun dagoen autobus zerbitzua Eskoriatzatik Aretxabaletaraino luzatzeko aukera proposatu zuten. "Bigarren proposamen honetan dagoeneko Aldundiak egin ditu aldaketa batzuk. Arratsaldeetan hiru ordutegitan Aretxabaletako Nafarroa ibilbideraino joaten da autobusa". (Ikus *Pesa.net*).



GARAZI OROBENGOA

Meza aire librean egin zuten

Urtero moduan, San Martin eguna ospatu zuten gatzagarrek joan den domekan. Aurten, baina, Zurtitzako San Martin ermita kanpoan egin dute meza, eraikinaren egoera ere ez baita oso ona. Hala, Goierri auzoko antzinako parrokiaren alboan, aire librean, mezu entzun ostean pintxo batzuk jarri zituzten bertaratu zirentzat.



Agorrosingo kanpoko igerilekuko berdegunea, eguazten arratsaldean ateratako argazkian; erreserbak agortu egin ziren. B.U.

1.600 abonatu gutxiago aurten

COVID-19ak erabat aldatu du Agorrosingo kanpoko igerilekuaren irudia, eta badago hori berresten duen datu bat: 2019an 4.800 abonatu inguru zeuden eta 2020ko uztailaren 7an 3.193 ziren; egoera berrira egokitze erabiltzaileen jarrera txalotu du Udalak

Jokin Bereziartua BERGARA

Ekainaren 22an jarri zen martxan Agorrosingo uda denboraldia, normaltasun berriak eskatzen dituen neurriak betez. Udalak baldintza berrietara egokitutako sarrera, edukiera eta neurriak ezarri, eta kiroldegia ia zerbitzu guztiekin jarri zuten martxan.

Hori bai, Agorrosingo normaltasun berriaren irudia nabarmen aldatu da aurten iazko uztailetik, eta badago datu bat baieztapen hori berresten duena: 2019ko uztaillean 4.800 abonatu inguru zeuden eta aurten, uztailaren 7ko datuari erreparatuta, ez dira 3.200 abonatura heltzen -3.193 dira, zehazki esateko-. Ekainaren 22an kiroldegia ireki zenetik uztailaren 7ra arte, 7.500 bat sarrera izan dira, eta orain arteko egunik jendetsuena ekainaren 30a izan da, egun hartan 886 erabiltzaile izan ziren eta.

Udalak espero zuen jaitsiera

Udalak, uztaillean aurrera joan ahala eta egun beroak nagusitzen doazen heinean, erabiltzaile gehiago espero ditu datozen egunotan. Orain arte, kanpoko igerilekuko berdegunearen edukiera eguazten arratsaldean bakarrik bete zen; datuak datu, baina, aurtengo uda denboraldian erabiltzaile kopuruan jaitsiera espero zutela aitortu du Udalak: "Neurri oso bereziak derrigorrean bete beharra, etorri aurretik nahitaez erreserba egin beharra... Eragozpenak dira, eta herritarrek, akaso, ez datoz orain arte moduan

UZTAILAREN 7RA ARTE 7.500 SARRERA IZAN DIRA; EKAINAREN 30A EGUN JENDETSUENA, 886 HERRITARREKIN

horregatik. Gainera, kutsatzeko beldurra ere izango dute batzuek... Interpretazioak askotarikoak izan daitezke, baina normala da jaitsiera. Segurtasuna bermatzeko har daitezkeen neurri guztiak hartu ditugu, baina ulertzen dugu jendeak arriskatu nahi ez izatea; nire partetik, lasaitasun mezua zabaldu nahiko nuke", dio Kirol teknikari Iñaki Ugarteburuk.

Erabiltzaileen jarrera txalotu

Ugartebururen arabera, kiroldegia erabiltzen ari diren herritarrek neurriak ondo ari dira errespetatzen, "erantzukizunez". Horrekin batera, erabiltzaileak "oso gustura" dabilzala dio Ugarteburuk: "Neurriak ondo betetzeaz gain, datozen erabiltzaileak oso gustura daude. Orain arte ez dugu kiroldegirako sarrera mugatu behar izan, eta, erabiltzaile guztiak aldeztu aurre-

Gainezka egotetik, ia hutsik egotera

COVID-19ak eragin zuzena izan du kanpoko igerilekuaren erabileran eta, beraz, uztaillean utzi ohi zuen irudian. Azken urteetan, jende larregi egoten zenez, bainuaren iraupena mugatua izaten zen eta ilara luzeak sortzen ziren putzura sartzeko. Aurten, uztailko lehen egunetan, behintzat, oso bestelakoa da irudia. Ondoko argazkia martitzenean 14:15ean dago aterata, jende gutxien egon ohi den orduan, baina nabarmena da erabiltzaile kopuruan izan den jaitsiera. Esan beharra dago, kontrara, eguazten eta eguen arratsalderako berdegunerako erreserbak agortu egin zirela. Bestalde, aldaketa bat badago kanpoko igerilekuaren eskaintzan; izan ere, uztailko lehen egunetik aurrera erabilgarri daude txirrista eta txanpinoia, gazteenen gozamenarako. Iazko udan berdegunearen zati baten instalatu ziren ur jolasak, aldiz, ez daude martxan.



Igerilekua, martitzenean (14:15). J.B.

Labegaraietaren hutsunea bete behar

Labegaraia eraberritzeko bigarren faseko lanak "martxa onean" doazela dio Ugarteburuk. Aurreikuspena da Labegaraia berria prest izatea 2021eko urtarrilerako, eta klubaren kezka nagusia da hurrengo denboraldiaren hasieran non entrenatu eta lehiatuko diren, baldin eta kirol federatua irailean hasten bada. Eskubaloia, saskibaloia, gimnasia erritmikoa, hockeya, eskalatzaileak, Beti Busti piragua taldea... Hainbat klub erabiltzaile ditu Labegaraietak, eta obregatik itxita egongo den tartean ezinbestekoa zaio Udalariei beste udalerriri batzuetako azpiegiturak erabiltzea. "Inguruko udal guztiekin egin dugu berba eta borondatea badago, baina haiek ere ez dituzte kirol azpiegiturak soberan. Espero dugu uztaillean zehaztea zein izango den irailerako plana", gaineratu du Kirol teknikariburuak.

tik txanda hartzen ari direnez, ondo ari gara funtzionatzen. Kanpoko igerilekua edota Agorrosingo beste edozein zerbitzu erreserbatzeko hiru bide daude: www.bergarakiroloa.eus webgunean eskaera eginda, 943 77 70 95 telefono zenbakira deituta edota Agorrosinera bertaratuta.

Udala eta BKE: akordioa

COVID-19aren ondorioz berdegunean distantziak mantendu ahal izateko eta edukiera handitzeko, Udalak erabaki zuen uda denboraldian zehar bere jabetzakoa den Ipintza futbol

zelai erdi eguzkia hartu ahal izateko bideratzea. Hautsak harrotu zituen erabaki hark Bergara Kirol Elkartean, 2020-2021 denboraldia prestatzeko Ipintza osorik erabiltzea behar-ko zutela argudiatuta. Hala ere, akordiora heldu dira bi aldeak, eta abuztuko azken astetik aurrera futbolerako erabiliko da Ipintza osoa. "Badirudi denboraldia beranduago hasiko dela, baina irailean hasita ezinezkoa litzateke denboraldi-aurrea prestatzea. Beraz, pozik gaude adostutakoarekin, normaltasunez hasi ahal izango dugu aurre-denboraldia, nahiz eta inkognita asko ditugun oraindik denboraldiari begira", azaldu du BKEko presidente Iosu Elortzak. Behin adostasun batera helduta, Udalak ez du gai horren gaineko adierazpen berririk egin nahi izan.

ABUZTUKO AZKEN ASTETIK AUERRERA IPINTZAKO ZELAIA OSORIK ERABILI AHALKO DU BKE-K

Abiatu dira COVID-19ra egokitutako jardunaldiak

Botanika eta COVID-19aren bueltako prestakuntza dira aurtengo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien ardatzak; Amaia Arranzen uztailaren 15eko hitzaldia eta umeendako uztailaren 17ko botanika tailerra dira geratzen diren ekitaldi nagusiak

Jokin Bereziartua BERGARA

2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldien abiapuntua Landareen Osasunaren Nazioarteko Urtearekin lotuta egotea zegoen aurreikusita. Hala ere, COVID-19ak erabat baldintzatu du aurreikuspen hori, eta, horregatik, aurtengo programan uztartuko dira landareen osasunarekin lotutako adar asko, baina baita ere koronabirusari aurre egiteko prestakuntza.

COVID-19ak eragindako krisiak argi utzi du, besteak beste, herriko merkataritzaren digitalizazio beharra. Horregatik, herriko komertzio eta ostalaritzari zuzendutako prestakuntza saioak antolatu dira; astelehenean hasi ziren, Irizarren. "Gaur egungo egoeraren aurrean sensibilizazio eta aukera berri-tzaileak sortzea da helburua, UNED Bergara zentroko Juan Lararen eskutik", adierazi dute antolatzaileek. Bestetik, sare sozialak kudeatzeko ikastaroa ere antolatu dute komertzio txikiari begira, eta horretarako Goiena Komunikazio Taldekoak izango dituzte irakasle.

Arranzen hitzaldia hilaren 15ean
Horrez gain, uztailaren 15ean, *Gure elikaduraren sustraiak, Ekialde Hurbileko ehiztari-bil-*



Umeendako ilustrazio botanikoaren gaineko tailerra, uztailaren 3an. LABORATORIUM

KOMERTZIO TXIKIAK BEHAR DUEN DIGITALIZAZIORAKO PRESTAKUNTZA ESKAINTZEN ARI DIRA

tzaile eta lehen nekazarien elikagaiak izenburu duen hitzaldia izango da, Amaia Arranzen eskutik. Arranz oso ezaguna egin zen orain arteko ogi zaharrenaren aztarnak aurkitu zituenean. Amerikako Arkeologia

Institutuarentzat (AIA) Arranzen eta bere taldearen aurkikuntza 2018ko hamar aurkikuntzetatik garrantzitsuenetakoa izan zen.

Lorategietara bisita hilaren 17an
Uztailaren 3an, umeendako ilustrazio botaniko tailerra egin zuten, eta oraindik ere, uztailaren 17an arratsaldean eta hilaren 18an goizez, Bergarako lorategiak ezagutzen jarraituko dute. Biologo batez lagunduta egingo da bisita, 10 urtetik gorako umei zuzenduta. Argibide gehiagorako: www.laboratorium.eus.

UNEDeko adituen aholkuak entzuten

Astelehenean hasi ziren Udalak UNEDen laguntzarekin abiatutako saioak, herriko komertzio txikia indartzeko. Lehen saioan, komertzioen testuingurua ezagutu zuten, eta baita dituzten arazoak eta erronkak aztertu ere. Bigarren saioan, berriz, aurrera egiteko ideiak eta proposamenak garatuko dituzte. Eta, azkenik, ikasitakoa praktikan jartzen saiatuko dira.



Astelehenean egin zuten lehen saioa, Irizar jauregian. B.U.

GORA ETA BEHERA




Motorrak Ozaeta kaleko espaloian aparkatuta

Labegaraieta auzoan dagoen Ozaeta kale gainean bizi den bizilagun batek salatu nahi izan du duela egun batzuk motor batzuk espaloio gainean aparkatuta ikusi zituela: "Falta zaiguna, motorrak ere espaloian aparkatuta. Ia etxeko portalean daude aparkatuta, gainera".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



GOIENA

Kartelak kendu edo apurtzea salatu dute EAJk eta EH Bilduk

Domekako hauteskunde kanpainako propagandarekin kezu agertu dira EH Bildu eta EAJ. Jeltzaleek adierazi dute kanpaina hasi zenetik "egunero" aritu behar izan dutela kartelak itsasten, "ezezagun batzuek" kendu edo apurtu egiten zituztelako. EH Bilduk, berriz, sare soziale-tan adierazi du euren kartelak ere kendu eta apurtu dituztela.



Kartelak apurtuta, asteon. SORTU / EAJ

OHARRAK

Suspenditu diren ikuskizunetako sarreraren dirua

COVID-19agatik bertan behera geratu diren Seminarixoko emanaldietako sarreraren dirua jasotzeko, Udaleko Kultura Zerbitzura (943 77 91 59) deitu behar da lehenbailehen.

Bergarako Bandaren kontzertua, doan

Uztailaren 19an izango da alarma egoeraren osteko lehen kontzertua, frontoian (12:30). Sarrerak geratuko balira, Seminarixoko: uztailaren 16an, 18:00etatik 20:00etara.

Udal euskaltegia: udako ikastaro trinkoak

Irailean izango dira klaseak, arratsaldean. B1, B2, C1 eta C2 mailak; izena emateko azken eguna da gaur: 943 76 44 53 edo euskaltegia@bergara.eus. Irizar jauregiara ere joan daiteke.

Bertan behera geratu dira San Kristobalgo jaiak

Aldai-Egiako jai batzordeak erabaki du asteburu honetan izan beharko ziren festak suspenditzea: "Datorren urtean gogotsuago ospatuko ditugu. Animo guztioi!".

Arizondo argazkizale elkarteak: 'Begiradak'

Aroztegi irekiko dute erakusketa gaur, uztailaren 26ra arte.



Uemaren Bertatik bertara egitasmoaren aurkezpena, astelehenean, Laboratorium museoa. BERGARAKO UDALA

Berba zaharrak: 'kokola', 'otamoltzo'...

Euskaraldirako dinamizatzailerik Asier Kortabarria *Moto* gazte bergararra Bergarako berba zaharrekine ere ari da lanean: "UNEDek 1980ko hamarkadan ateratako *Bergarako euskera* izeneko liburua etxean topatu eta oso interesgarria iruditu zitzaidan. Gaur egun erabiltzen ez diren edo oso gutxi erabiltzen diren esamoldeak daude bertan eta uste dut merezi duela horiek ezagutzea, gutxienez". Proiektu "xume" bat dela dio eta belaunaldi berriei begira bereziki formatu arin baten eta sare sozialen bidez ari da zabaltzen: "Nireak ez diren eremuetan gehiegi sartzeke, ez naiz-eta filologoa, diseinu txukun batekin eta adibideak jarrita ari naiz aurkezten. Gure herriko hizkera ezagutu dezagun, eta atzetik datozenek ere ezagutu dezaten". Kortabarria uste du garrantzitsua dela ahozko ondare hori mantentzea, baina Euskaraldiarekin buru-belarri lanean ari den egunotan berretsi du Bergaran "lan handia" dagoela egiteke oraindik erabileran: "Euskara bizirik mantentzeko euskara batua derrigorrezkoa den moduan, garrantzitsua da euskalkien gainean ahalik eta gehien jakitea". Hainbat berba eta esamolde argitaratu ditu dagoeneko: *añube*, *otamoltzo*, *sasiletrau*, *kokola*, *tantra lan eñ*... Horien esanahia ezagutu nahi? Instagrameko kontuan, informazio guztia: www.instagram.com/bergarakoberba.

Euskara bisitarien begien gozamenerako baliatzera

Uemaren 'Bertatik bertara' ekimenarekin bat egin du Udalak, bisitarien begien aurrean euskararen presentzia indartzeko asmoz; 44 jatetxe eta taberna batu dira ekimenera eta, besteak beste, euskarazko oinarritzko hitzez osatutako mantelak jarriko dituzte

Jokin Bereziartua BERGARA

Udalak bat egin du Uemaren Bertatik bertara egitasmoarekin. "COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondorioz, aldaketa handia izango du batetik bestera bidaiatzeko eta atsedean egunak antolatze moduak. Beraz, inoiz baino gehiago, gure bazterrak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dugu hurrengo hi-

labeteotan. Herritarrei eta bisitariari erakutsi behar zaie herri euskaldunak zer-nolako altxorak diren, bertatik bertara zenbat goza daitekeen nabarmenduz, bertako produktuekin, kulturekin eta ekonomian oinarritutako garapenari eskutik helduta. Betiere, udalerrri euskaldunen nortasuna egokien islatzen duena euskara dela ahaztu gabe",

azaldu dute Uematik. Euskal Herriko 70 herritan bideratu den kanpaina hau turismoaren alorrari bideratuta dago eta herritarrek zein bisitariak sentsibilizatzeko ekimena izango da.

Astelehenean abiatu zuten kanpaina Bergaran, herriko 44 jatetxe eta tabernatan 23.000 mahai-gaineko edo mantel banatuta. Horrez gain, herriko denda

eta bestelako negozioetan kanpainaren kartela eta informazioa ere banatuko dituzte. Mahai-gaineko horietan euskarazko oinarritzko hitz eta esamoldeak bost hizkuntzataraz itzulita daude. Horren bitartez, euskararen presentzia indartu nahi dute, eta euskara ez dakitenei ohiturak aldatzeko baliabideak eskaini. Horrekin batera, herriko negozioei gonbidapena egiten zaie euren lokaletako hizkuntza paisaia euskara gehiago erabiltzeko eta, bide batez, zerbitzua eskaintzerakoan ahoz ere euskararen erabilera bultzatzeko.

Egitasmo honetan Udaleko Euskara, Turismo eta Garapen zerbitzuak lankidetzan ari dira.

100dik gora entitate Euskaraldian Bestetik, 100 baino gehiago dira dagoeneko Euskaraldian izena eman duten entitate bergararrak.

Konfinamenduaren ostean, batzordeko kideek "buru-belarri" jardun dute lanean, herriko entitateei ariketaren berri emateko asmoz. Horren harira, entitateetara bisitak, aurkezpen presentzialak eta sare bidezko arreta uztartu dituzte.

Parte hartu nahi duten entitateek irailaren 29a arte izango dute tarte. Informazioa jaso edota izena eman nahi duten entitateek telefonoz (688 60 43 14) edo mezu elektronikoz (bergaraeuskaraldia@gmail.com) jar daitezke harremanetan.

23.000 MANTEL BANATU DITUZTE TABERNETAN, EUSKARAZKO HITZ OINARRIZKOENEGIN



NIRE USTEZ

ASIER ELORTZA

Arranoa edo belea

Ze animalia izan nahiko zenuke? Denetik entzun dut: "Nik lehoia, erregea delako; arranoa, hegan egiteko; lumbagoa duen limakoa, ezer ez egiteko...". Nik, aurrekoan ikusi nuenaren ondoren, oso argi daukat. Banindoa bizikletan Gorlara igotzen, lumbagoa duen limakoa bat bezala, eta han non agertzen den arranoa bat, hegaldi baxuan, bele bat harrapatzeko ondoko

zelaian. Bizikleta geratu eta espektakulua ikusten geratu nintzen. Belea, hiltzorian, garrasika hasi eta segundo gutxitan beste bi bele agertu ziren zarataka, bikoitza zen arranoari mokoka. Arranoa defendatzen ahalegindu zen, baina harrapatutako belea askatu behar izan zuen azkenean. Askatu bezain pronto, hiru beleak -zauritutakoa barne- arranoa erasotzen jarraitu zuten,

pinudi batera ihes egin zuen arte. Berehala pinudia belez inguratu zen, denak zarataka; 70-80 bele bilduko ziren... Aho zabalik geratu nintzen. Ikerketek diotenez, espezieirik inteligenteenetakoa da belea; ez daukat dudarik, zelako talde kohesioa. Beste baten kontatuko dizuet Pirinioetako behi batailoi batekin pasa genituenak; ia beleak deitu behar ataka hartatik ateratzeko...

San Joxepe: martxan dira ile-apaindegi eta podologia zerbitzuak

Ile-apaindegi zerbitzua martxan dago astelehenetik, 09:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 18:30era (943 04 23 18 edo 635 06 70 08). Podologia zerbitzua uztailaren 13an abiatuko dute eta hamabost egunean behin eskainiko da, astelehenetan; aldeztu aurretik zita eskatu behar da: 652 07 82 72. Bi zerbitzuetarako derrigorrezkoa izango da musukoa erabiltzea.

Betiko rock-and-rolla eta hitz dibertigarriak batuta

Rias Baixasko jatorri izena duen The Bo Derek's power hirukotea izango da gaur, egubakoitza, Espoloian, 22:00etan, egingo duten Berumuga musika zikloko talde protagonista; ikusleek eserita egon beharko dute eta edukiera mugatua dauka

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

Siniestro Total taldeko baxu-jole Oscar Avendaño gidatzen du The Bo Derek's hirukotea, eta alboan ditu Jorge Lorre eta Rufus El Guarro -Deadwood, Los Wavy Gravies...-. "Talde handietako musikariek sarritan bigarren formazio bat izaten dute proiektu pertsonalagoak gauzatzeko, eta hori da Avendañoen kasua ere. Beste proiektuekin agenda estua izaten dute eta horregatik ezin dute gura beste emanaldi egin The Bo Derek's taldearekin; hain zuzen, gaurkoa, galdu ezineko aukera bat da", dio Gaztelupeko Hotsak ekoiztetxeko Ubane Uzinek.



Siniestro Total-eko baxu-jole Oscar Avendaño gidatzen du The Bo Derek's. G. H.

Rock-and-roll "biluzia"

Hirukoteak izenean adierazten duen adar-jotzea eta umorea nabaria da euren kantuen hitzetan ere, hitz oso ironikoak dituzte, eta emanaldi dibertigarriak egiten dituzte. Iaz argitaratu zuten 10 izeneko lana, eta hedabideek eta publikoak aho batez goraipatu zuten.

The Bo Derek's taldeak ez duela ezer berririk asmatu diote antolatzaileek, horretarako beharrik ez dutela gaineratuta: "Errepertorioa rock-and-roll biluziaren erakustaldi bikaina da, gehigarriak gabea, leher egin arte dantzatzeko modukoa. Hainbat taldetan ikusten dugu, us-tezko modernitate edo sofistika-ziotik abiatuta indarra galtzen dutela kantuek, baina ez da hori euren kasua. Baxu, gitarra, bateria eta ahots egiturarekin ereserkiak egiten dituzte. Erritmoa, riff-ak eta letra autobiografikoak dituzten konposizioak dira eskaintzen dituztenak; hori guztia, abesti ezagunen bertsio zoragarriekin batera. Besteak beste, Smokey Robinson-en *Marmelada* eta *First I Look At The Purse*. Tranparik bako abestiak

dira, grinarekin sortuak eta erraieztatik kantatuak".

Berumugaren hasiera bikaina

Tito Ramirez Combo seikoteak zabaldu zuen aurreko astean egitaraua; Gaztelupeko Hotsak-eko Joxe Felix Xarra Azkarate-ren esanetan, aurreko aldiekin konparatuz ezberdina izan bazen ere, giro ona sortu zen: "Kalitateko kontzertua eskaini zuten eta jendeak oso ondo pasatu zuen, eserlekuetan jarrita, baina hankak eta buruak astinduz, eta 'beste bat!' eskatuz. Aulki gehienak bete ziren, baina batzuek nahiago izan zuten alboetan zutik geratu edo bertako tabernetako mahaietan jarri. Jendea lasai ibili zen, giro onean. Urtero Berumugara etortzen den jendea ere han zen".

Hurrengo asteko kontzertuak

Anaut madrildarra Trio Bravo taldeak lagunduta izango da Berumugako hurrengo proposamena, eta, zapatuan, Sara Zozayaren eta Eyharts-en emanaldia Oxirondo plazan eta Arizeta abesbatzarena Santa Marina parrokan.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzereka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barnuko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zenbakira.



Gaztetxoak areto futboleko konfinamendua hasi aurretik. MAIDER ARREGI

Eskolako patioa eta pilotalekua erabiltzeko irizpide berriak

Bai patioa eta baita pilotalekua ere, gehienez, astean bitan erreserbatu dezakete antzuolarrek udaletxean

Maidar Arregi ANTZUOLA

Koronabirusa dela-eta Eusko Jaurlaritzatik eman dituzten aginduei jarraikiz, eskolako patioa zein udal pilotalekua erabiltzeko moduetan Udalak aldaketak egin ditu. Hortaz, patioan kirola egiteko edo pilotalekua erabili ahal izateko, aurrez txanda hartu behar da udaletxean, 943 76 62 46 telefonora deituta.

Gehienez, 30 pertsonak joka dezakete elkarrekin eskolako patioan -%60ko edukiera-. Astean bi erreserba egin daitezke, gehienez, eta egunero desinfekzio lanak egingo dituzte. "Eskolako patioa erabiltzen ari diren bitartean itxita egongo da; eta, noski, garbi utzi behar da; giltzak udaletxean jaso eta bueltatu beharko dira", argitu du Udalak. Bestalde, kirola ez den gainerako ekintzetarako patioa zabalik dago egunero 18:00etatik 20:00etara. "Gogoratu umeak ez pilatze-

ko ardura gurasoena dela; hortaz, saiatu distantzia mantentzen. Zentzuz jokatzeko eskatu gura diegu herritarrei".

Udal pilotalekua

Astean, asko jota, bi erreserba egin ahal izango dira eta erabiltzaileen kopurua, gehienez, lau lagunekoa izango da. Izen-abizenak eman behar dira eta palan edo pilotan jokatzeko soilik erabili daiteke. "Erabiltzen ari den bitartean pilotalekua itxita egongo da eta giltzak udaletxean jaso daitezke. Gero, bueltatu egin beharko dituzte, jakina. Sartzerakoan garbi egon behar du, eta ez balego, udaletxean eman behar da horren berri. Irteterakoan ere garbi utzi behar dute erabiltzaileek", argitu dute.

Aipatu behar da Olalde pilota saileko kirolariak euren orduak izaten jarraitzen dutela entrenamenduak egin ahal izateko.

Feminismoa eta umorea zeharlerro dituen emanaldia bihar

Babes neurri zorrotzekin eta edukiera mugatuarekin, 'Erradikalak ginen' ikuskizun musikatu eskainiko dute

Maidar Arregi ANTZUOLA


Erradikalak ginen ikuskizuna bihar izango da, 19:00etan, Torresoroan. Izan ere, koronabirusak baldintzatuta, joan den martxoaren 14an bertan behera geratu zen emanaldia.

Ane Labakak eta Beatriz Egizabalek bertsoa eta antzerkia umore fina erabiliz josten dute, eta feminismoa hari-mutur duen ikuskizun entzutetsua eskainiko dute. Bertso eta bakarrizketa formatuaren bitartez, indar handiko ikuskizuna dakarte. "Formatu honek agertokian baduela

indarra ohartu gara. *Erradikalak gara* emanaldiarekin jada ohartu ginen horretaz. Formatu bera erabili gura izan dugu, edukia berrituta", dio Ane Labakak.

Sexualitateaz, patriarkatuaz, gizarteak ezartzen dituen etike- tez eta tabuez jarduten dute. "Iruditzen zaigu gauzak beste era batera esaten saiatzeko eta eragina izateko tresna ona ere badela umorea".

Era berean, orain artean bigarren zati honek arrakasta izan duela eta jendearengana iritsi dela ere aitortu dute.



Labaka eta Egizabal. LANKU



Elkarretaratze osteko luntxa. M.O.

Erretiratuen aldarrikapena irailean itzuliko da berriro

Astelehenero moduan elkartu dira asteon ere herriko pentsio- dun eta erretiratuak euren eskubideak eta bizitza duina aldarrikatzeko. 35 lagun inguru batu dira Herriko Plazan. Oporren aurreko azkena izan da aste honetako eta luntx batekin eman diote amaiera. Irailaren 7an berriro ekingo dietela aldarrikapenei adierazi dute Antzuolako pentsiodunek.

Itzar
LIBURU DENDA
ESTANKOA

**GU ERE
ANTZUOLARREKIN!**

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel. / Faxa: 943 76 60 62

Basalora
Herriko Plaza 4

Toñi Flores
basalorenaturdenda@gmail.com
943 543 658
Herriko Plaza 4
20577 Antzuola - Gipuzkoa
Gu ere antzuolarrekin!

Marilina mertzeria

Gu ere antzuolarrekin!

Herriko plaza 4
ANTZUOLA
Tel.: 677 46 63 21

ANTZUOLAKO JAIK

GOIENA TELEBISTA, HEMEN DEBAGOIENA SAIO BEREZIA
UZTAILAREN 16AN, EGUENEAN, 18.00/20.00/22.00

goiena
20 URTE ZUEKIN.



Liv Wallace
antzuolarra eta
Ruper Ordorika,
uztailaren
18rako

ANTZUOLAKO JAIAK 2020

KORONABIRUS GARAIAN

Goiena
telebistak saio
berezia egingo
du egunean
Antzuolatik

Virginia Imaz
'clown'-aren
ikuskizuna,
Landatxoperen
eskutik

Ez jairik, ez
Mairuaren
Alardetik, baina
kanoiak sutuko
dituzte

Bergarako
Musika
Bandaren
kontzertuaren
ordez,
kalejira



AITOR AGIRIANO

2020ko Antzuolako jaiak bertan behera

Arduraz jokatu eta elkar zain dezagun!



ANTZUOLAKO
UDALA

www.antzuola.eus

Jone Olabarria ANTZUOLA

Hontzaren jaitsiera izan ohi da Antzuolako jaiak hasiera emateko ikurretako bat. Aurten, baina, eta bailarako gainontzeko herrietan gertatu den moduan ohiko jairik egongo ez den arren, antzuolarrek izango dute zer ospatu eta zer gozatu. Era berezian, urteroko herriko hitzordu garrantzitsuenetako bat mantendu eta zenbait ekintza antolatutako jaiak ospatu behar-ko lirakeen astebururako, uztailaren 18rako eta 19rako.

Gune segurua eratuz

Antolatutako ekintza guztiak baina neurri bereziekin egingo direla azaldu dute Antzuolako Udaletik, eta, era berean, zentzuz jokatzeko deia helarazi nahi izan diete herritarrei: "Eskolako patioan egingo diren ekintzetan gune seguru bat eratu nahi dugu, segurtasun neurriak ezarrita, distantziak mantenduz, higiene arauekin.... Ekintzetan parte hartzeko, izena eman behar-ko da aurretik, eta boluntarioen laguntzarekin antolatuko da gunearen kudeaketa". Datozen egunetan zehaztuko dute nola



lazko Antzuolako jaietan, herritarrek larrain dantza egiten. IMANOL SORIANO

Egitaraua prest herriko ezohiko jaiak gozatzeko

Era berezian eta segurtasun neurriak hartuta bada ere, herriko jaiak ospatuko dituzte antzuolarrek datorren astean. Festan murgiltzeko musika emanaldiak, ikuskizunak eta ohiko alardeari keinu txiki bat egingo diete herrian

egin izen emate hori, baina, aitortu dutenez, hainbat modu probatzen dabilta; adibidez, aplikazio bidez. Antolaketa lanetan laguntzeko boluntarioak behar dituztela ere adierazi dute Udaletik.

Zapatua girotzeko ekintzak

Antzuolako jaietako zapatuko protagonista nagusia izaten den alardetik ez da egongo aurten. Hala ere, eguna girotzeko asmotan, 10:00etan, kanoiak sutuko dituzte plazan, eta ostean, txistularien diana arituko da kaleetan barrena. Jaietako klasikoe-tako bat izan ohi da Bergarako musika bandaren kontzertua, eta aurten ere, kalejira moduan, ez du hutsik egingo. Goizeko hamaiketan hasita, ordu eta erdiz ariko dira kaleetan barrena bandako kideak.


Bertan egin zuen debuta iaz Enrike Txurrukak, egun Bergarako musika bandako zuzendaria denak, eta, aitortzen dutenez, "klasiko bat" da Antzuolako kontzertua bandako kideentzat; are gehiago, Bergarako bandan dabilzan antzuolarrentzat; Patxi Olabarria, kasu.

Xenkona

Buztinzuri 11 • ANTZUOLA

- Gozokiak
- Pizzak, hanburgesak, hot dogak...
- Opariak

Gu ere antzuolarrekin!



oerlikon
balzers

Oerlikon Balzers
Coating Spain S.A.U.

Antigua 2

20577 Antzuola

Tel.: 943 76 62 08

info.balzers.es@oerlikon.com

Gu ere antzuolarrekin!

www.oerlikon.com/balzers/es

Alardeari keinu txiki bat

Arratsaldean, 19:00etan, Antzuolako alardeak bete beharko luke herriko plaza egora normalean. Aurtan, alarde horri omenaldi txiki bat egiteko asmotan, berriz ere sutuko dituzte kanoiak plazan. Historian atzera eginda, gerra garaian baino ez da bertan behera geratu mairuaren alardearen errepresentazioa herrian.

Eraldaketa murgildurik

Dena den, aldaketa ugari bizi izan ditu Antzuolako alardeak historian zehar; hala, besteak beste, duela hamaika urte, mairuaren eta bere segizioaren irudia duindu egin zen, eta, diskurtsoa leuntzeko, testuko hainbat hitz eta aipamen moldata egin ziren, bi generoetara egokitu eta hizkuntza eta kultura aniztasuna islatzeko. Alarde berrituak bidea ireki zien emakumeei ere, eta postu ezberdinak hartzeko aukera eman. Iaz, pauso bat aurrera eman, eta emakume batek bete zuen kapitainaren postua, lehenengo aldiz alardea egiten denetik; Eburne Iturbe antzuolarrak hartu zuen postua.

Musikaren presentzia

Erromeria eta kontzertu jendetsurik ez da izango 2020ko jaietan, baina musikak izango du bere lekua egitarauan ere. Zapatuan, 19:00etan, Liv Wallace bakarlariaren zuzeneko izango da, eskolako patioan. Gazte antzuolarrak punk-rock estiloetako bertsio akustikoak egiten ditu. Ordubeteko emanaldia eskainiko duela aurreikusten da. Ostean, 20:00etan, Ruper Ordorikak hartuko dio erreleboa, eskolako patioan bertan.

Erretiratuak eta haurrak

Domekari dagokionez, erretiratuak eta haurren eguna ospatu ohi da tradizioz. Hala, ohitura hori ahal den heinean mantendu eta zaharrenentzat zein gaztetxoentzat ekintzak prestatzen saiatu dira Udaletik. Goiz partean, erretiratuak hartuko dute protagonismoa.

Eguerdian, 12:15ean, Landa-txope erretiratuak elkartekak salda eta pintxoak banatuko dizkie erretiratuak, eta ostean, Virginia Imazek clown ikuski-

zuna eskainiko du erretiratuendako, eskolako patioan.

Arratsaldean iritsiko da herriko txikiendako antolatutako txanda. Ez da jolas parke-rik egongo eskolako patioan, ezta barrakarik ere, baina txikiak ez dute aspertzeko aukerarik izango. Hain zuzen, Pausoka guraso taldeak antolatuta, *Gabe* mimo ikuskizuna izango da umeendako eta familiendako, eskolako patioan, Oihulari Clown-ek eskainita.

Eguena eta egubakoitza

Udaletik adierazi dutenez, jaietako eguen eta egubakoitza izan beharko liratekeen horietarako ez dute ekintzarik antolatu. Hain zuzen, egun horietan egingo zuten gastronomia lehiaketa antzuolarrak, eta ostean, herri bazkaria. Kuadrillentzat hitzordu berezia izaten dena iritsiko zen gero, kuadrillen arteko jolasekin aukera.

Dantzak, datorren urterako

Eguenean bertan egingo zuten lehen dantza saioa antzuolarrak. Udalbatzaren aurrekuarekin batera, Oinarin dantza taldeko

txikiak ikurrin dantza eginda hasiko zituzten festak. Jaietako zapatuan egin ohi dute urtero saiorik luzeena; alardearekin batera, eta urteroko tradizioari jarraituz. Hain zuzen, alardeak plaza hartzean, trokeo dantza eta Antzuolako zortzikoa dantzatzeko zituzten Oinarin dantza taldeko kideek, ohiko egoera izan balitz.

Jaiei amaiera emateko ekitaldietako bat izaten da larrain dantza Antzuolan; herriar askok parte hartzen duten ekitaldietako bat izaten da urtero.

Uztailean eta abuztuan ere bai

Udaletik azaldu dutenez, datorren asteburuan soilik ez, uztailean eta abuztuan zehar kultur ekintza ugari antolatuko asmoa dute: "Emanaldi guztiak asteburu bakarrean pilatu baino gehiago, udako kultur ziklo bat moduan antolatu nahi izan ditugu ekintzak udan zehar".

Hala, bihar egingo dute lehen, Ane Labaka bertsolariak eta Beatriz Egizabal aktoreak eskaintako *Erradikalak Ginen* antzezlan musikatuarekin, Torresoroan, 19:00etan.

Goiena telebistan, saio berezia

Antzuolako jaiek ohikoa den moduan ospatu ezin izango diren arren, Goiena telebistatik saio berezia eskainiko du datorren egunean, hilaren 16an. Antzuolatik bertatik grabatua, Udaletxe plazan, Miren Arregi kazetariak gidatuko du saioa eta herriko eragile ezberdinekin batera herriko jaiek eta horietan egiten diren ekintzak izango dituzte hizpide.

Erreportajeen eta elkarrizketen bitartez jaiek barne-barnetik ezagutzeko aukera egongo da, protagonistekin batera, 45 minutu iraungo duen *Hemen Debagoiena* saio berezian: atzerrian bizi diren antzuolarrak oroitzapenak, urteetan atzerako Antzuolako jaiek ezagutu, mairuaren alardeari buruzko erreportajea, sukaldaritza erreportajea, abeslariarekin *cover*-ak...



Gabilondo - Arregi

harategia - urdaitegia

Bertan jaio eta hazitako txahal okela

KALEBARREN 5 943 76 62 90 ANTZUOLA




Gu ere antzuolarrakin!

Harizki

SUKALDEKO ALTZARIAK

MOTA GUZTIETAKO SUKALDEEN PROIEKTUAK ETA INSTALAZIOAK

Hartu arnasa! Finantzaketa Laboral Kutxaren bitartez egin ezazu!

Zurrategi 4, behea. • Tel.: 943 78 71 80 • Mug.: 637 436 500 • e-posta: harizki@hotmail.com • www.harizkicocinas.com





Kanoien sutzea, ohiko alardea gogoan izateko

Antzuolarrek ez dute ohiko mairuaren alardeaz gozatzeko aukerarik izango aurten, baina uztailaren 18an, Herriko Plazan, kanoiak sutuko dituzte goizez zein arratsalde, alardea herriko jaien eta kulturaren parte dela gogoan izateko helburuarekin

Maialen Regueiro ANTZUOLA

Mairuaren alardea da Antzuolako jaietako ikur nagusietako bat, eta, aurten ekintza hori bere horretan egiteko aukerarik egongo ez bada ere, keinu egingo zaio ohiko alardeari. Horregatik, datorren uztailaren 18an, zapatuan, 10:00etan eta 19:00etan, alardean erabiltzen ohi diren kanoiak sutuko dituzte plazan.

Ohiko alardea gogoan

Ohiko jaietako egubakoitzean eta domekan etxafuegoa botatzen da eta zapatuan, etxafuegoa bota beharrean kanoikada. Gauzak horrela, Lander Dominguez alar-



Lander Dominguez eta Edurne Iturbe, iazko mairuaren alardean. AITOR AGIRIANO

deko buruzagiak aitortu duenez, ohiturari jarraitzeko asmoz, kanoiak sutuko dituzte plazan, goizez zein arratsalde: "Goizeko kanoia sutzearen asmoa da, herritarrei alardea egun horretan egin beharko litzatekeela gogora ekartzea. Horretarako, txistulariekin eta hainbat dantzariarekin batera, plazan egongo dira alardeko buruzagia eta mairu erregea irudikatzen dituzten bi buruhandi ere. Arratsaldekoaren helburua, berriz, egun eta ordu horretan alardea irten beharko litzatekeela gogora ekartzea da". Izan ere, 140 urtean hirugarrenez ez da alardea egingo Antzuolan: 1937an eta 1938an gerra zibila izan zen alardea egitea oztopatu zuena eta aurten, COVID-19ak eragin duen egoerak ez du alardea egiteko aukerarik eman.

Azken urteetan, gainera, Antzuolako alardeak hainbat aldaketa esanguratsu izan ditu. 2018an, esate baterako, Joseba Iparragirreraren ordeztu Lander Dominguez izendatu zuten alardeko buruzagi. Horrekin batera, iaz, azken hamarkadan hasitako eraldaketa prozesuaren baitan,

Edurne Iturbe izendatu zuten alardeko kapitain.

Ekintza sinbolikoa

Dominguezek azaldu duenez, Antzuolako alardea antolatzen aritzen diren kideek jai batzordearekin azken hilabeteetan egindako bileretan argi ikusten zuten ohiko jaiak bertan behera geratuz gero alardearen aldeko ekintza sinbolikoren bat egin beharra zegoela: "Nahiz eta jaiak bertan behera geratu, alardea gure jaien eta kulturaren parte da eta ezin dugu berau ahaztu. Ekitaldi bezala ospatuko ez bada ere, gogoan izateko ekintza proposa delakoan gaude. Gainera, alardearen baitan, diskurtsoarekin batera, kanoiak sutzea izaten da ekintza sinbolikoa eta horren alde egin dugu".

Segurtasun neurriak

Dominguezek ohartarazi du uztailaren 18an plazan egingo diren bi ekintza sinboliko horiek alardea gogoan izateko helburua dutela eta herritarren bat plaza gerturatzen bada, segurtasun neurriak errespetatzea ezinbestekoa izango dela.

MUJIKA HARATEGIA

Kalebarren 1 - Antzuola - Tel.: 943 766434


Berezitasunak - Baserriko oilaskoak eta zekorrak



Gu ere antzuolarrekin!

amaia

Gu ere antzuolarrekin!



Kalitatezko produktuak
Bertako produktuak
Produktu ekologikoak

Aiherra kalea 2 - Antzuola - Tel.: 649 66 27 91



Bergarako musika bandaren kontzertua, iazko Antzuolako jaietan. AITOR AGIRIANO

Kalejirak ordezkatzuko du urteroko kontzertua

Udalak antolatutako egitarauaren baitan, Bergarako musika bandak kalejira eskainiko du uztailaren 18an, 11:00etatik 12:30era bitartean, Errekalden hasita. 'Martxa frantsesa'-z eta bestelako doinuez gozatzeko aukera izango dute antzuolarrek

Maialen Regueiro ANTZUOLA

Bergarako udal musika banda urteetan izan da protagonista Antzuolako jaietan, urtero kontzertua eskaintzen duelako. Aurtun, koronabirusak eragindako egoeraren ondorioz, ez dira ohiko jaiak ospatuko, baina Udalak hainbat ekintza antolatu ditu datorren asteburura begira, eta zapatuan, hilaren 18an, Enrike Txurrukak zuzendutako bandak Antzuolako kaleak hartuko ditu, 11:30ean hasita, kalejira egiteko asmoz.

Kontzertua beharrean, kalejira

Txurrukak adierazi duenez, bandaren kezka nagusia azken hilabeteetan entseatzea izan da, entsegu gabe oso zaila delako emanaldi edota kalejira bat eskaintzea. Koronabirusak eragindako egoera normalizatzen joan den heinean, entseatzeko baldintza onak lortuta eta gela baldintza berrietara egokituta, bestek beste, Bergarako musika banda ere lanean hasi da emanaldiak prestatzeko. Horren harira, bandako zuzendariak aipatu du Antzuolako Udala beraiekin harremanetan jarri

zela aurtengo jaiak begira zitzuten asmoen berri emateko: "Ohiko jaiak egingo ez zirela adieraztearekin batera, urteetako ohitura bat galtzea pena litza-keela adierazi ziguten. Horregatik, urteroko emanaldia egin beharrean, kalejira egitea proposatu ziguten. Guk gustura onartu dugu gonbidapena, baina orain dela aste batzuk Bergaran egin genuen kalejira egitea eskatu genien". Kalejira Errekalden hasiko da, eta Txurrukak adierazi du herriko hainbat plazatan geldialdia egiteko asmoa dutela.

Urteroko 'Martxa frantsesa'

Txurruka zuzendariak aitortu duenez, Bergarako musika bandak *Martxa frantsesa* eskaintzen du urtero Antzuolako emanaldian, eta aurtun ere hori jotzea da asmoa, kalejira egiten duten bitartean. Hainbat geldialdi egingo dituzte, eta horietan beste hainbat pieza entzuteko aukera egongo dela aurreratu du zuzendariak: "Arraunlariak pasodoblea eta Ruper Ordorikaren *Zaindu maite duzun hori* joko ditugu".



ilaia

ILE APAINDEGIA




Kalebarren 1, behea ANTZUOLA
943 76 63 33
ilaia83@hotmail.com



Gu ere antzuolarrekin!



Gu ere antzuolarrekin!

Ondarre, 9 ANTZUOLA • Tel.: 943 76 62 45
garitanosl@gmail.com



'Pronoia' ikuskizuna herriko nagusientzat

Landatxope elkarteko nagusienei ez diete omenaldirik egingo aurtengo jaietan. Bazkaririk ere ez da izango, ezta osteko dantzarik ere. Hala ere, mokadutxo bat hartzeko aukera izango da, eta ostean, berriz, Virginia Imaz 'clown'-aren ikuskizuna

Imanol Beloki ANTZUOLA

Antzuolan urtero izaten da erretiratuendako bazkaria herriko jai nagusietan. Hitzordu garrantzitsua izaten da herriko nagusientzat; izan ere, eskolako patioan batzen dira, eta primeran bazkaltzeko eta dantzatzeko aprobetxatzen dute. Aurten, baina, ez dute bazkaririk izango, eta ez dituzte Landatxope elkarteko nagusienak omenduko; dantza saiorik ere ez dute egingo. Edozelan ere, salda eta pintxoak izango dituzte uztailaren 19an, domekan, 12:15ean, eta amaitzean, Virginia Imaz clown-aren ikuskizuna izango dute eskolako patioan.



Virginia Imaz clown eta ipuin kontalaria. GOIENA

Pertsona nagusienei zuzenduta

"Aurten ezohiko jaiak izango dira, eta Landatxope elkarteko nagusienak ez ditugu omenduko. Bazkaririk ere ez da egingo, ezta bazkalosteko dantzak ere. Hala ere, salda eta pintxoak jarriko ditugu bertara datozenendako, eta, mokadutxoaren ostean, ikuskizuna izango dugu; batez ere, jende nagusiari zuzenduta egongo da. Urtero omentzen ditugun nagusienak ez dakit etorriko diren bi hitzordu hauetara, baina Jai Batzordetik antolatuta ditugun bi ekintza sinboliko hauek keinu bat izango dira beraientzat", adierazi du Pilar Etxanizek, Landatxopeko idazkariak.

Ikuskizuna, neurriak hartuta

Ezohiko jaietan egingo diren beste zenbait ikuskizunen moduan, protokoloa ezarri dute domekan izango den Virginia Imaz clown-aren ikuskizunera begira. Bertara doazen ikusentzuleek zenbait neurri bete beharko dituzte, eta horiek zorrotz betetzeko eskaera egin dute antolatzaileek: "Aulkiak eta mahaiak jarriko ditugu es-

kolako patioan, beharrezko segurtasun neurriak ezarrita. Patiora sartzeko eta irteteko pertsona bat edo beste egongo da, bertaratzen denari neurriak zeintzuk diren esaten eta argibideak ematen. Hori horrela, jendea animatu nahi dugu ikuskizunera, baina, betiere, neurriak ondo errespetatu ditzaten eskatu nahi diegu", adierazi du Etxanizek.

Barre eragin guran

Eskarmentu handia duen Virginia Imaz ipuin kontalaria eta clown-aren saioa izango da domeka eguerdian, Antzuolako eskolako patioan. Batez ere, herriko nagusienei zuzenduta izango da saioa, eta, hori horrela, sudur gorria jantzi eta bertaratzen direnei irribarre bat ateratzeko asmoz irtengo da oholtzara Virginia Imaz.

17:00etan, berriz, Imazen gidaritzapean Gabe mimo ikuskizuna izango da, umeendako eta familiendako, eskolako patioan. Oihulari Clown-ek eta Pausoka guraso taldeak antolatuta ikuskizunaren estreinaldia izango da, gainera.



Aixa
frutategia

Buztinzuri 6.behea Antzuola
Tel.: 943 78 62 69

Gu ere antzuolarrekin!



Gu ere antzuolarrekin!

**Aitz Garbi - Arin - Gailur - Gorosti
Koxkor - Larrea - Mox - Ongi etorri**



Iaz, Antzuolako jaietan kuadrilla jolasetan. GOIENA

Blusa loredun eta jolas bako festak aurtengoak

Kuadrillen Eguna berezia izan ohi da Antzuolako festetan. Hala ere, aurten ez dituzte jolasak egingo, eta, egun seinatu horretako blusa loredunak jantzita kalera atera barik, bazkariak antolatu dituzte kuadrillek, euren kontura, uztailearen 17rako

Imanol Beloki ANTZUOLA

Antzuolako jaien barruan egin ohi dituzten kuadrillen arteko jolasak ez dira gauzatuko 2020ko festetan. Duela lau urte egin zituzten lehenengo aldiz, eta ordutik urtero izan dute arrakasta. Txaranga edo musika talde batek girotuta, herriko kaleetan barrena aritu izan dira antzuolarrak, urtero, giro ederrean jolasak egiten, baina aurten ez da horrela izango.

Kuadrillen bazkariak

Blusa loredunak ere ikur bilakatu dira azken urteotan Antzuolako Kuadrillen egunean. Koloretsuak. Agian, barregarriak batzuentzat, baina festa giroa irudikatzen dutenak, duda barik. Aurten, baina, uztailearen 16rako eta 17rako ez da ezer antolatu Antzuolako Udaletik: "Jai ofizialik ez da egingo aurten, eta, beraz, egunean eta egubakoitzean ez da ezer egingo. Zapatuan eta domekan izango dira Udaletik antolatutako ekintzak, eta herriko kuadrillak izango dira horietan. Horrekin batera, badaude Udalaren egitarautik kanpo, egubakoitzera-

ko, kuadrillek euren kabuz antolatu dituzten bazkariak", adierazi du Mikel Bargiela zinegotziak.

Gastronomia lehiaketa barik

Kuadrilla ezberdinetako zenbait lagun ere animatu izan dira urtero gastronomia txapelketan lehiatzera. Aurten, baina, ez da halakorik egingo. Dena den, hurrengo urtekoetan jarriko dutela indarra adierazi du Bargielak: "Aurtengo jaietako mezua horixe da, ez dagoela jairik. Hala pasa beharko ditugu, eta datorren urtera begirakoak hobeak izango direla pentsatu..."

Ekintza gehiago uda partean

Jairik ez da egongo, baina ekintza sinboliko batzuk antolatu dituzte. Horrekin batera aurrera begira ekintzak antolatzeaz aritu direla Kultura batzordean adierazi du Ion Lizarazuk: "Festarik ez dago, baina uda partean ekintzaren bat edo beste gauzatzea irten da Kultura batzorde bileretan. Zinea izango dugu, eta uda pasa ostean ere izango ditugu ekintzak, baina zehaztu barik daude oraindik".



ameskua arotzak

Ametsak egurrean...

688669033

Ameskua Arotzak

ameskua@outlook.es



**Antzuolatik
Mundura**

www.erreka.com



Finkapen Soluzioak



Plastikoak



Sarbide Automatikoak

Bertsioak eta kantu mitikoak entzungai

Uztailaren 18an, zapatuan, Liv Wallace antzuolarraren punk-rock bertsio emanaldia izango da, 19:00etan, eskolako patioan. Ostean, berriz, euskal kantugintzan erreferente den Ruper Ordorika musikari oñatiarrak eskainiko du emanaldia

Imanol Beloki ANTZUOLA

Musikarekin gozatzeko aukera paregabea izango da uztailaren 18an, zapatuan, Antzuolako jaien bueltan antolatu dituzten emanaldiekin. Batetik, Liv Wallace musikari antzuolarra izango da, 19:00etan, eskolako patioan, eta haren ostean, berriz, Ruper Ordorikaren kontzertua izango da.

Liv Wallace bakarlaria Gas-teizen bizi arren antzuolarra da, eta punk-rock estiloko *cover*-ak eskainiko ditu. Antzuolan joko duen bigarren kontzertua izango da, eta bertsio landuak eskainiko dituela adierazi du. Hala ere, oraindik abesti zerrenda



Liv Wallace bakarlaria antzuolarra gitarra alboan duela. LIV WALLACE

osatu barik duela gaineratu du: "Emanaldian izaten den pertsonen arabera kantu zerrenda bat edo beste osatzen dut. Kasu honetan, ordu erdi inguruko kontzertua izango denez, filtroa pasatu gabe daukat, baina Brigade Loco taldearen kantu bat seguru joko dudala. Horrekin batera, Social Distortion eta Bad Religion taldeen kanturen bat edo beste ere joko dut. Punk-rock estiloko kantuak eskainiko ditut, horiek egiten ditut eta; gehienak ingelesez abestuko ditut. Bertsioez gain, *Chapter One* nire kantu bakarra ere eskainiko dut", adierazi du Liv Wallacek.

Erreferente baten aurretik

Antzuolan 2014an eskaini zuen kontzertua, taberna batean, eta sei urteren ostean, berriz, herrian jotzeko gogoz dago lagunak eta familiakoen aurrean. Gainera, Ruper Ordorikaren telonero arituko da, eta gogoz dago emanaldi egunerako: "Antzuolan kontzertua eskaini nuenean oso urduri nengoen. Harrezkero, konfiantza hartu dut jende aurrean jotzeko, kantu zerrenda handitu dut... eta esperientzia

gehiagorekin kontzertua disfrutatuko dudalakoan nago. Horrekin batera, Ruperen aurretik arituko naiz; estilo aldetik ez daukagu zerikusirik, baina, bakarlaria moduan, Euskal Herri mailan nazionalki erreferente handia da, eta aukera oso polita da niretzako. Udalak beste edozein musikari aukeratu zezakeen, eta ni hain ezaguna izan gabe aukeratua izatea oso polita da, pribilegio hutsa da Ruperen aurretik jotzea".

Ruper & Mugalaris, 20:00etan

Bakarlaria antzuolarraren ostean, berriz, Ruper Ordorika musikari oñatiarrak eskainiko du kontzertua eskolako patioan, 20:00etan. Aurkezpenik behar ez duen musikariak betiko kantu ezagunen abesti sorta eskainiko die bertaratzen direnei, Mugalaris taldearekin batera: Arkaitz Miner (gitarra, mandolina, biolina), Fernando Neira, *Lutxo* (baxua, kontrabaxua) eta Hasier Oleaga (bateria). Beti bezala, zuzenekoetan eskaintzen duen indar eta fintasunez osatutako emanaldia izango da.

Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Goizperren lanean dihardugu ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapena gure kooperatibaren DNA integratuta egoteko. Ingurumena babestea guztion erantzukizuna da.

Egoera berezi honetan. Gu ere antzuolarrekin!

❖ Industrialak ❖ Ihinztadura ❖ Bioteknologia



www.goizper.com

Nagore Igarzaren lana, 'Biblioporrak'-en azal

Askotariko film, liburu eta musika proposamenak batzen dituen 2020ko 'Biblioporrak' gomendio-gida bailarako hainbat liburutegitan eskuragarri dago jada. Aurten, gainera, Nagore Igarza argazkilari eta diseinatzaile grafikoarena da azaleko lana

Maidar Arregi ANTZUOLA

Bartzelonako Massanan Arte Aplikatueta graduatua eta diseinu grafikoan espezializatua da Nagore Igarza antzuolarra. Argazkigintza ikasketak, aldiz, Bartzelonako IEFCan egin ditu (Kataluniako Argazkilaritza Ikasketen Institutua). Bere lana da, hain justu ere, aurtengo *Biblioporrak* gomendio-gida aurkezteko azalak daraman irudi esanguratsua.

"Collage teknika erabili dut, argazkia, testua eta kolore formak gainjarritz. Iradokigarria den irudi bat proposatzen dut bertan. Izan ere, gida honetako proposamenek, liburu, film eta musi-



Nagore Igarza. N.I.

kak, leku ezberdinetara eramaten gaituzte, eta hori islatu nahi izan dut", azaldu du.

Oso lan deigarria eta bisuala da. "Diseinuaren helburua komunikatzea da. Gida liburutegian hartu edo aurten etxean jasoko dutenei deigarria egin eta bertan agertzen diren proposamenak helarazi gura izan diet. Diseinua emaitza bat da".

Biblioporrak gida osatzen duten liburutegiendako -Aretxabaleta, Arrasate, Aramaio, Bergara, Eskoriatza, Legazpi eta Oñati- hiru urte daramatza Igarzak diseinuak egiten, eta aurten gidaren azala egitera animatu dela dio.


AKEk urteko batzarrean 84.000 euroko aurrekontua onartu du

Eztalako lanen berri eman dute AKEko batzorde kideek; eta denboraldi berrirako aurrekontua onartu dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Torresoroan egin du urteko batzar orokorra Antzuolako Kirol Elkartek, babes neurri zorrotzekin. Besteak beste, denboraldi berrirako 84.000 euroko aurrekontua onartu dute; iazkoa baino %20 handiagoa.

Eztalako aldagela berrien obraren egoeraz ere jardun dute, eta denboraldi berrirako gertu izango direla gogora ekarri du zuzendaritza batzordeak. "Eraikinen hezurdura eginda dago eta teiltuaren oinarria ere bai; martxa onean doaz lanak".



Aldagelako obra. IBON GEZALAGA

Ibon Gezalaga, presidente

Batzar orokorrean, Ibon Gezalagak jakinarazi die bazkideei AKEko presidente gisa beste urtebete jarraituko duela. COVID-19ak eta aldagelak amaituta ikusteak eragin diola kargua luzatzeko hautua egitera adie-

razi du. Bestalde, konfirmatu gabeko aldaketaren bat edo beste egon daitezkeela klubean dio, eta aurten emakumezkoen taldea ezingo dela osatu azaldu du Gezalagak. Iker Epeldek lehen taldeko entrenatzailea izaten jarraituko duela ere argitu du.



Lantegia: Kalebarren 4
Saltokia: Herriko plaza
943 76 64 35

Gu ere antzuolarrekin!

KLIKATU

Kalebarren 1, behea
943 78 60 54

Gu ere antzuolarrekin!

Nerea

Gu ere antzuolarrekin!

659 57 50 97
Kalebarren 13 ANTZUOLA

Ile apaindegia

Edertze aretoa

Germaine de Capuccini produktuak
Laser bidezko depilazioa
Informa zaitetz!

Gu ere antzuolarrekin!

Agosti 1 • 943 78 71 37 • ANTZUOLA

helburu

672 69 66 30
Kalebarren 1 • Antzuola
helburu@helburu.com

Gu ere antzuolarrekin!

Ikuskizun bana izango da hileko hiru barikutan

Espaloian izango dira hirurak, 19:00etan, eta doan. Segurtasun distantziak mantentzeko moduan kokatuko dituzte aulkiak, eta horren arabera izango da sarrera kopurua. Gaur, 'Errimak bi oinetan' eskainiko du Haatik dantza konpainiak

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Dantza garaikidea egiten du Aiert Beobidek zuzentzen duen Haatik konpainiak. Dantza eta bertsoa gurutzatzen dituzte *Errimak bi oinetan* ikuskizunean, eta bertsolaritzaren soinua mugimendu garaikide bihurtu. Garai bateko eta gaur egungo bertsoekin eta doinuekin osatu dute emanaldia. Hala, bertsoak entzuteko eta dantza ikusteko aukera izango da ordubate inguruko iraupena izango duen saioan. "Errimak bi oinetan" jailetako bariku arratsalderako zegoen lotuta, azaldu du Kultura zinegotzi Ane Bilbaok. "Konpromisoa hartu genuen jailetatik kanpo egiteko, eta, hasiera batean udazkenerako laga bagenuen ere, ikusi dugu uztaillean bada-goela zerbait egiteko aukera".

Segurtasun neurriak hartuta egingo dira emanaldiok. Hurrengoak izango dira neska-mutikoendako *Plaza irrintzika* saioa hilaren 17an eta *Dama beltzak* musika emanaldia 24an. "Argitzeko daukagu zenbat eserleku izango diren, baina antzokia handia da eta jende asko sartzen da. Espaloian egiteko erabakia lotuta dago kontrol bat mantentzeko beharrezkin. Eguraldi onarekin plazan ere egin daitezke ikuskizunok, baina kezka



Errimak bi oinetan ikuskizunaren pasarteetako bat. HAATIK DANTZA KONPAINIA

DANTZA ETA BERTSOA GURUTZATZEN DITU AIERT BEOBIDEREN KONPAINIAK GAUR EGINGO DUEN SAIOAK

dugu inguruan pilatu daitekeen jendearekin. Kontrolatu deza-kegu eremu bat, baina hortik kanporakoa ez".

Antzokian sartzeko beharrezkoa izango da eskuak garbitzea eta musukoa erabiltzea. "Aulkiak

distantziak mantentzeko moduan jarrita egongo dira".

Plaza irrintzika 4-12 urte bitarteko neska-mutikoendako saioa da. Bertsozale Elkartearen Lanku egitasmoaren proposamena da, eta, berbena formatua bazuen ere, egoera berrira moldatutako ikuskizuna da orain. Gorputza eta ahotsa berotzeko jolasak, onomatopeien asmakizun antzeztuak, kanta parte-hartzaileak, bertsoak, dantza ezagunak... "Saioa segurtasun distantziak mantentzeko moduan antolatuta dago", esan du Bilbaok.

'Agorrosin' auziak epaitegian jarraitzen du ebazpen baten zain

Elgetako udalbatzak asteon berretsi du Bergarako 2020ko ordenantza fiskalen kontra ere egitea

L.Z.L. ELGETA

Agorrosin erabiltzeagatik elgetarrek bergarrek baino gehiago ordaintzea justua ez dela iritzita Bergarako Udalaren 2019ko ordenantza fiskalen kontrako errekurtsua aurkeztu zuen, bere egunean, Elgetako Udalak. Auzi horrek ebazpen baten zain jarraitzen du, baina 2020ko ordenantza fiskalak ere onartu ziren, eta, aldaketarik ez zegoela ikusita, errekurtsu bera luzatu zuen Elgetako Udalak. Bergarako Udalak, orduan, birjarpenera errekurtsua edo helegitea

aurkeztu zuen luzapen horren kontra. Mamian baino gehiago forman sartzen zen, argudiatuz egitate ezberdinak zirela, eta Elgetako Udalak ez zuelako borondaterik erakutsi 2020ko ordenantza fiskalen aurka joateko.

Hala, martitzenean egindako urgentziatzeko osoko bilkura telematikoa berretsi zuen erabaki hori Elgetako udalbatzak. EH Bilduko bost udal ordezkari hartu zuten parte batzarrean eta aho batez hartu zuten erabakia. Auziak epaitegian jarraitzen du, hortaz.

Sei eskaera egon dira Udalaren COVID-19 dirulaguntzetarako

Jarduera ekonomikoarekin etenaldiarekin lotutakoak izan dira guztiak, eta kontziliaziorako lerroan ez da egon

L.Z.L. ELGETA

Maiatzaren 28ko osoko bilkuran onartu zituen Elgetako Udalak bi dirulaguntza lerro COVID-19ak eragindako kalteak arintzeko. Partidarik handiena -15.000 euro- merkatariei, ostalariei eta negozio txikiei bideratutakoa zen eta bigarrena -5.000 euro-, familien kontziliaziora.

Udaletik jakinarazi dutenez, sei eskaera jaso dituzte, guztiak ostalaritza eta komertzio txikiendako bideratutako lerrorako. Kontziliaziorako dirulaguntzetarako ez da eskaerarik jaso.

"Oraindik laguntzen dekretua onartu ez bada ere, aste honetan onartuko da", adierazi du udal idazkari Gotzon Goikoetxeak.

6.825 euro dirulaguntzetan

"Guztira, 15.000 euroko lerro horretatik 6.825 euro bideratuko dira laguntzetara. Dirulaguntza handiena 1.575 eurokoa litzateke eta txikiena, 800 eurokoa. Kontuan izan behar da jarduera horretan langileren bat kontratatuta zutenei laguntza ekonomiko handiagoa onartu zaiela", azaldu du Goikoetxeak.

'Dama beltzak' saioa, uztailaren 24an

Ella Fitzgerald, Nina Simone, Roberta Flack, Etta James eta Aretha Franklin ditu gogoan *Dama beltzak* ikuskizunak. Musikaren bitartez iraultza eta borroka egin zuten bost dama beltz horien bizitzak kontatu eta abestiak kantatuko dituzte Estitxu Pinatxok eta Mikel Santxezek. "Bortz emakume ausart hauek ahaztuta gera ez daitezke", azaldu dute.



Mikel Santxez eta Estitxu Pinatxo emanaldi batean. DAMA BELTZAK



Aukera zabala otorduetan Etorri eta disfrutatu!

- Eguneko platera
- Plater konbinatuak
- Entsaladak

- Bokatak
- Hanburgesak
- Errazioak

Eta asteburuetan, plater bereziak ere bai



Anna, Oñatiko senideekin batera, aurreko uda batean ateratako argazki batean. Z.G.

Ume ukrainarrak ez dira etorriko aurtengo udan

COVID-19 birusagatik bertan behera gelditu dira Ukrainako eta Saharako umeek uda Euskal Herrian pasatzeko programak. Penaz hartu dute albisteak ume ukrainarrak hartzen dituzten Oñatiko familietan ere, eta euren hutsunea nabaritutako dutela diote

Oihana Elortza OÑATI

Aurten, bertan behera gelditu da Txernobil Elkartearen udako programa, eta erabakia penaz hartu dute Oñatiko familiek. "Kolpe handia izan da. Elkarrekoak saiatu dira aurten ere umeak hona ekartzeko dena lotzen. Baiezkoa ere jaso genuen, umeak etorriko zirela. Baina handik egun pare batera, ezezkoa eman zuen Ukrainako Gobernuak, eta sekulako kolpea izan zen. Pena handia hartu dugu, etxeko kide dira eta", dio Ukrainako neskak bat zazpi aldiz etxean hartu duen Zorione Galdos herritarrek.

Harremanetan jarraitzen dute

Sentimendu bera dute Ainhoa Muruaren etxean ere. "Amak esaten zuen zaila izango zela umeak etortzea. Ni, ordea, baikor nengoen. Azken finean, euren osasunak hobera egitea da egitasmo honen helburua, eta koronabirusak ere eragin zuena du osasunean. Baina aurten-

go udan ez da posible izango", dio oñatiarrak.

Eta Oñatiko familietan beste-ko tristuraz jaso dute albisteak Ukrainako umeek. "Guk bi izan genituen iazko udan etxean, bi ahizpa, eta biek pena handia hartu dute, bai. Whatsapp bidez egoten gara eurekin, tarteka, eta laguntza ere bidaltzen diegu, baina eurak etxean jaso gura genituen", dio Muruak. Arropa eta janaria bidali dizkiete eta argazkiak jaso dituzte bueltan eskerrak emanez. "Ezer behar duten galdetuz gero ondo dautela erantzuten digute, ez dutela ezeren beharrik. Baina izugarri eskertzen dute hemendik bidaltako laguntza guztia", azaldu du Ainhoa Muruak.

65 EUROKO LAGUNTZAK BIDALTZEN HASI DIRA, HANGO DENDETAN ERABILTZEKO

Janaria eta arropa

Zorione Galdosek adierazi duenez, han lehenago hartu zituzten neurriak eta badirudi hango auzoetara ez dela oraindik COVID-19a iritsi, "baina baliabide gutxiago eta bizi baldintza eskasagoak dituzte eta egoera okerragoa izan daiteke birusa zabaltzen hasten denean".

Bitartean, eta umeak ahalik eta azkarren ikusteko gogoz, laguntza ari dira bidaltzen. Txernobil Elkartearen bidez janaria bidaltzen diete udan hona etortzen diren umei; 14.000 euro pasako laguntza bidali dute krisia hasi zenetik. "65 euroko erosketak izaten dira. Hango supermerkatuan erosten dituzte produktuak eta etxera eramaten dizkiete. Horrez gain, arropak ere bidaltzen dizkiegu, esaterako. EAEko hiru hiriburretan dago hori kudeatzen duen enpresa errusiar bat, eta haren bitartez egiten dugu gehienok; etxeraino eramaten dizkiete paketeak", azaldu du Galdosek.

Abuztuaren 1era luzatu dute ingurumen bekarako epea

Gutxiegi erabili edo utzita dauden nekazaritza-lurren azterketa eta ekintzarako aukerak aztertzea da gaia

O.E. OÑATI

Berez, maiatzean amaitzen zen ingurumen bekarako proposamenak jasotzeko epea, baina, koronabirusak eragindako eten administratiboak direla eta, epea abuztuaren 1era luzatzea erabaki du Udalak.

Gutxiegi erabili edo utzita dauden nekazaritza-lurren azterketa eta ekintzarako aukerak aztertzea da ikerketa beka honen helburua. Zehazki, Udalaren ondare-lursailen zein gutxiegi erabili edo utzita dauden nekazaritza-lurren azterketa eta

ekintzarako aukerak landuko dituzten ikerketa proposamenak eskatzen dira; betiere, nekazaritzaren zein abeltzaintzaren izaera multifuntzionala eusteko helburuarekin.

Lana taldeko edo bakarka egin daiteke, eta, kasu guztietan, egin nahi den lanaren proposamen txostena aurkeztu behar da udal bulegoetan. Abuztuaren 1a da horretarako azken eguna; lana bukatu eta aurkezteko data, berriaz, 2021eko martxoaren 31. Beka 12.000 eurokoa da eta hiru zatitan ordainduko dute.

Eserlekuak falta dira

Olabarrietan, Aiausti baserriaren ondoan, jarri duten komuna prest dago. Iturria ere jarri dute eta ingurua txukundu. Atsedena hartzeko eserlekuak jartzea bakarrik falta da, eta horiek ekartzen dituztenean egongo da erabilgarri Olabarrieta eta Murgia artean jarri duten komuna. Partaidetzako aurrekontuetan herritarrek egindako eskaera da.



O.E.

GORA ETA BEHERA



A.A.

Jaso gabe gelditu dira globoak iturri ondoan

Umeek maite dute koloretako globoak urez bete eta horiekin jolastea. Baina horrelakoetan lurtean gelditzen diren globoak jasotzea eskatu du irakurle batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



Ehunka herritar Foruen plazan egindako elkarretaratzean pankartak eta banderak eskuetan dituztela. MAIDER ARREGI

Herritarrek esan dute ez dutela "faxistarik" gura

Vox alderdi ultrasarduak astean egin duen ekitaldi ingurura ez joanda eta pankartak eta banderak hartuta parez pare erantzun diote herritarrek. Dama Beltzak taldeak Lazarragan egin behar zuen kontzertua hilaren 23ra atzeratu du Udalak

Oihana Elortza OÑATI

Oñatin "faxistak" ez direla ongetorriak esan dute astean herritarrek, Vox alderdi eskuindarreko ordezkariak agerraldia egingo zutela iragarri zutenetik. Batzuk, inor ez bertaratzeke deiaaren aldekoak: "Ez dago jaramonik ez egitea baino mespretxu handiagorik"; beste batzuek, aldiz, euren parean jarri eta *Gora Oñati Antifaxista* lelopean elkarretaratzea deitu zuten Foruen plazan, alderdi horren "agerraldia salatzeke". Jende asko batu zen plazan. Ertzaintzaren segurtasun neurri sendoek herritarrak eta Voxeko ordezkariak bananduta mantendu zituzten eta ez zen arazorik izan.

Dama Beltzak, atzeratuta

Joan den domean Macarena Olona diputatuak Twitter bidez jakinarazi zuen Oñatin agerraldia egingo zutela, "hemen Guardia Zibilak urtero jasaten duen *escrache*-aren harira, babesa adieraztera". Bergarako epaitegian

agerraldiko deialdia erregistratu eta hauteskunde-batzordeak onartu egin zuela ikusita, Oñatiko Udalak helegitea aurkeztu zuen hainbat arrazoiengatik; tartean, Lazarragako kontzertua. "Ekitaldia agenda kulturalaren barruan zegoen programatuta eta erabaki genuen helegitea jartzea Bergarako epaitegian, berandu zetorren eskari bat zela ere esanez. Telefonoz jaso genuen ezezkoa eta orduan Gipuzkoako hauteskunde-batzarreko presidenteari aurkeztu genion helegitea. Haren erantzuna idatziz jaso dugu esanez Bergarakoak duela hemengo ahalmena eta geure ardura dela kontzertu hori tokiz aldatzea. Taldeko kideekin berba egin genuen eta kontzertua

MULTZO BIEN ARTEKO GUNEA, GERNIKAKO ARBOLA INGURUA, ZINTAZ HESITU ZUEN ERTZAINZAK

hilaren 23ra atzeratzea erabaki genuen, artistei ere zor diegulari horrenbesteko errespetua, jakinda alderdi horretakoak zertara zetozen", azaldu du Kulturako batzordeburuak, Iñaki Olalde. Udal Gobernu taldeak probokazioetan ez erortzeko dei egin zien herritarrei.

21:00ak arte

Javier Ortega Smith alderdiko buruzagiak eta Macarena Olona Espainiako Kongresuko diputatuak hartu zuten hitza plazako frontoian eta gogoan izan zituzten Oñatiko Guardia Zibila eta euren familiak. Ordubete inguruko mitina bukatuta, udalerrian jarraitu zuten 21:00ak bitartean, eta berdin elkarretaratzearekin bat egindako herritarrek ere. Segurtasun neurri handiekin, Ertzaintzak zainduta egon zen ingurua. Multzo bien arteko gunea, Gernikako arbolako ingurua, zintaz hesitu zuten, istiluak saihesteko. Frontoia "desinfektatu" zuten gero herritar batzuek.



Igerilari bat igerian. GOIENA

Hasi ditu entrenamenduak Aloña Mendiko igeriketa taldeak

Datorren denboraldiari begira jarritako entrenamenduak hasi dira egiten hogeitaz igerilari Bergarako igerilekuan

O.E. OÑATI

Kirol jarduna eten zenetik, konfinamendutik aurreko astera arte, ez dira geldi egon Aloña Mendiko igerilariak. Entrenamendu saioak egin dituzte, baina lehorrean izan dira ariketa gehienak. "Sekulako gogoan genuen uretan sartzeko, eta itsasora joaten hasi ginen, han igeri egiteko. Joan den astetik, baina, Bergarako igerilekura ari gara joaten", dio entrenatzaileak, Josune Odriozolak.

Aloña Mendiko hogeitaz igerilari doaz, egunero, hara. "Iluntzeetan egiten ditugu entrena-

mentuak. Egoerara baldintzatutako moduan antolatuta dute hango jarduna ere; 50 minutuko bi saio ditugu guk, egunero, eta bi kale saio bakoitzerako", zehaztu du Odriozolak.

Denboraldi berrira begira

Entrenamendu teknikoekin hasi direla esan du Odriozolak, eta "uste baino askoz hobeto" daukela igerilariak gaineratu. Aurtengo itsas zeharkaldiak bertan behera gelditu dira eta zuzenean datorren denboraldiari begira hasi dira lanean. Hilabete osoan entrenatuko dira.



NIRE USTEZ

ONEKA ANDUAGA

Neutraltasuna

Voxekoak herrira datozela entzun eta denbora gutxira sare sozialetan lehenengo aldarria: kasurik ez egiteko. Denok dakigu probokatzera datozela, eta bila dabilzan argazki hori ez emateko; normaltasunez jokatzeko. Bada, ez, faxismoa ez da normalizatu beharreko zerbait, erantzun beharrekoa baizik.

Euskal Herriko beste herri batzuek irakatsi bezala, erantzun mota ezberdinak daude eta herri bakoitzak, kolektiboki, erabaki beharko du zein den egokiena beretzat. Honekin ez dut esan nahi konfrontazio zuzena egon behar denik; baina izan mitinari boikota edo izan ondoko plazan elkarretaratze bat antolatzea, faxismoaren aurrean gaitzespena adierazi behar da.

Izan ere, "kasurik ez" egite horren atzean bada faxismoaren normalizazio puntu bat, gizarte demokratiko batean ulergaitza dena. Normaltasuna neutraltasunetik gertuegi dago eta eskuin muturrak horrenbeste indar hartu duen honetan ezin dugu onartu neutrala izaterik.

Normaltasun berriko lehen auzoko jaiak datoz

Trianako jai batzordeak auzoko jaiak antolatu ditu astebururako, "Eusko Jaurlaritzaren dekretuak jasotzen dituen neurriak kontuan hartuta". Arduraz jokatu ezean antolatu dituzten ekitaldiak bertan behera geldituko direla ere esan du

Oihana Elortza OÑATI

Asteburuan ospatuko dituzte Triana auzoko jaiak. Horren aldeko apustua egin du jai batzordeak, eta Eusko Jaurlaritzaren dekretua aztertuta egin dute proposamena jaiak ospatzeko. "Adibidez, Potx eta Lotxen ikuskizuna eserlekuak jarrita izango da, hartu beharreko segurtasun tarteak hartuta jarriko dira eserleku horiek eta edukiera egongo da. Txosna ere egongo da, bai, baina dekretuak ostalaritzako establezimenduek edo tabernek terrazak jartzeko dituzten neurriak beteta izango da, ordutegia barne. Artisau azoka egiteko ere dekretuak jasotzen dituen neurriak hartuko dira kontuan", dio jai batzordeak.

Jai batzordea eta Udala

Konfinamenduaren osteko lehen jaiak izango dira Trianakoak Oñatin, "horrek dakarrenarekin". Jai batzordekoek argi ikusten dute egoera berria izan arren

"aurrera jarraitzea ere garrantzitsua dela". Hala ere, jakitun dira "ardura handiko erabakia" izan dela jaiak antolatzea. "Herriarregan konfiantza osoa dugu batzordetik. Hori dela eta, errespetuz eta arduraz jokatzeko eskatzen dizuegu guztioi, guk ere hala egingo dugu, eta hori lortzeko lanean aritu gara azken hilabeteotan. Arduraz jokatzeko ez bada, jaietarako antolatutako ekintzak bertan behera geldituko dira. Azalpen horiek guztiak eta hartuko dituzten neurriak jasotzen dituen idatzia atera du asteen jai batzordeak, herriarrei azaltzeko euren asmoa zein den.

Iñaki Olalde Kultura batzordeburuak Udal Gobernuaren izenean sinatzen duen idatziak

DEKRETUA BETEKO DEN HITZARMEN BAT EGIN DUTE BATZORDEAK ETA UDALAK

dio egingo diren "ekitaldi guztien nondik norakoak txosten batean jasota" eraman dituela bilerara jai batzordeak: "Egitaraua osorik, protokolo orokorra, ekintza bakoitzeko protokoloa eta edukiera, edukieraren planoak, tabernaren funtzionamendua –terrazza formatua–, tabernaren ordutegia, hesiekin mugatutako neurriak, eta abar, eta abar. Hori guztia posible egiteko udal baliabideen zerrenda ere landu dute, eta halaxe jaso da eskaera Udalean". Eusko Jaurlaritzaren dekretuak jasotzen duena Udalak antolatzen dituen ekitaldietarako bakarrik balio ote duen galdetzen du idatzian Olalde, eta ezberdintasunik ez dagoela gaineratu.

Artistak, pozik

Josu Zubia artistak, adibidez, "pozik" jaso du Trianako jaiak ospatzeko erabakia: "Etixeratzen lehenak izan ginen, eta azkenak kalera ateratzen. Neurriak hartuta, posible da".

Esteban Urzelaik zuzenduko du Oviedoko Operaren abesbatza

Uztail amaieran batuko da oñatiarra entseguetara, eta, momentuz, "hilabete batzuetarako" izango dela dio

M.S. OÑATI

2007az geroztik Donostiako Orfeoiko zuzendariordea izan da oñatiarra, eta, aurrerantzean, Oviedoko Operaren abesbatza zuzenduko du. Hala, Suediako Malmoko Operako abesbatzako zuzendari izendatu duten Elena Mitrevska ordezkatzeko du.

Ganbara Abesbatzarekin hasi zuen ibilbidea zuzendaritzan Urzelaik; 1996tik 2009ra bitartean aritu zen bertan eta hainbat sari jaso zituen; horien artean, Abesbatzen Sari Nagusia, 2004an.



Esteban Urzelai. E.U.

Erronka, "ilusioz"

"Ilusio handiarekin nago, gogotsu esperientzia berria hasteko. Abesbatzen munduan urte asko egin ditut, baina egia da antzez-tutako operan ez dudala lanik egin", azaldu du Urzelaik. Gaineratu duenez, "momentuz", hilabete batzuetarako izango da

Oviedoko Operako abesbatzako zuzendari: "Sei opera zuzenduko ditut, denera". Abesbatzako arduradun izateaz gain, orkestrako zuzendariaren laguntzailea ere izango da. "Lana lepo izango dut, baina gogoz hartzen dudan erronka da", aitortu du.

'Martizinema'-ri ekin diote berriro ere Antixena gaztetxean

Uztailarekin batera, *Martizinema* egitasmoa egiteari ekin diote berriro. Hain zuzen, aste honetan eskaini dute lehen zinema emanaldia, Antixeneko gaztetxean. Gauzak horrela, uztaileko martitzen guztietarako film ezberdin baten proiektzioa antolatu dute gaztetxetik. Adierazi dutenez, 22:00etan hasiko dira emankizun guztiak.

Joan den martitzenean, *The Blues Brothers* filma ikusteko aukera izan zuten gaztetxera gerturatu zirenek, film horrek ireki baitzuen egitaraua. Datorren martitzenean, Alba Sotorraren *Arian Komandantea* filma eskainiko dute. Uztailaren 21ean, bestalde, Jon Garañok eta Jose Maria Goenagak ekoiztutako *80 Egunean* ikusi ahal izango da. Azkenik, uztailearen 28an, Paul Urkijoren *Errementari* filmak itxiko du *Martizinema* egitasmoaren denboraldia.

Giltzapeko altxorrek ezagutzeko bisita gidatua, bihar

Bihar, zapatua, *Oñati, Giltzapeko altxorrek* izeneko bisita gidatua egingo dute; herriko monumentu garrantzitsuenetan ezkutuan dauden altxorrek ezagutzeko aukera eskainiko dute era horretan. Debagoieneko Mankomunitateak antolatu du irteera.

Sancti Spiritus unibertsitatea eta San Migel parrokia bisitatu dituzte; besteak beste, krip-

ta, erretroula eta Errenazimentu garaiko klaustroa ezagutzeko aukera izango da bisitan zehar. Adierazi dutenez, ezkutuko altxorrek "aho zabalik" utziko dituzte bisitariak.

Bi bisita egongo dira egunean zehar: 13:00etan eta 17:00etan. Pertsona kopurua mugatuta dagoenez gero, irteerara joan gura duenak aurrez erreserbatu beharko du lekua, 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefonoetara deituta edota turismo@debagoiena.eus helbidera mezua idatzita.



Kalegoienako plazan izango dira ekitaldiak, hartu beharreko neurriak hartuta eta edukiera zainduta. ARGAZKIJABEAXXX

M. Bikuña / X. Urzelai BERGARA

Aspaldian izan ez dituen giharretako minak izan ditu Beñat Rezustak frontoira itzuli denean, eta eskuetan ere igarri du konfinamendu sasoia. Normala da, pilotari guztiak –eta eliteko kirolariak– ari dira prozesu bereetik pasatzen. Baina bigarren jardunaldirako atzean utzi ditu minak, eta sentsazio onak ditu. Batzuei besteei baino gehiago kostako zaie lehengo joko errit-mora bueltatzea. Oraingoan, Beñat Rezustak eta Iñaki Artolak Master Caixabanken ligaxkak bi partiduak irabazi dituzte.

Zer moduz zaude, Beñat?

Egia esateko, ondo nago. Txapelketa berri baten hasieran gaude, bi jardunaldi baino ez ditugu jokatu, baina ondo gaude. Egia da aurretik ere hainbat entrenamendu saio egin ditugula, eta hasieran igarri genuela geldirik egon izana: eskuko mina... giharretakoa... Baina bi jardunaldi jokatu eta sentsazio onak ditugu, eta minik ez. Garrantzitsua da hori.

Konfinamendu sasoian aitortu diguzu garajea ibili zarela pilotan.

Bai, baina ez da nahikoa. Leku txikia da pilotan egiteko, bakkrik zaude... Pilotarekin kontaktua ez galtzeko balio du, baina askoz gehiagorako ez. Frontoietara itzuli ginenean sumatu genuen beste kolpe bat geneukala.

Frontoietako harmailak hutsik zaudela hasi zineten, eta orain, jende kopurua zainduta, baina jendea hasi da pilotalekuetara gerturatzen.

Hasieran normala da jendeak zalantzak izatea, baina uste dut pilotalekuetan gauzak ondo egingen dabilzela, segurtasun neurri guztiak zaintzen dabilzela, eta horrek laguntzen du normaltasun berri honetara ohitzen. Jendea ikusten dabil frontoira etortzea segurua dela, eta nik uste dut geroago eta herri gehiago animatuko direla jaialdiak kontratatzeraz.

Eskuz Binako Txapelketa bete-betean harrapatu zuen alarma egoerak. Zertan geratuko da txapelketa hori?

Hasiera batean, udazkenean helduko diote osterara ere txapelketa horri, hori da dakiguna. Baina pilotarioi ere ez digute askoz ere gehiagorik aurreratu. Master Caixabank izeneko txapelketan diharduzue orain.

Bai; udara begira antolatzen duten txapelketa berri bat da, eta txapel-

"Poliki-poliki, jendea badabil frontoietara gerturatzen"

BEÑAT REZUSTA ASPEKO PILOTARIA

PILOTA Master Caixabank txapelketako bi jardunaldi jokatu, Beñat Rezusta eta Iñaki Artola lider daude sailkapenean. Erritmoa hartzea da lehenengo helburua



Beñat Rezusta, aste barruan Bergaran. MIREIA BIKUÑA

pelketa luzea da. Gauza positiboa da, batetik, lehengo erritmoa hartzeko partiduak behar ditugulako, eta, bestetik, uda delako guretako sasoirik garrantzitsuetakoa. Abuztuaren eta irailean, normalean, partidu mordoa jokatzen ditugu, hiru egunetik behin partidua izaten dugu, eta horri eustea garrantzitsua da. Egia da aurtengo udan jaialdi kopurua dezentetik jaitsiko dela, baina torneo honek, neurri batean, normaltasuna ekarriko digu. Hamalau jardunaldi dira, astero-astero partiduak izango ditugu, eta hori garrantzitsua da guretako. Duela aste gutxi zelan geunden ikusita, ez dugu keharako motiborik.

Erritmoa hartzen joan bai, baina torneo ofiziala da.

Zalantza barik, Master Caixabank Txapelketa ofiziala den neurrian, behin jokatzen hasita, denok nahi dugu aurrean ibili.

Txapelketa honekin batera udan herriko jaietan izaten dituzue jaialdi asko. Eta jaiak bertan behera geratzeak zuei ere bete-betean eragiten dizue.

Bai, herri batzuetan bertan behera utzi dituzte jai egitarauak,

"UDAN BESTETAN BAINO GUTXIAGO JOKATUKO DUGU, BAINA EZ GAUDE KEXATZEKO MODUAN"

beste batzuetan badabilzta pilota partiduak antolatzen. Nik uste dut jendeak zalantza handiak izan dituela gauzak antolatzeko orduan, baina, poliki-poliki, badabilzta ikusten besteek zelan egingen dituzten gauzak, zelan antolatu daitezkeen, esaterako, pilota jaialdiak segurtasun neurriak hartuta, eta pentsatu gura dut normaltasunera itzultzen joango garela. Jende kopuru mugatuarekin, maskara jantzita, baina geroago eta partidu gehiago antolatzen dituztela ikusiko dugu.

Ohiko egutegia kontuan izanda, ondoren etorriko dira lau eta erdiko txapelketa eta buruz burukoa. Baina egutegiak ez du denendako tokirik.

Esango nuke beste urte batzuetakoak baino torneo laburragoak izan beharko direla. Urteak 365 egun ditu, eta, seguruenik, denboraldi hau hurrengoarekin batuko da. Ez dakit txapelketa guztiak jokatzeke tarterik egongo den; seguruenik, urte amaieran pilatu egingo dira torneoak. Jokatzekeotan, laburragoak izan beharko dute.

Hau guztia, jakinda, egun batetik bestera gauzak asko alda daitezkeela.

Egunotan ikusten gabilzta komunikabideetan zelan tentuz jarraitu behar dugun, eta egoera berrira egokitu egin beharko dugula. Merezki du segurtasun neurriak hartzea, lehengo egoerara itzul ez gaitezen.

Artolarekin batera lider

Beñat Rezustak eta Iñaki Artolak oso sasoi puntu ona erakutsi dute frontoira itzuli berri. Ekainaren 26ko Bilboko jaialdian, 14-22 irabazi zieten Urrutikoetxeari eta Irribarriari; domekan, berriz, Labriten 16-22 hartu zituzten mendean Olaizola II.a eta Zabaleta. Hala, puntako kontrarioen kontra lortutako bi garaipen horiek esker lehenengo postuan kokatu dira Master Caixabank txapelketan. Tolosan dute hurrengo hitzordua, uztailaren 13an.



Amillena taldeko kide Jon Iriarte, Urkulu gainean hegan, Kurtzebarritik salto eginda. XABIER URZELAI

Kurtzebarrira joan-etorri azkarra hilaren 18an

PARAPENTEA Euskal Herriko Oinez eta Hegan txapelketaren hirugarren edizioa egingo dute uztailaren 18an Aretxabaletan. Orain arteko proba gogorrena izango da: pilotuek Kurtzebarritaino (1.112 metro) igo beharko dute, eta gero, herrira itzuli

Xabier Urzelai ARRASATE

Debagoieneko Amillena parapente taldeak eta Euskal Aire Kirol Federazioak elkarlanean antolatu duten hitzorduak arrakasta polita izan du. "Orain arte egindako proben artetik Aretxabaletakoa izango da gogorrena. Orain artekoetan gainditu beharreko desnibela ez zen horren handia; horregatik, uste genuen

bestetan baino jende gutxiago animatuko zela. Eta alderantzizkoa gertatu da, uztailaren 18an ia 18 lagun batuko dira irteera puntuan", dio antolaketa taldeko Aritz Oiangurennek.

Txapelketa hori lehenengoz egingo dute Debagoienean, nahiz eta lehenago ere halako lasterketak egin izan dituzten bailaran: "Gogoan dut Aloñako Igoerako

edizio batzuetan parapenteko lasterketak ere egin izan dituztela. Egun, Oñatiko lasterketak ibilbide luzea du, baina lehenago Aloñara igo eta jaitsi egiten ziren mendi lasterkariak, eta orduan, parapente pilotuek Urtiagainen hasten zuten lasterketa, eta ondoren, parte hartzaileak Belarren hasten ziren beherantz hegan".

Erlojupekoaren gaineko teknifikazio saioa Oñatin

TXIRRINDULARITZA Gipuzkoako Federazioak antolatuta, berbaldia egin zuten Oñatin eguaztenean

X.U. ARRASATE

Datorren uztailaren 27an egingo dute, Aizarnazabalen, Gipuzkoako erlojupeko txapelketa –junior eta senior kategorietan–, eta, seguruenik, hitzordu horretara begira eguaztenean Oñatin

batu ziren ziklistetako batek baino gehiagok ikasgai onak jasoko zituen. Izan ere, Gipuzkoako Federazioak antolatuta, erlojupekoaren gaineko teknifikazio saioa egin zuten; izan ere, hori da ziklismoan dagoen

diziplinarik zailena; eta, jende kopurua eta segurtasun neurriak zainduta, Oñatiko Kultur etxea bete egin zen berbaldia bertatik bertara jarraitzeko.

Teknikazio saioan parte hartu zuten Astanako ingeniari Ivan Velasco ziklista ohiak –arrasatearrari egokitu zitzaion arlo teknikoaren gainean berba egitea–, Gorka Agirrek eta ziklismoko epaile Unai de Miguelek. Berbaldia entzuteko derri gorra zen txirrindularitzan federatuta egotea.

Gorako ibilbidea, libre

Uztailaren 18an egingo duten lasterketan, parapente pilotuek Kurtzebarritaino igo beharko dute, eta han probako lehenengo kontrola pasa beharko dute –beste hainbat kontrol izango dituzte ibilbidean zehar–. "Seguruenik, lasterketa korrika hasiko dute denek, sikiera herri barruko lehenengo metroak egiteko, baina gero, gutxi batzuek egingo dute behetik gorako bide gehiena korrika", dio, umorez, Aritz Oiangurennek. Hala, lasterketara begira antolatzaileek ez dute ibilbiderik zehaztuko. "Hori estrategiaren parte ere bada. Urkulun gora egiten duenak bide motza izango du, baina malda gogorra izango du zain; kontrara, ohiko bidea aukeratzeko duenak bide luzeagoa egin beharko du", dio Oiangurennek. "Bakoitzaren esku dago bidea aukeratzeko".

Ia 900 metroko desnibela

Hala, hilaren 18an egin beharreko lana ez da makala izango: parte-hartzaileek Aretxabaletatik Kurtzebarritaino igo beharko dute –norberak aukeratu du ibilbidea– eta handik pilotuak Otala Zelairaino jaitsi beharko dira hegan. "Hegan dabiltzan bitartean ere pilotuek ibilbide konkretu bat bete beharko dute, puntu konkretu batzuetatik igaroz, eta lur hartu eta gero material guztia batu eta Aretxabaletaraino jaitsi beharko dute: batzuk oinez joango dira, eta azkarrenak korrika. Hala, badira bizpahiru lagun oso sasoi onean daudenak; horiek ahaleginduko dira goraino korrika joaten, eta gainontzekoek beste martxa baten egingo dute behetik gorako bidea".

Izan ere, parapente pilotuak ez daude horren ohituta halako lasterketak egitera; hau da, ez dira mendi lasterkariak: "Badira oso gorputzaldi onean daudenak, mendian asko ibiltzen direnak eta ekipo oso arinekin, halako hegaldiak bilatzen dituztenak. Baina parapente horiek ezaugarri konkretuak izaten dituzte, eta gehienek ekipo pisutsuagoak era-

mango dituzte bizkarrean. Batez beste, 15 kiloko motxila eramango dute aldean". Izan ere, parapentearekin batera jarlekua bera, kaskoa, lokalizazio gailuak... Materiala pilatu egiten da eta aukeraketa egokia egitea ezin bestekoa da.

Eguraldiaren menpe

Antolatzaileen asmoa da goizean egitea lasterketa, baina parapentean ibiltzeko baldintza meteorologiko konkretuak behar dituzte, eta oraindik goiz da iragarpen zehatzak egiteko: "Aurreikuspenak askorik aldatzen ez badira, asmoa da lasterketa 11:30 aldera hastea. Eta ikusteko dago herriko plazan edo Portasolaren hasiko dugun lasterketa, asteburu horretan auzo horretako jaiak ere badira eta. Detalle horiek astean zehaztuko ditugu, badugu horretarako denbora".

HEGAN DABILTZAN BITARTEAN PILOTUEK PUNTU KONKRETU BATZUETATIK PASA BEHARKO DUTE

FUTBOLA Gaur, UDAk batzarra; Bergarak, uztailaren 17an

Gaur, uztailak 10, ohiko batzar orokorra egingo du UDAk. Arkipen izango da hitzordua, 18:30ean, eta 2019-2020 denboraldiko errepasoa egitearekin batera 2020-2021 denboraldia aurkeztuko dute. Bestalde, Bergara Kirol Elkartek uztailaren 17an egingo du batzar orokorra, Irizar jauregian, 18:30ean.

PILOTA Abian da Laboral Kutxako Uda Torneo

Laboral Kutxako Uda Torneo-ko talde guztiak abian daude dagoeneko. Atzo iluntzean ziren jokatzekoak bigarren jardunaldiko partiduetan, eta torneoko lehenengo partidua zen Arrate Bergararendako. Bergararrak Iera Agirrerekin eta Amaia Aldairekin osatzen du taldea, eta Mikel Inuntziagaren aginduetara daude.

"Zumetak zuen indarra agerian uzten du obrak"

INÍGO ARREGI ESKULTOREA

Bartzelonako Victor Lope Arte Garaikidea galerian du 'Planoak ordenatzen espazioan' erakusketa Arrasateko eskultoreak ikusgai, ekainaren 18tik irailaren 10era bitartean

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

14 urterekin hasi zen artea lantzen eta harrezkero ibilbide luzea egin du, pausoz pauso eta nahiko isilik. Euskal arte garaikidearen bigarren belaunaldian kokatzen dute arte-adituek, eta "erreferentziatzko eskultorea" da Inígo Arregi.

Bartzelonako Victor Lope Arte Garaikidea galerian duzu bilduma berria. Pozik?

Harreman handia dut eurekin, galeria askorekin egiten dut lan, baina hau da niretzako garrantzitsuenak; oso pozik nago. Galeria honetan hirugarrena dut; era berean, Europako toki askotan izan naiz euren bitartez, Alemanian, Suitzan, Suedian, Turkian, Londresen... Izen handia dauka galeriak, bereziki, asko mugitzen direlako eta bul-tzatzen dituzten artista gehienak gazteak direlako; zaharrena naiz ni han, eta konnotazio hori oso garrantzitsua da niretzat.

Zenbat piezatako bilduma da?

Guztira, hamazortzi obra daude: Korten altzairuzko hamar eskultura txiki eta egurrean egindako handiago bat, eta zazpi erliebe; horman zintzilikatuta dauden eskulturak dira erliebeak, kartoian egindakoak.

Zumetaren omenez egin zenuen eskultura da obra nagusia. Zelakoa?



Eskultorea, Bartzelonako erakusketan duen Zumetaren omenezko obrarekin. I. A.

Gorritz margotutako egurrezkoa da, eta bi metro ditu. Hil zen egunean egin nuen; haren heriotzaren berri izan nuenean, lokalera joan eta beroan egindakoa da. Lagun handia eta maisua izan da niretzako Jose Luis; nire artista erreferentea nor den galdetzen didatenean hura aipatzen dut beti. Harekin ikasi nuen artista izatearen esanahia. Oso pertsona inportantea izan da nire bizitzan, eta omenaldi pertsonala egin gura izan diot; Zumetak zuen indarra agerian uzten du obrak.

Beste piezekin loturarik badu?

Nire diskurtsoaren barruan kokatzen dira guztiak; hortaz, estetika aldetik lotura dute, baina ez bestelakorik. Egin dudazkeneko obra da Zumetarena; besteak azken hiru urteetakoak dira. Zein momentutan nagoen erakustea da Bartzelonako bildumaren asmoa. Kartoizko erliebeak eraman ditut hara, eta orain, beste serie batzuk egiten ari naiz, argazkiak manipulatu eta arkatzarekin landutakoak, baina prozesuan nago oraindik eta ez ditut erakusteko moduan.

Nola azalduko zenuke zein den zure obren diskurtsoa?

Zaila egiten zait azalpen zehatz bat ematea; esango nuke nire obrekin atmosfera bat sortzen dudala, eta gero, bakoitzak bere erara interpretatzen duela. Orain dela urte batzuk, kritiko batzuek *bertikaltasunaren artista* deitzen zidaten, obra gehienak halakoak zirelako, baina geroago, beste etapa batzuk izan ditut, obra horizontalak ere egin ditudan. Bolumenen arteko orekarekin jokutzen dut, hutsuneari ere garrantzia emanda. Planoekin egiten ditut lan guztiak eta puzzle bat bezala muntatuta daude gero. Tamaina handikoak izateko bokazioa dute nire obra gehienek, eta askotan esaten dut nire obrei teilatu bat ipiniz gero etxebizitza bihurtzen direla. Material ezberdinak erabiltzen ditut –marmola, egurra, brontzea...–, baina burdina, korten altzairua, da, bereziki, nire patentea, Euskal Herriarekin konnotazioa duelako. Askotan esaten didate igartzen dela euskal artista bat naizela.

Euskal arte garaikidearen bigarren belaunaldian kokatzen zaituzte adituek; bat zatoz?

Bai; hala da. Oteiza, Basterretxea, Txillida... horien guztien ondorengoak gara nire ingurukoak, eta nahiko ezkutuan edo itzalean egon gara. Adituek diote horien jarraipena egin dugula eta gurekin bukatzen dela joera hori; guk ditugun ezaugarri zehatz batzuk aurreko belaunaldien marka esanguratsuak dira. Tes-tuingurua aldatu egin da gaur egun; artista asko daude, baina zaila da identifikatzea nongoak diren, globalizatuagoa dago orain dena. Oso artista interesgarriak ari dira sortzen, beste tresna batzuk erabiltzen dituzte, gaur

egungo bizimoduarekin duten lotura argi erakusten dute. Denok ikasten dugu elkarrengandik; artea prozesua bat da, etengabe aldatuaz doana.

Ez zara Bartzelonan izan oraindik, baina zer feedbackik jaso duzu?

Galeriakoak pozik daude, egunero nago eurekin harremanetan. Ari da jendea joaten, baina edukiera mugatua dago, aurrez txanda hartu behar da, eta egoera ez da erraza.

COVID-19ak zertan aldatu du erakusketak egiteko modua?

Azken urteetan, orokorrean, ez da lehen beste jende hurbiltzen aretoetara eta galeria asko itxi egin behar izan dituzte. Gale-rista guztiek diote betirako aldatu dela egoera, eta erakusketak birtualak egitea da orain galeria gehienek apustua.

Artista baten ikuspegitik irtenbide aproposa da hori?

Erakusketa birtualek aretoetara hurbiltzeko bidea zabaltzen dute, baina, nire ustez, obrak ez badira ukitzen balioa galtzen dute, ez dakizu ze pisu duen, materiala ukitzearen sentsazio-rik ez duzu... Egoera triste da. **Enkargu pribatu asko jasotzen dituzu; nondik azkenak?**

Otsailean jarri nuen Malagako enpresa baten ate itxura duen obra handi bat, COVID-19aren eraginez inauguratu barik dagoena; eta datorren astean Madrilen beste bat jartzeko asmoa dut. Frantziatik iturri bat duen eskultura bat egiteko eskatu zidaten, eta horrekin ari naiz.

"ERAKUSKETA BIRTUALAK EGITEA DA GAUR EGUN ARTE GALERIA ASKOK DUTEN APUSTUA"



HIRIGINTZA, HOBETO BIZITZEKO HERRIAK

'GOIENA: 20 URTE, 20 ALBISTE' ERREPORTAJE-SORTA

GOIENA TELEBISTA

UZTAILAREN 10EAN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN

goiena
20 URTE ZUEKIN.



Keu Agirretxearen 'Ura eta bakea', zuzenean

Musikari bizkaitarrak abenduan kaleratu zuen lana aurkeztuko du uztailaren 15ean Aldai plazan, 19:30ean, puntako hiru musikari agertokian lagun dituela; edukiera mugatua dago, eta sarrerek aurrez hartu behar dira Amaia antzokian

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Iazko Durangoko Azokan argitaratu zuen *Keu Agirretxeak Airaka diskoetxearekin Ura eta bakea* izeneko bakarkako bederatzigarren lana. "Zuzenean aurkezten hasi ginen, eta hala eskaini genituen Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan hainbat kontzertu, baina itxialdiaren eraginez dena geratu zen eta aste honetan berrabiaraziko dugu aurkezpen-bira. Formatu ezberdinetan aurkezten ari gara, binaka eta akustikoan batzuetan, eta talde formatuan beste hainbatetan. Arrasatekoa berezia da niretzako, sarritan izan naiz han jotzen eta gustuko dut, eta, gainera, aspaldiko partez berriz ere laurak elkartzeko aukera izango dugulako. Azkeneko lana aurkeztea da asmoa eta aurreko lanetako abestiak ere tartekatuko ditugu", azaldu du *Keu Agirretxeak*.

Gitarrak eta ahotsa oinarrian

Etxean grabatu zuen eta Bartzelonako North Waves estudioko Jon Badiolarekin nahastu zuen gero. "Soinu iturri bakarra gitarra eta ahotsa dira; kolore askotako gitarrek daude, eta, nahiz eta perkusio instrumenturik ez egon, disko erritmikoa da. Freskoa da; ez du patroir

bakarreko estiloa jarraitzen, folk, pop eta rock ukituak topa daitezke. Hitzak denetarikoak dira, gustuko ditudan idazleen liburuetan oinarritutakoak; besteak beste, Xabier Aldekoarenak eta Mikel Aiestaranenak".

**PABLO NOVOA,
HAIMAR AREJITA ETA
MIKEL ARAKISTAIN
IZANGO DITU ALBOAN
ARRASATEKOAN**

"Luxuzko" laukote formatuan
Aspaldiko partez elkartuko da laukotea Arrasaten. "Mikel Arakistain betiko bidelaguna dut, Gatibuko Haimar Arejita ere aspaldiko laguna da, eta Pablo Novoarekin ere hainbatetan jo izan dut azkenaldian. Oso aberasgarriak dira niretzako".

Sarrerak, aurrez, antzokian
Aurrez gonbidapena eskuratu behar da Amaia antzokian: astelehenetik eguenera, 18:00etatik 20:00etara; banatzen ez direnak ikuskizunean banatuko dituzte.



lazko urrian Ondarroako Marabilli jaialdian egin zuten kontzertua. BEGIPUNTUAN

Xabi Solano, Usaetxen, arrakastaz

Idoia Asurmedik pianoa eta gitarra lagun zituela zabaldu zuen kontzertua lepo bete zen Usaetxe plazan.

Xabi Solano Maizak, alboan sei musikari eta lau dantzari zituela, hartu zuen lekukoa gero. "Sekulako profesionalak direla erakutsi zuten guztiek. Oso giro ona sortu zen, eta ikusle batzuk dantzan egitera ere animatu ziren", diote antolatzaileek.



Solanok Usaetxe plazan equaztenean egin zuen kontzertua. LEIRE ETXEZARRETA

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko uztaileko sariak!



Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz
ARRIKUTZ
onakiko b

Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeoko sariaren izena: Otarrea
www.harremendenda.org
Bidezko Merkataritza (eko-produktuak)

PARTE HARTZEKO: Posta elektronikoz: kluba@gipuzkoa.eus Whatsapp: KLUBA "soriorren izena" [barkidearen zenbakia] 688 68 00 07 zenbakia. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazi bi lagunendako otordua

TXOPEKUA JATETXEARI ESKER
 Begiratu Puntua aldizkeriko Oronduen atala eta hartu partel
 Parte hartzea: Uztailaren 14ra arte

943 25 05 05  klubo@goienz.eus

 KLUBA Jolabero
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntu aldizkaria
jasotzeko,
zozketetan parte
hartzeko eta txartelaren
abantailez gozatzeko...

ESKaintza berezia!!
Uztailetik abendurako bazkidetza: **30€**
Deitu: **943 25 05 05** • kluba@gaiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denek irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Deba. Eroski ondoan, 2 pertsonendako egokia den apartamentua salgai, ganbara barne. Lehenengo solairua, igogailuarekin. Aurtun fatxada berri-tuta. 659 41 90 54

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Igogailua duen etxebizitza behar dugu errentan. Logela batekoa edo bikoa izan daiteke. Altzaririk gabe ere bai. 645 72 92 87

Debagoiena. Etxebizitza errentan hartuko nuke. 634 69 29 62

105. ETXEA OSATU

Bergara. Errentan hartze-ko libre dagoen gela baten bila nabil. 642 96 68 82

4. LANA

401. ESKAINTZAK

BERTAKO HARATEGIA

Txarkuteroa behar da. Esperientzia baloratuko da. bertakoharategiak@gmail.com

Zaintza Bergaran. Emakume euskaldun bat behar da irailetik aurrera, goizetan, umeak zaindu eta etxeko lanak egiten laguntzeko. 605 70 83 93

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume arduratsua gertu orduka, egunka edo gauean zaitza lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia eta titulazioa dauzkatz. 685 22 54 01

Arrasate. Garbiketan, umeak eta nagusiak zaintzen edota lisatzen lan egingo nuke. Telefonoa: 611 24 26 64

Arrasate. Orduka lan egingo nuke, egunean zehar eta gauean. Legezko agiriak eta ebkez etxeko lanetarako ziurtagiria dauzkatz. 632 39 87 73

Bergara eta inguruak. Erizain laguntzailea nagusiak zaintzeko gertu. Telefonoa: 688 74 00 14

Bergara eta inguruak. Kaixo guztioi! 22 urteko neska euskalduna naiz eta udan umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat haurrekin. Telefonoa: 688 66 06 78

Bergara eta inguruak. Pertsona nagusi eta umeen zaintzan edo lokal, bulego eta etxeko garbiketaren jarduteko prest nago. 610 34 97 88

Bergara. Emakumea lan bila, astelehenetik ostiralera. Nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest. 671 54 59 72

Bergara. Etxeak garbitzen eta umeak edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 661 06 06 63

Bergara. Lan bila nabil, orduka. Pertsona helduak zein umeak zaintzeko edota garbiketaren lanetarako. Cecilia: 602 65 07 72

Bergara. Lan bila nabil, orduka. Pertsona helduak zein umeak zaintzeko edota garbiketaren lanetarako. 643 59 76 06

Bergara. Neska gazte euskalduna, magisteritzan graduatua eta esperientzia duena, udan haurrak zaintzeko prest. Telefonoa: 663 70 01 15

Debagoiena. Arratsaldetan lan egingo nuke nagusiak zaintzen edota estetika eta ile-apaindegi lanetan. Titulazioa, bi arloetakoa. Asteburu eta jai egunetan ere bai. Autoa daukat. 631 98 15 50

Debagoiena. Arratsaldetan orduka nagusiak zaintzeko edota garbiketarako egiteko gertu nago. Gauean zaintza lanak egiteko ere bai. Autoa daukat. 632 56 92 32

Debagoiena. Bertako neska, esperientzia eta titulazioa dituen, nagusiak zaintzeko gertu. Telefonoa: 688 72 88 97

Debagoiena. Denetarioko garbiketarako gertu nago. 600 32 95 26

Debagoiena. Denetarioko garbiketarako egiteko gertu nago. 645 72 92 87

Debagoiena. Emakume arduratsua zaintza lanetarako gertu. Esperientzia eta erreferentzia onekin. 602 53 68 24

Debagoiena. Emakumea lan bila, garbiketaren lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. 627 03 16 40

Debagoiena. Esperientzia duen neska arduratsua zaintza eta garbiketaren lanak egiteko gertu. Orduka eta asteburuetan ere bai. 600 02 74 13

Debagoiena. Esperientzia duen emakumea naiz eta pertsona nagusien zain-

tean lan egiteko prest nago. 600 02 74 13

Debagoiena. Esperientzia eta erreferentzia onak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Legezko agiri eta baimen guztiekin. Autoa. 662 43 08 54

Debagoiena. Esperientzia duen emakumea pertsona helduak zaindu eta garbiketarako egiteko prest. Ikasketak ditut arreta sozio-sanitarioan eta etxeko lanetan. 642 96 68 82

Debagoiena. Mezularitzan, garbiketan, zaintza lanetan, eraikuntzan, ostalaritzan zein okidegian lan egingo nuke. Telefonoa: 603 28 34 98

Debagoiena. Mutil arduratsua zaintza lanetarako gertu. Esperientzia eta erreferentzia onekin. Telefonoa: 602 61 96 42

Debagoiena. Mutila gertu garbiketan, nagusiak zaintzen, igeltsero laguntzaile moduan edota okidegian lan egiteko. 611 21 35 77

Debagoiena. Mutila gertu lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketarako egitean, zerbitzari moduan eta abar. 638 85 43 36

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketaren lan egingo nuke. 638 31 54 66

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago, etxean bertan bizi izatean edo bestela. Telefonoa: 653 54 24 16

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Sozio-sanitario titulazioa eta beharrezko legezko agiri guztiak dauzkat. Telefonoa: 631 12 51 27

Debagoiena. Neska arduratsua gertu lan egiteko. Zaintza eta garbiketaren lanetan esperientzia dut eta erreferentziak aurkez ditzaket. 641 64 99 05

Debagoiena. Neska eta mutil bat gara eta nagusiak zaintzen, denetarioko garbiketarako egiteko zein baserriko lanetan jarduteko gertu gaude. Yesid eta Nancy. 643 47 39 37

Debagoiena. Neska gertu arratsaldetan nagusiak zaintzen lan egiteko. Titulazioa daukat eta baita eskarmentua ere. Autoarekin. 600 00 51 60

Debagoiena. Neska gertu orduka, egunean zehar edo etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaintzen, etxeko lanak eta garbiketarako egi-

tean, zerbitzari moduan eta abar. 654 11 15 14

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen 10 urteko esperientzia duen gizakumea lan bila. Etxean bertan bizitzeko ere bai. Deitu 634 69 29 62 telefono zenbakira.

Debagoiena. Titulazioa eta legezko agiriak dauzkan neska arratsaldetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko gertu. Asteburuetan ere bai. 662 02 45 80

Debagoiena. Zaintza eta garbiketaren lanak egingo nituzke, orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izaten. 631 19 12 64

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke orduka, etxean bertan bizi izaten edota gauean. Baita asteburuetan ere. 637 12 15 95

Haurren zaintza Bergaran. Neska gazte euskalduna udan zehar haurrak zaintzeko prest. Eskolak ematen esperientzia duena eta ingelesezko ikas-

ketak egiten diharduena. 634 40 86 24

Lan bila. Neska arduratsua lan bila. Etxean bertan bizi izaten, orduka eta baita asteburuetan ere. Esperientzia eta sozio-sanitario titulatuarekin. Berehala hasteko moduan. 667 35 72 77

Lana. Aretxabaletako neska bat naiz, 19 urtekoa. Magisteritza Haur Hezkuntza Mondragon Unibertsitatean ikasten dut eta hurrengo ikasturtean 3.maila egingo dut. Esperientzia daukat. Prest egongo nintzateke umeak zaintzeko. 688 66 41 14

Oñati. Neska oñatiar euskalduna naiz eta haurrak zaintzen egingo nuke lan, goizez zein arratsalde. 688 87 23 40

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Euskara eskolak. Bergarako bi emakume gara eta udaran euskarazko eskolak jasoko genituzke; gramatika gehienbat.

Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 669 71 05 27 edo 696 70 55 09

16. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover Defenderra behar dut baserri-rakoa. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, maburata... 623 17 95 37

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak. Bi katakume dauzkagu opari emateko. 608 63 39 49

8. DENETARIK

807. AURKITU

Haurren eguzkitako betaurrekoak eta telefonoa. Haur baten eguzkitako betaurrekoak eta telefonoa (deskargatuta eta txartel barik) aurkitu genuen zapatu arratsaldean Elgetan, Bola Toki inguruan. Udaletxean entregatu ditugu. 943 76 80 22 edo 943 78 90 70

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Oihane Gallego Fernandez
Uztailaren 14an, 15 urte. Zorionak! Segi zaren bezalakoa izaten. Asko maite zaitugu! Muxu eta besarkada potolota, etxekoan partetik. *Larry forever!*



ARETXABALETA
Haizea Garcia Borrego
Uztailaren 12an, 12 urte. Zorionak familia osoaren, eta batez ere, aita-aita-amamen partetik!



OÑATI
Maren Luis Gomez
Uztailaren 13an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Primeran pasatu eguna! Asko maite zaitugu. Etxeko danon partetik, muxu erraldoi pila bat.



ESKORIATZA
Iñaki Gurrutxaga
Uztailaren 13an, 60 urte. Zorionak, Harritsi! 60 urte bete dituzu, baina mutil sanoa, alaia eta batez ere gupoa izaten jarraitzen duzu. 'Harristis Farras Klub' kuadrillaren partetik.



OÑATI
Izar eta Ion Alzelai
Uztailaren 11n, 7 urte. Zorionak, Izar eta Ion! Izarrek zapi urte egingo ditu uztailaren 11n eta Ionek, 44 urte 14an. Ondo pasatu zuen urtebetetze egunak, amatxoaren partetik!



BERGARA
Beñat Alberdi eta Josu Lasagabaster
Beñat Alberdik uztailaren 10ean eta Josu Lasagabasterrek uztailaren 11n. Zorionak biok, etxekoan partetik!



ARRASATE
Susana Bermejo
Uztailaren 10ean, urtebetetzea. Familiaren, eta bereziki, etxeko mutilen partetik, zorionak!



OÑATI
Eñaut Biain
Agirrezabalaga Uztailaren 9an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, familiaren partetik. Oso ondo ospatu zure eguna.



ARETXABALETA
Jokin Ansa
Oskarantza Uztailaren 6an, 10 urte. Zorionak, Jokin! 10 belarri tirakara eta 1000 muxu!




OÑATI
Amets eta Aimar Barriola Biain
Uztailaren 6an, 5 urte. Zorionak, Amets eta Aimar. Egun zoragarria pasatu eta patxo handi bat, danon partetik.



ARRASATE
Mari Carmen Gutierrez Navarro
Uztailaren 4an, 57 urte. Zorionak, Mari Carmen! Muxu handi bat, 'Distrito 33'-ko bizilagunen partetik! Disfrutatu zure eguna.



BERGARA
Unai Sanchez Gonzalez
Uztailaren 4an, 5 urte. Zorionak, Unai! Bost urte! Ze handia zaren! Ondo pasatu zure egunean, zure familiaren partetik. Asko maite zaitugu!



ARRASATE
Hiart Otxoa Retolaza
Uztailaren 4an, 42 urte. Zorionak, Hiart! Muxu pila bat, 'Distrito 33'-ko bizilagunen partetik!


IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarriak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarrien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.



ARETXABALETA
Ander Erafia Urieta
Uztailaren 13an, 9 urte. Zorionak, Ander! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egune eta muxu handi bat zuretzat.



ARRASATE
Uxue Nalda Gonzalez
Uztailaren 12an, 8 urte. Zorionak, potxola! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Besarkada erraldoi bat zure familiaren, eta bereziki, Guguren partetik. Asko maite zaitugu!



OÑATI
Xuban eta Oxel Pildain
Uztailaren 12an, Xubane 4 urte beteko ditu eta uztailaren 17an, Oxelek urtebete. Ondo pasatu zuen egunak eta muxu potolo bana, familia osoaren partetik.



OÑATI
Ane Sagastume Barrena
Uztailaren 10ean, 11 urte. Zorionak, Ane! Urte askotarako, *mix!* Jarraitu izaten zaren bezalakoa, neskatala ona eta arduratsua! Patxo handi bat!



OÑATI
Urko Garitano
Uztailaren 10ean, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Dagoeneko zazpi urte; ze handi! Ondo-ondo pasatu zure egunian! Muxu potolo asko etxeko danon, eta bereziki, Hegoiren partetik! Muaka!



BERGARA
Martin Lazkano Bilbao
Uztailaren 10ean, 6 urte. Martin! Danok gare prest zure eguna ospatzeko! Zu be prest? Zorionak, maitxia! Muxu handi bat!



OÑATI
Alix Biain Ugarte
Uztailaren 9an, 9 urte. Zorionak, Alix eta urte askotarako! Oso ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat lagun eta familiarako danon partetik.



BERGARA
Lur Cuadros Uribesalgo
Uztailaren 8an, 6 urte. Zorionak, maitxia! Oso ondo pasatu zure eguna! Ederto ospatuko dogu! Muxu pila bat, etxeko guztien partetik.




ARRASATE
Eñaut Labayen Marin
Uztailaren 8an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo ospatu zure urtebetetze eguna, familia osoaren partetik! Izugarri maite zaitugu! Muxu pilo bat, prezioso!



ARRASATE
Ibai Madinabeitia Lasa
Uztailaren 5ean, urtebete. Zorionak, sagutxo! Muxu piloa, etxeko partetik!



ARRASATE
Alaia Sandianes Agirreurreta
Uztailaren 5ean, urtebete. Zorionak, familiako eta lagun partetik!



BERGARA
Egoitz Gutierrez Martinez
Uztailaren 4an, 8 urte. Zorionak eta egun polita pasatu, Egoitz! Muxu erraldoi bat denon partetik!



ARRASATE
Pedro Agiriano
Uztailaren 3an Altxibar baserriko Pedro Agirianok 88 urte beteko ditu. Etxeko guztien partetik, mila esker eman diguzun guztiagatik!



ARRASATE
Izadi Balanzategi Robledo
Uztailaren 3an, 3 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure urtebetetzea. Patxo handi bat, familiaren partetik!



ARRASATE
Eneko Abarrategi Segura
Uztailaren 3an, 9 urte. Zorionak, Eneko! Patxo handia familiaren partetik. Jarraitu betiko alaitasun eta zoriontasunaz, txapelduna!

TXUTXU-MUTXUAK



1. Herriko abeslariak protagonista
Aramaioko parkean egin zituzten kontzertuak Maria eta Manex bikoteak, Idoia Asurmendik eta Nhil taldeko kide Sara Alonsok eta Beñat Arrietak.

2. Konfinamendutik, gaztetxera
Konfinamenduan etxetik emanaldiak egin dituzten musikari oñatiarrak hasi dira zuzenekoak ematen gaztetxean. Horietako bat izan da Irene Urzelai.

3. Bertso doinuak Otala Zelain
50 bat bertsozale batu zen ekitaldian. Besteak beste, Arana ahizpak eta Martin Berrizbeitia aritu ziren bertsoetan. Aitor Ziardegik, Andoni Aranak eta Iñaki Barrenak ipini zuten musika.

4. Udalekuez gozatzeko
Txatxilipurdik txikiendako egiten dituen ekintzetan gustura dihardute umeez. Askotariko jolasak egin dituzte asteen, eta egurrezko makilatxoekin jolastu dira.

3. Bihar ezkonduko dira
Nekane eta Gorka Bergarako udaletxean ezkondu eta Zumelagan ospatuko dute. "Zorionak, bikote! Ederto ospatuko dugu. Musu handi bana, familiaren partetik".



ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

HAUTESKUNDE GAUA ZUZENEAN

'Bereziak' Domeka, 19:45



GOIENA

'HIRIGINTZA: HOBETO BIZITZEKO HERRIAK'

'Goiena: 20 urte, 20 albiste' Egubakoitza, 23:00

EGUNERO

EGUNEKO ALBISTE NAGUSIAK

'Albistegia'

15:00/16:00/17:00

EGUAZTENA, 15

JOLI PASCUALENARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizkettap'

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

EGUENA, 16



GOIENA

ANTZUOLATIK ZUZENEAN

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

EGUNERO

ADINDUENDAKO KIROL ARIKETAK

'Adinberri'

17:30

URTEURRENA



Iñigo Guridi Zaloña

'Kalibre'



2019ko martxoaren 23an hil zen, 53 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, uztailak 11, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

—

*Urtebete pasa da, baina zure hutsunea ezin dugu bete.
Asko maite zaitugu.
Zu beti gurekin.
Nahia, Danel eta Irene.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2020ko uztailaren 10ean.

URTEURRENA

Mikel Pagalday Aguiriano



2011ko uztailaren 14an hil zen, 38 urte zituela.

*Mikel,
zerbait joan zitzaigun zurekin
zerbait falta zaigula sentitzen dugu
falta zaigun horrek laguntzen zaitu.*

—

Domekan, hilak 12, Eskoriatzako San Pedro parrokian, 11:30ean, izango da bederatzigarren urteurreneko meza.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Eskoriatzan, 2020ko uztailaren 10ean.

HILETA

Paulina Errasti Irasuegi

Mariano Retolazaren alarguna



2020ko apirilaren 15ean hil zen, 100 urte zituela.

Haren aldeko hileta-elizkizuna zapatuan, uztailaren 11n, izango da, 18:00etan, Angiozarko Mikel Goiaingeruaren elizan.
Elizan maskara erabiltzea ezinbestekoa izango da.

—

*Bere seme-alaben, biloben eta birbiloben partetik,
etxeko bizipoza izan denari.*

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran (Angiozar), 2020ko uztailaren 10ean.

ESKER ONA

Iñaxi Lizarralde Arrieta

Vicente Azkarate 'Zelaibx'-ren alarguna



2020ko uztailaren 3an hil zen, 86 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2020ko uztailaren 10ean.

ESKER ONA

Pedro Biain Letamendi



2020ko ekainaren 27an hil zen, 76 urte zituela.

Bihotzez eskerrik asko azken egun hauetan familiaren ondoan egon eta babesa eman diguzuen guztiei.

—

Uztailaren 11n, larunbata, Agustindarren elizan, arratsaldeko 19:30ean, ondrak izango dira.
Bertaratuko zaretenoi aldeaz aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2020ko uztailaren 10ean.

ESKER ONA

Carmelo Letona Ugarte



2020ko maiatzaren 2an hil zen, 80 urte zituela.

Lerro hauen bidez Carmeloren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2020ko uztailaren 10ean.

ESKER ONA

Amadora Rodeiro Castro

Alfredo Caamañoren alarguna



2020ko uztailaren 4an hil zen, 85 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2020ko uztailaren 10ean.

ESKER ONA

Conchita Alberdi Urquia

Juanito Lugarizaristiren alarguna



2020ko uztailaren 2an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2020ko uztailaren 10ean.

OROIGARRIA



Maria Luisa Sasieta Bolinaga

Lekaimea



2020ko uztailaren 2an hil zen, Zaragozan, 94 urte zituela.

Beti izango zaitugu gogoan.

Zure familia.
Bergaran, 2020ko uztailaren 10ean.

URTEURRENA



Jose Mari Moñux Gimeno
Elisabet Arcelusen alarguna



2019ko uztailaren 8an hil zen, 93 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailak 12, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2020ko uztailaren 10ean.

URTEURRENA



Francisco Javier Larrion Pozueta



2019ko uztailaren 5ean hil zen, 83 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 12an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.
—
Urtea pasa da eta beste hainbat pasako dira, baina guretzat ez da egunik zutaz oroitzen ez garenik.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2020ko uztailaren 10ean.

URTEURRENA

Sabino Igarza Iñarra



2019ko uztailaren 8an hil zen, 91 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailak 12, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2020ko uztailaren 10ean.

OROIGARRIA



Mari Jose Landa Otaegi
Joseba Iñurategiren alarguna



2020ko uztailaren 6an hil zen, 69 urte zituela.

Oin arte geuaz, aurrerantzien geugan.

Jausoroko zure familixiek.
Aretxabaletan, 2020ko uztailaren 10ean.

OROIGARRIA

Mari Jose Landa Otaegi



2020ko uztailaren 6an hil zen, 69 urte zituela.

Larriren lagunak.

Aretxabaletan, 2020ko uztailaren 10ean.

OROIGARRIA

Iñaki Maruri Larrabe



2020ko uztailaren 6an hil zen, 89 urte zituela.

*Plentziatik Arrasatera...
zenbat lan, poztasun, baso ibilaldi,
laguntza eta aholku...
zenbat ezagutza, zenbat maitasun...
ederra irribarrea, adorea eta kementa.*

Etzekoak.
Arrasaten, 2020ko uztailaren 10ean.

OROIGARRIA

Ildefonso Andres Sanchez
'Chirivike'



2020ko uztailaren 6an hil zen.

*Gogoan izango zaitugu.
Besarkada bat familiari une honetan.*



Irantsube elkarte.
Arrasaten, 2020ko uztailaren 10ean.

OROIGARRIA

Juan Ramon Bercibar Uribarren
'Txaparro'



2020ko uztailaren 9an hil zen, 62 urte zituela.

*Eskerrik asko elkarrekin
egin dugun bidean
konpartitu dugunagatik.
Bizipen guztiak
gurekin gelditzen dira.
Bidai on, 'Txaparro'!*

Zure kuadrilla.
Arrasaten, 2020ko uztailaren 10ean.

OROIGARRIA

Iñaki Maruri Larrabe



2020ko uztailaren 6an hil zen, 89 urte zituela.

*Iñaki, zuk ereindako elkertasun haziak
loratu daitezen lanean jarraituko dugu.*



Arrasaten, 2020ko uztailaren 10ean.

OROIGARRIA



Ion Koldo Iturriaga Igarza



2020ko uztailaren 6an hil zen, 53 urte zituela.

Betirako egongo zara gurekin.

Zure kuadrilla.
Bergaran, 2020ko uztailaren 10ean.

OROIGARRIA

Juan Ramon Bercibar Uribarren



Garbiñe Arabaolazaren senarra
2020ko uztailaren 9an hil zen, 62 urte zituela.

Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Arrasate Herri Eskolako Komunitatea
Ikasle, guraso, irakasle eta ez-irakasleak.

Arrasaten, 2020ko uztailaren 10ean.

BABESLEA OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Jakin ezazue
nahiz eta heriotz
asegurua
izan, zuek
nahi duzuen
hileta-zerbitzua
aukeratzeko
eskubide osoa
duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza
dut beti zuentzako.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus



THE BO DEREK'S

BERGARA The Bo Derek's taldea

Galiziako laukoteak kontzertua egingo du Berumuga jaialdiaren baitan. Aire zabaleko emanaldia izango den arren, edukiera mugatua egongo da. Musukoa derrigorrezkoa izango da.

Gaur, egubakoitza, Espoloian, 22:00etan.



POTX MAGOA

ESKORIATZA Potx magoa

Haurrendako zein helduendako askotariko trukoak egingo ditu. Magia zuria ikusi ahal izango da, bat-batekotasunari garrantzia emanez.

Gaur, egubakoitza, Santa Marina plazan, 18:30etan.

EGUBAKOITZA 10

ARETXABALETA UDAren batzarra

2019-2020 denboraldiko diru kontuak eta denboraldi berria landuko dituzte.

Arkupen, 18:30etan.

ELGETA 'Errimak bi oinetan' ikuskizuna

Haatik dantza konpainiaren eskutik, garai bateko eta egungo bertso eta doinuak osatutako emanaldia.

Espaloian, 19:00etan.

ARETXABALETA San Kristobal jaiak

19:00etan, meza.

Larrino auzoan, 19:00etan.

OÑATI Trianako jaiak

19:00etan, txupinazoa eta txosnaren irekiera; eta 22:30etan, Rukula taldearen kontzertua.

Trianan.

ARRASATE 'Urbasa' ikuskizuna

Antzerkia, musika eta zirkua bateratzen dituen emanaldia.

Biteri plazan, 20:00etan.

ARETXABALETA 'Festamentua' ikuskizuna

Dantzak, umorea eta doinu ezagunak bateratuko ditu Tio Teronen Semeak taldeak.

Herriko Plazan, 20:30etan.

ARAMAIO 'Korterraza' film laburren jaialdia

Irekia eta debalde.

Kanpoko frontoian, 22:00etan.

ZAPATUA 11

ARRASATE 'Arrasate monumentala ezagutzen' bisita

Izena emateko: Arrasate.eus/ezagutu. 11:00etan euskaraz eta 12:30etan gazteleraz.

Herriko Plazan.

BERGARA 'Bergarako geologia eta ondarea ezagutu' bisita

Familian egiteko proposa; Bergarako erdigunean.

Laboratoriumen, 11:00etan.

OÑATI Trianako jaiak

11:00etan, haurrendako marrazki saioa; 15:00etan, ilinti kafea; 16:00etan, mus txapelketa; 20:00etan, Aiert Alberdiren kontzertua; eta 22:30etan, Mugi Panderoa taldearekin erromeria.

Trianan.

OÑATI 'Kantuz zure etxean' emanaldia

Ganbara eta Hots abesbatzek egingo dute, *streaming* bidez Ganbara Faktoriaren webgunetik, Eric Whitacreraren musikarekin.

Unibertsitateko klaustroan, 12:30etan.

OÑATI 'Oñati, giltzapeko altxorrak' bisita gidatua

Parrokia eta unibertsitatea ezagutzeko aukera bikoitza, 13:00etan eta 17:00etan.

Turismo Bulegoan.

BERGARA 'Begiradak-Miradas' erakusketa

Arizondo Argazkizale Elkarteko hamahiru kideren 39 erretratu ikusteko aukera, hilaren 26ra arte.

Aroztegin, 18:00etan.

ANTZUOLA 'Erradikalak ginen' antzezlan musikatua

Ane Labaka bertsolariarekin eta Beatriz Egizabal aktorearekin.

Torresoroan, 19:00etan.

ARETXABALETA Petti eta John Galdos

Rock, folk-rock, post-rock eta country doinuak entzuteko aukera.

Otala Zelain, 19:00etan.

DOMEKA 12

ELGETA Puttarrira irteera

Aralar aldera joango dira.

Mendizaleen plazan, 08:00etan.

ARRASATE Murugaini bira

Tontorrera igo barik, inguruko paraieak ezagutzeko aukera. Izena emateko: Arrasate.eus/ezagutu.

Herriko Plazan, 09:00etan.

BERGARA 'Conocer la geología y patrimonio de Bergara' bisita

Familian egiteko proposa, Bergarako erdigunean, gazteleraz.

Laboratoriumen, 11:00etan.

OÑATI Trianako jaiak

11:00etan, artisauen azoka; 19:00etan, Potx Eta Lotx; eta 21:00etan, traka eta jaien amaiera.

Trianan.

ARRASATE Ekiñe Casado eta Tabu bakarlariak

Kontzertu akustikoa egingo dute. Sarrerak, hiru euro.

Gaztetxean, 12:30etan.

ASTELEHENA 13

ARRASATE Udaixe

Bazkari txilling egingo dute.

Gazte txokoetan, 12:00etan.

MARTITZENA 14

OÑATI 'Zure diru-zorroa smartphonean' hitzaldia

Zuzeneko online hitzaldia, KZguneak antolatuta, euskaraz.

Telematikoki, 11:00etan.

ARRASATE Udaixe: natura irteera

Usakora joango diraa.

Musakolan, 17:00etan.

ARRASATE Dantza tailerra

Candem Town akademiako kideen eskutik. Askotariko dantzak landuko dituzte.

Seminarioko karpan, 17:00etan.

OÑATI 'Arian komandantea' filma

Martizinema egitarauaren baitan, Alba Sotorraren plana emango dute.

Gaztetxean, 22:00etan.

EGUAZTENA 15

BERGARA 'Gure elikaduraren sustraiak' hitzaldia

Amaia Arranzek egingo du berba, euskaraz.

Laboratoriumen, 11:00etan.

OÑATI Udaiko C1 ikastaroa: izena emateko azken eguna

Gaur da azken eguna, Izena, euskaltegian.

Euskaltegian, 14:00etan.

ARRASATE Keu Agirretxea & Pablo Novoa eta Leire Etxezarreta

Udazbalen egitarauaren baitako kontzertua.

Aldai plazan, 19:30etan.

ARRASATE 'Fight' ikuskizuna

Gorputzaren mugimenduaren garrantzia ematen dion ikuskizuna.

Zaldibar parkean, 20:00etan.



HIKA

ARRASATE Udaixe
Gaubeila egingo dute.
San Kristobalen, 21:30ean.

BERGARA 'Mujercitas' pelikula
Irekia eta debalde. Nork bere afaria eraman beharko du.
Ubera auzoan, 22:00etan.

EGUENA 16

OÑATI Garbigune ibiltaria
Egun osoan batuko dute materiala.
Olakuan, 10:30ean.

ARRASATE Udaixe: ur parkea
Malvinetan egingo dute *Urban D'or* delako parkea.
Gazte txokoetan, 15:00etan.

BERGARA Haurrentzako eskulan tailerrak
Izedarren eskutik.
Seminarixoko karpan, 17:00etan.

OÑATI 'Zure ordenagailua birus eta bestelako mehatxuetatik babestu' hitzaldia
Zuzeneko online hitzaldia, KZguneak antolatuta, gazteleraz.
Telematikoki, 18:00etan.

ARAMAIO Bertso saioa
Paula Amilburu, Martin Abarrategi, Igor Elorza eta Miren Amuriza bertsoan.
Parkean, 19:30ean.

EGUBAKOITZA 17

ARRASATE Sexu kontsulta
Udaixe programaren baitan.
San Andresko gazte txokoan, 11:00etan.

ARRASATE 'Desioaren orientazioa' tailerra
Udaixe programaren baitan.
San Andresen, 12.30ean.

BERGARA 'Lorategien taupada berdeak' bisita gidatua
Bergarako lorategi historikoak eta horietan gordetzen diren altxorrak ezagutzeko aukera.
Laboratoriumen, 18:00etan.

ARETXABALETA Pirritx, Porrotx eta Marimotots
Pailazo hirukoteak *Bizi dantza* ikuskizuna egingo du.
Ibarran, 18:00etan.

OÑATI Ainhoa Larrañaga
Jazz, neo-soul eta swing doinuak Hernaniko bakarlariarekin. Aurrez hartu behar dira sarrerak, edukiera mugatua delako.
Lazarraga lorategian, 19:00etan.

ARRASATE 'Expectations will not kill you' ikuskizuna
Bete gura diren ametsak errealtate bihurtzen ez direnean sortzen den porrot sentimenduaren gaineko

ARETXABALETA 'Tonbola'
Hika Teatroa konpainiaren eskutik. Bizitza tonbola bat dela diote askok, eta hori "hankaz gora jartzera" dator Hika taldea.
Hilaren 15ean, Herriko Plaza, 19:00etan.

ikuskizuna. Raymond Naval eta Jaiotz Osa dira protagonistak.
Zaldibar pilotalekuan, 20:00etan.

BERGARA Julen Murua Eta Sukenaren eta Jone eta Alex Markuletaren kontzertua
Konfinamenduan etxetik emanaldiak egin zituzten musikariak zuzenean ezagutzeko aukera.
Gaztetxean, 20:00etan.

BERGARA Anaut taldea
Alberto Anautek 2013an sortutako bandaren doinuez gozatzeko aukera.
Espoloian, 22:00etan.

ZAPATUA 18

ARRASATE Debagoieneko txakolina
Salmenta eta dastatzea.
Sebero Altuben, 10:00etan.

ARRASATE 'Arrasate monumentala ezagutzen' bisita gidatua
11:00etan euskaraz eta 12:30ean gazteleraz egingo dute.
Herriko plazan.

BERGARA 'Los latidos verdes de los jardines' bisita gidatua
Lorategi historikoak ezagutzeko aukera.
Laboratoriumen, 11:00etan.

ZINEMA

GASTEIZ

GORBEIA

The gentlemen
Egubakoitzetik domekara: 20:05.
El hombre invisible
Egubakoitzetik domekara: 19:45.

Onward
Egunero: 17:10.

Spy cat
Egunero: 17:00.

Personal assistant
Egunero: 17:20.

Cinema paradiso
Egubakoitzetik domekara: 17:00.

La posesión de Mary
Egunero: 19:55.

Valentine, venganza oscura
Egunero: 17:20.

La verdadera historia de la banda de Kelly
Egunero: 19:40.

La lista de los desos
Egubakoitzetik domekara: 19:50.

Astelehenetik egunera: 20:05.

Zapatos y los siete trolls
Egubakoitzetik domekara: 17:10.
Astelehenetik egunera: 17:00.

Dersu uzala
Egunero: 19:30.

La maldición del guapo
Egubakoitzetik domekara: 18:00, 20:20.
Astelehenetik egunera: 17:40, 20:20.

Donde estás, Bernardette?
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00.
Astelehenetik egunera: 19:45.

El laberinto del fauno
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 19:45.
Astelehenetik egunera: 17:15.

First love
Egubakoitzetik domekara: 17:40, 20:10.
Astelehenetik egunera: 20:10.

FLORIDA

Personal assistant
Egunero: 17:20.

Cinema paradiso
Egunero: 19:20.

Oro blanco
Egunero: 17:10.

La lista de los deseos
Egunero: 20:30.

Zapatos rojos y los siete trolls
Egunero: 17:00, 20:00.

Todo pasa en Tel Aviv
Egunero, martitzena izan ezik: 19:50.
Martitzena: 17:20.

Unplanned
Egunero, martitzena izan ezik: 17:45, 20:20.
Martitzena: 20:20.

Marcelino, el mejor payaso del mundo
Egunero: 17:00, 18:45.

Dersu uzala
Egunero: 17:00, 19:30.

Under the skin
Egunero: 17:10, 19:45.
00:00.

BOULEVAR

First love
Egunero martitzena izan ezik: 17:30, 20:00, 22:35.

El laberinto del fauno
Egunero: 21:00.

Donde estás, Bernardette?
Egunero: 17:45, 20:10, 22:40.

Onward
Egunero: 17:35, 19:50.

The gentlemen
Egunero: 22:15.

La lista de los deseos
Egunero: 18:00, 20:25.

La posesion de Mary
Egunero: 22:50.

Bloodshot
Egunero: 22:00.

KRITIKA

La verdadera historia de la banda Kelly ★★★★★
Zuz.: Justin Kurzel. **Herr.:** Australia (2019). **Aktoreak:** George Mckay, Nicholas Hoult, Essie Davis. **Iraupena:** 124 minutu.

Proposamen astuna

ANTONIO ZABALA

Ned Kelly Australiako pertsonaia mitikoa da. XIX. mendean bizi izan zen. Lapurra eta hiltzailea, batzuen ustez; britaniarren zapalkuntzaren kontra jaiki zen gizona, beste batzuen ustez. Filmean bere istorioa kontatzen zaigu; hori bai, denborazko elipsi handiak erabiliz. Txikitan izandako bizi baldintzek eragin handia izan zuten bere portaeran. Bizi izandako giroa, bai familian, bai gizartean, nahiko basatia izan zen: aitareen falta, amaren izaera indartsua eta menperatzailea, bidean topatzen dituen pertsonak, gizarteak indarkeria erabiltzeko duen joera... Oraindik haurra besterik ez denean, atxilotu egiten dute, eta kartzelatik bueltan, bere delituzko ekintzak eta bere taldearen

sorrera ikusiko ditugu. Gertatzen den indarkerian, Ned Kellyk, eragin handia jasotzen du kanpotik: Ruseel Crowek egiten duen pertsonaiarengandik, amarengandik, harreman korapilatsuak dituen polizia batengandik...

La verdadera historia de la banda de Kelly gehiegikerian erortzen den film naturalista da. Pertsonaien izaera, egiten dituzten gauzak, izaten diren gertaera guztiak... Zaila egiten zaigu pertsonaien ibilbidean murgiltzea. Gainera, elipsien gehiegizko erabilerak narrazioa nahasia eta astuna izatea dakar. Hala eta guztiz, badira eszena eta irudi ederrak. Antzematen da film desberdin bat egiten nahi izan zuela zuzendariak.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

Aplikazioa

Urte hasieran, elikagai batzuk egoera txarrean zeudela eta, produktu horiek ez jateko abisua komunikabideen bitartez zabaldu zuten agintariek. Gainera, lagun bati supermerkatu batetik deitu zioten gauza bera esateko; leialtasun txarteleko erregistroatik jakin zuten nork zer erosi zuen. Lagunak esker onez hartu zuen jakinarazpena.

Aste honetako Ordiziako koronabirus kasurako botere publikoek komunikabideak erabili dituzte kale hartan izan zirenei esateko beraiekin kontaktuan jartzeko. Ez dakit telefonoan sartu diguten aplikazioa martxan dagoen. Edonola ere, teknologia inbaditzaile honek baldintza egokienak dauzka Mendebaldeko demokrazietan (ere) sartzeko: 1. Beldurraren testuingurua. Jakina denez, shock egoerak dira une aproposenak neurri bereziak ezartzeko. 2. Osasun agintarien figura. Hutsazinak eta aseptikoak direlakoan agertzen dira. 3. Jende asko prest dago teknologia hori onartzeko; gogo onez, gainera: "Total, bizitza arrunta daramat, zeren beldur izan naiteke?".

Denbora kontua da agente publiko zein pribatuak, pandemiaren aparte, pertsonen mugimenduak errazago jarraitzeko erabiltzea.

BUKATZEKO



Goienako Larraitx Zeberio eta Txatxilipurdiko Lander Juaristi, *Guraso.eus* atariko arduradunak. GOIENA

Hamar urteren ondoren, indartuta eta eraberrituta

'Guraso.eus' berri egin dute, sortu zenetik hamar urte igarota, plataforma garai berrietara egokituz. Multimedia atalak pisu handiagoa izango du, eduki gehiago sortuko dira eta posta elektronikoz jaso zitekeen hilabetekaria astekari izatera pasatuko da

Miren Arregi ARRASATE

Gurasotasuna eta heziketa gaiak lantzen dituen *Guraso.eus* ataria eraberritu egin dute, proiektuak hamar urteko ibilbidea bete berri duen honetan. Hala, garai berrietara egokitu dute plataforma digitala, gurasoen premiak asetzen jarraitzeko gune izaten jarrai dezan. Ataria Txatxilipurdi elkartearen eta Goiena

Komunikazio Taldearen arteko elkarlanaren emaitza da eta proiektuak Arrasateko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzen du.

Gailu berrietara egokituta

Guztiz berria da *Guraso.eus* eta gaur egun oso erabiliak diren gailu eramangarrietarako ego-

kituta dago: mugikorrek, tabletek, eta abar. "Izan ere, lehen ez bezala, bisita kopuru handiena, orain, mugikorretatik datoz", dio Goienako Larraitx Zeberio. "Edukia aurkezteko modua aldatu egin dugu", erantsi du Txatxilipurdiko Lander Juaristik. "Erabiltzaileei guk nahi dugun edukia nabarmentzeko aukera dugu orain, kolaboratzaileak

nabarmendu ditugu eta fresko-tasuna irabazi dugu", gehitu du. Multimedia atalari pisu handiagoa eman zaio atari berrituan eta edukien ekoizpenean ere aldaketa nabaria egon da; astean zazpi bat eduki sortzetik 14 bat eduki sortzera pasatuko dira, komunitateak oso ondo erantzuten duela ikusi baitute.

Izan ere, azken urteotan nabarmen igo da atariaren erabiltzaile kopurua. "Datuei dagokionez, goranzko joerari eutsi diogu", dio Txatxilipurdiko Lander Juaristik: "2020an, dagoeneko, 54.971 erabiltzailek erabili dute gure tresna, aurreko urte osoan 46.357 izan ziren. COVID-19aren faktorea ere kontuan izan behar dugu datuak aztertzeke orduan, bisitek nabarmen egin baitzuten gora itxialdi garaian", azaldu du Juaristik.

Kolaboratzaile sarea

Heziketarekin lotutako gaietan adituak eta arituak diren kolaboratzaile sare zabala da *Guraso.eus* atariaren bereizgarri nagusia. 40 kolaboratzailek baino gehiagok osatzen dute: abokatuak, dietistak, pediatriak, sexologoak, aita eta ama arituak, psikologoak, psikomotrizistak... asko eta askotarikoak dira. Garrantzia dute baita ere aktualitatearekin lotutako albisteek eta elkarrizketek, aisialdi proposamenek, hitzorduen agenda berriak edota multimedia atalak, non ikus-entzunezkoak, *Gurasoak* irratsaioa eta argazki galeriak jasotzen diren.

Informazioa jasotzeko aukera zabala dago: Twitter kanalaren bidez edo Facebook orrian; eta posta elektronikoz bidez jaso zitekeen hilabetekaria, aurretik zean astekari izango dena.



HAUTESKUNDE GAUA

GOIENA TELEBISTA, ZUZENETIK SAIOA

UZTAILAREN 12AN, DOMEKAN, 19:45ETIK AURRERA

TXOMIN MADINAK ETA GOIATZ ARANAK AURKEZTUTAKO SAIOA

goiena
20 URTE ZUEKIN

